

KLASIKOAK

Juan Bautista EGUZKITZA

Juan Bautista
Eguzkitza

Gizarte-Auzia

KLASIKOAK

42


EUSKO JAURLARITZA



KULTURA ETA TURISMO SAILA

EUSKARA-ARAZOETARAKO ZUZENDARITZA

EUSKAL
EDITOREEN
ELKARTEA



Juan Bautista Eguzkitza Lemoan jaio zen 1875. urtean. Gasteizen burutu zituen Seminario Ikasketak eta han biztu zitzaion idazleari euskaltzaletasuna. Lekeition eman zuen bere bizitzaren zatirik emankorra (1904-1937) latina irakasten eta euskaltzale zereginetan, Euskaltzaindia sortuberrian bezala RIEV aldizkarian, «Jaungoiko-Zale» bazkunean eta hainbat taldelan emankorretan.

Gerraren poderioz, garaileen mingostasuna eta atxiloketa jasan eta gero, Lemoan hil zen 1939. urtean.



Euskal Biblioteka Labayru



1022228

LITERATURA / N. 3049

KLASIKOAK
JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE

GIZARTE-AUZIA

KULTURA ETA TURISMO sailaren laguntza bereziz
argitaratzen da KLASIKOAK bilduma hau.

Edizioaren prestatzailea: Andres Urrutia

© BREIN

I.S.B.N.: 84-7568-314-2

Legezko gordailua: SS 1011/90

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

*«Euskera dala-ta, darabilgun auzi au, nolanaiko auzia danik
ez uste: galdu ala irabaziko degun ez dakit;
baña auzi onen irabazte edo galtzeak, garen ala ez erabakiko»
(Eguzkitza, «Euskera» aldizkarian, 1926, 35. orr.)*

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE (1875-1939)

1) SARRERA

1939. urtean, Irailaren zenbakian, «Boletín Oficial del Obispado de Vitoria» zelakoak, honelakoa iragartzen zuen bere «Secretaria de Cámara» sailean:

«Defunciones.— El día 12, D. Juan Bautista Egusquiza y Meabe, adscrito a la parroquia de Lemona, a los 65 años».

Horrela bukatzen zen, ezkutuan eta inolako aipamenik gabe, mende honen hasierako euskaltzale gogor eta grinatsua izandako Eguzkitza abadearen bizitza. Horrela ere amaitzen zen, gerra zibila hasi zenetik berak jasan behar izan zituen oinaze eta atsekabea eta azkenez ere, horrela agortzen zen, hogeitamar urte luzez euskarak gozatu zuen autore argi honen itzala.

Beraz, bere heriotzetik berrogeitamar urte bete direnean, Eguzkitzaren lanetarikoa bat plazaratzekotan, hain zuzen ere, «Gizarte-auzia» aukeratu da, bere lanen artean, hauxe baita, ausaz, egungo euskaltzalei zerbaiten erakusle izan dakieken lanik aipagarriena. Ahaztua dagoelako, dudarik ez, Eguzkitzaren ekina. Gaur euskal literaturaren bideak beste nonbaitetik doazenean, ez litzateke horren alperrik izango, bere sasoiaren girotua noski eta aldiaren aldiko ideien berezitasunak erakutsiz, idazle honen zenbait pasarte berriro ere eskaintzea.

Horregatik hautatu da, hain zuzen ere, «Gizarte-auzia» bere lanik bereizgarrientzat, berau baliozko bait zaigu bi xedetarako: Lehenez, orduarte euskarari arrotz zitzaion gizarte arazoari Eguzkitzak eman zion euskaralbena azaltzeko (bere eritzi ideologikoak eta guzti, jakina) eta bestetik Eguzkitzaren euskara eredia eta euskarari buruzko ideiak deskribatzeko;

bere argilun eta baldintzekin eta, horrela gerra aurreko Bizkaiko euskal prosarekiko hurbilketa baten bila joateko, batez ere saio tankeran edo idazmoldean.

2) BIZITZA-ZERTZELADAK

1975. urtean, Eguzkitzaren jaiotzetik ehun urte zirela eta, Euskaltzaindiak bere jaioterrian, Lemoan, eskaini zioin omenaldian, ezin ederkiago erakutsi zituen Eusebio Erkiaga lekeitiarrak Eguzkitzaren gorabeherak. Bere lorratzari jarraituz, ikus ditzagun jarraian haietariko batzu.

Lemoan jaioa 1875. urtean, Seminario Ikasketak Gazteizen egina, euskalzaletasun grinatsu baten jabea izanik gaztarotik, Eguzkitzak Seminarioan irakasle jardun eta gero (lekuan lekuko 1903-1904 Ikasturtearen hasierako eman zuen Sarrera Hitzaldia, latin hutsean biribildua), Lekeitiorantza doakigu, oposizio batzuren emaitzak direla medio eta zenbait atsekaberen ondorioz. 1904. urtean itsas bazterrean dugu, herri horretan bere bizitzaren zatirik emankorra izango den 1904-1937 aldirako, latina irakasten eta bere zeregin euskaltzaleak betetzen.

Herri horretan beteko bait ditu Eguzkitzak bere eginkizun gotorrenak. Handik egingo du lan sortu berri den Euskaltzaindian eta ez gainera nolana hiko lana, lan ugari eta joria baizik, bertako partaidetza osoa berehala eskuratuz eta lagunduko du baita ere, RIEV aldizkarian. Handik ere burutuko ditu, han-hor-hemenka, hamaika hitzaldi, eleder, sermoi, ekin-tza eta abarrekoak, guztiak euskara eta erlijioaren alde. Eta bertatik ere, zuzenduko du, esku irmoz, berak egindako lana «Jaungoiko-Zale» bazkunean, Zornotzako eta Bizkaiko euskalzaletasunaren iturburu indartsu izan zen apaiz aldra hartan. Hauetan guztietan, bere deituraz ateko, «Lemoafa» «Efizale» «Efi» edo «Efi» ezizenak erabiliz, bere gogoaren emaitzak sarri izango dira agerkai orduko euskal argitarapenetan, bere liburugintza ahanzteke, arinki zorrozuko bait du luma Bizkaiko itsasaldean.

Heriotze orduko, beraz, Eguzkitza dugu garaiko idazleen artean, eta batez ere erlijio gaietan, gailenetarikoak, eta horren lekukotzak ez dira falta. «Orixe», beste batzuren artean, mintza zaigu Eguzkitzari buruz:

«Gai zailetan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez da-
kit ote den Euskalerrian» («Euskal Literaturaren Atze edo Edesti Laburra». Euskal Esnalea, 17, 1927).

Azkenean, gerraren poderioz, garaileen mingostasuna eta atxiloketa jasan eta gero, Lekeitiotik kanpo, bere Lemoan hil zen, esandako 1939. urtean, Abuztuaren hamabian.

3) EGUZKITZAREN LANA: IKUSPEGIAK

Eguzkitzak mamituriko lanean, nahitanahiez, bi ardatz nagusi agerian zaizkigu: euskara eta kristautasuna. «Euskaldun fededun» axioma abiapuntuz harturik, Eguzkitza abertzalea dugu, eta euskaltzalea ere. Euskal Herri kristaua eta aske baten alde doa gizon hau. Horretara datoz bere ahalak eta lerrak, horretara bere ahaleginak eta saioak eta horretatik ere datozkio berak defendatzen dituen ideiak eta pentsakerak.

Honela, bere baitako bi ikuspegi nagusiok erakartzen dute Eguzkitza kristautasunaren aldetik, pietate hutsezko gaiez kanpo ere, sasoioko gizarate arazoak tratatzera, Eliza Katolikoaren doktrina sozialaren arabera.

Beraz, hiru arlo nagusi Eguzkitzarengan gure azterketarako:

3.1) Eguzkitza euskaltzalea.

3.2) Eguzkitza erlijio idazlea.

3.3) Eguzkitza gai sozialetan idazlea: «Gizarte-auzia».

3.1) Eguzkitza euskaltzalea

Lemoar abadearen euskaltzaletasuna oinarri batzuetan sostenga daiten teke, honako hauetan, alegia:

3.1.1) Euskara, euskaldunon hizkuntza dugu, asaba zaharren-gandik jaso, ekarri eta guk zaindu beharrekoa. Euskara da euskaldunon giltzarria. Berak honela dio:

–Euskara ikur politikoa egin nahi dutenen aurka:

«Euskera ezta alderdi bat edo besterena, euskaldun guziena baizik» («Euskera», 1928, 26. orr.)

–Euskarak, halare, ez du lanzor handirik sortzen euskaldunon artean eta hori dela eta keixuka dabilkigu Eguzkitza:

«Gurasoak beren aurrei irakatsiko balie ta euskaldun guziok elkarrekin maitasunez beti ta edonon erabiliko bagenu, gaur duan baino bizi azkar, zoli ta sendoagoa laster iritxiko luke» («Euskera» 1928, 32. orr.)

–Euskara hil ala biziko kinka larrian dugu:

«Badakizute: izkuntzak berenez aldakor eta ilkorrak dira: baña barneko gaitzez ez tira iltzen» «Bizitza eta eriotza mingañean daude» («Euskera» 1928, 32 orr.)

3.1.2) Euskara, euskaldunon ohiturekin batera, eskuratua du gu arbasoengandik, fede on, asmo orbangabeak eta endaz garbiak diren euskaldunen ispilua lakoxea:

«Eta egiz, geren asabekin ertsien, estuen, obekien lotzen gaituan lotzaiki ta txibista, Euskera da» («Euskera», 1928, 29.orr.)

«Euskera uts-utsik darabilten bazterretan eta erderazko paperak sartzen ez tiranetan, apezak askoz obeki daude ta beren erriak errezago zaitzen dituzte lengo oitura zar-ederretan» («Euskera», 1928, 31. orr.)

3.1.3) Hirutasun hau ixteko, Eguzkitza aldazale/egonahi deman kokatua ere, eta euskara fedeari hertsiki lotua ikusi arren, honen eguneratu beharra argiro dakusa. XX. mendearen hasierarekin etorri zen uholde berbiziart hartan murgildurik, Eguzkitzak ere orduko euskaltzaleen kezka nagusiak ziren arazoei aurre egin behar izan zien. Batipat «Euskera» aldizkarian 1922. urtean argitaratu zen «Euskera Idatziaren Batasuna» miaketan non Eguzkitzak, Euskaltzaindiak bere zeregin nagusitzat hartu zuen euskararen batasunari buruzko inkestarako bere ihardespenak bildu zituen. Besteak beste, eta lerro nagusitarako laburtzeko, bost atal desberdinak ikutu zituen Eguzkitzak, gure iduriko:

3.1.3.1) HIZTEGIGINTZA

Eraberritze, aurpegi aldatze edo eguneratze prozesuan, euskara alabarrez, kanpoko maileguen eske ikusten du Lemoarrak. Nola, ordea, jo haietara? Eguzkitzaren erantzuna:

«Itz barriak sortu orduko, bearrezkoak diran ala ez astiro ta ondo begiratu bedi: edozein euskalkitan itz zarrrik badago, orren ordezeko barriarik ez da bear» («Euskera», 1922, 119. orr.)

«Au egin arren be ..., edozein erderaz adierazo leiken guztia euskeraz adierazo al izateko, bear dituan itz barri guztiakin ornidu eta aberastu bear da» («Euskera», 1922, 119. orr.)

3.1.3.2) JOSKERA

Hemen bai dela gure Lemoarra axolatsu eta kezkatu. Sasoiko semea izanik joskera kontuetan Eguzkitzak anaforikoen erabilera osoro baztertzen du. Hitz gogorrek jaurtikiak ditu hauen kontra. Aitzitik berak erabiltzen duen joskerarekin horrelako arazoak gaindituztat ematen ditu. Eta

hauxe da, hain zuzen ere, Villasantek (Ikus «Historia de la Literatura Vasca» 362. orr.) leporatzen dion bekaturik nagusia: garbiaren garbiak diskurtsoaren jatortasuna eta batez ere jarraitasuna moztu eta zailtzen duela, libreago jokatzu jadetsiko ote zituzkeen ondorioetara heltzeke.

Hortik abiatua ere, Altubek formulatuko zuen (gogoratu «Erderismos» liburua) ildotik jarraitzearen irakurketa oztopatu eta aspertu egiten duela Eguzkitzak diote batzuk; halare eta aitzitik bere hizlari jarioak zenbait kasutan argitasuna eta ulergarritasuna lortzen dituela ezin uka, irakasten tankerako doinua, Erkiagak adierazi duenez («Euskera», 1975).

3.1.3.3) HIPERBIZKAIERAREN AURREAN

Gezurra badirudi ere, Eguzkitza ez da, horratio, garai hartan bizkaieraren izenean egin ziren gehiegikerien aldeko. Egun Itziar Lakak deitu duen «hiperbizkaiera»z ari gara, ari ere. «Nabariztaña» orduko aita Zabalá-Arana zenaren kontra gogor dihardu Eguzkitzak «Euzkerea»n, Bilboko «Juventud Vasca»ren aldizkarian azaldutako idazki batzu aintzakotzat hartuz geroz.

«Nabariztaña»ren logika linguistikoa apurtuz (honek euskara «logikoa» eskatzen bait zuen) Eguzkitzak honela diotsa:

«El autor de "Lecciones de Ortografía" que dedicó algunas vigiliass al estudio de la conjugación y no tenia pelo de tonto, no pudo dejar de observar eso que "Nabariztaña" llama "la gran anomalía". Que yo sepa, jamás habló no digo ya de la necesidad, pero ni siquiera de la conveniencia de corregirla, sin duda porque le pareció que ahí no había anomalía, grande ni chica, como en la realidad no la hay, si ya no es que pretendemos que la conjugación vasca esté presidida por la lógica de la razón pura.» («Euzkerea», 1933, 489. orr.)»

Antzerakorik esan daiteke Azkuerekin izan zituen paperezko istilu eta gogo gatazkez. Kopuruz, Eguzkitzaren lana Euskaltzaindian barne, Azkueren bezainbestekoa bada zenbait kasutan, baina ez dio horregaitik hutsik niminoena ere barkatzen lekeitiarrari. Ikus bestela «Observaciones a algunos puntos de la Morfología Vasca de Azkue» in «Morfología Vasca» —Azkue III. tomoa-Bilbao-LGEV-1969.

3.1.3.4) EUSKARAREN BATASUNA

Gai garrantzitsu honetan Lemoarrak helburutzat du euskararen batasuna, gipuzkera euskalkian oinarritua. Horretarako auresupostuak hone-lakoak ikusten ditu, lehen esandako artikuluan:

«Augaitik euskeraren bizitz oso ta osasun mardo a nai ba-dogu, ume-riaki alde batera itxi, geure indar guztiak alkartu ta elburu orretara zu-zendu bear doguzala diñot» («Euskera», 1922, 114. orr.)

Eta batasun hori nola egin ere azaltzen du:

«Augaitik euskera-batasunaren jasointzat gipuzkoar-euskalkia artu nai dauna orren aurka dagona baño zuzenago dabil» («Euskera», 1922, 116. orr.)

3.1.3.5) EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

Eguzkitzak, bere praktikan bizkaiera eta gipuzkera erabiltzen ditu, egoera eta testuinguru desberdinetan; areago, bere zenbait sermoi ere bi erataro ageri dira. Horrexegaitik gipuzkeraren gainean jasoriko euskara batua onartu eta bultzatzen badu ere, euskalki bakoitzaren batasuna eta lan-keta ongarriztat du:

«Euskalki bakoitzaren batasuna egiteko asmoa ona da» «Augatik euskalki bakoitzaren batasunera joteko asmoz, lanean diardugun bitar-tean, euskera osoarena geure gogo ta begien aurrean beti euki bear do-gu» «euskalkietan idatziko dabenentzat...araurik onena auxe dala uste dot: idazleak norentzat idazten daun beti begi aurrean euki begi» («Euskera», 1922, 117., 122. orr.)

Honetan ere gure egunotan gertatu den muintetik ere hain urrundua ez dabilela erakusten du garbiki «Efi»-k.

3.2) Eguzkitza erlijio -idazlea

Eguzkitza idazle izatetik at, apaiza ere bada. Jakitura handiko aba-dea gainera. Sermoigintzaz bezainbeste gizarteaz axolaturiko apaiza, eta nola ez, gizarte horretan fedea zabaltzeko eta hedatzeko prest dagoena. Be-re lanabesa, ahotsaz gain idazketa du. Eta hortik hasten du bere egitekoa, ahoz zein idatziz. Ahoz sermoilari ona zela ezin aitziz. Sarri egin zituen Euskal Egunetako hitzaldiak edo eta predikuak, horrelako batetan, hain zuzen ere, Durangon, Euskal Egunetako ospakizunak zirela eta, Azkuek hauxe idatzi zuela:

«Ai nork leukean eskueran gramofonu uts bat, bera ementxe erabil-teko eskubidea eta yasa! Neure lankide maite onen itzaldi auxe artuta es-tualdi onetan erara lasaituko nintzateke» («Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak»-Bilbao-1922-129. orr.) Eguzkitzaz ziharduen noski.

Eguzkitzaren lana, bere produkzio idatzi emankorrenak, alor hone-tan behinipein, «Jaungoiko-Zale» bazkunean gauzatzen da. Zornotzan sor-tua, abade talde batek bulkatua, euskara eta abadegintza elkar lotuz, «Jaungoiko-Zale» eta gerogarrenean «Ekin» aldizkarietan eta gainontzeko liburuetan, euskarazko erlijio hitzlaruari eragin handia eman zion Biz-kaian, «Argia»k Gipuzkoan egin zuen ber.

Bere argitarapenen zerrenda luzetik, alabaina, Eguzkitzaren honako lan hauek bereiz ditzakegu, erlijioaz aritzekotan:

-«Garbitokiko Arimaren Ila» Sarda y Salvany-k egindako liburua-ren itzulpena (1915).

-«Argi Donea» izen bereko abade eskuliburuaren bizkaieralpena (1933).

-«Andra Mariaren Loretako ila» (1919) nolabait esateko bere obra nagusia gai honetan, non Andra Mariaren debozioko den Maiatz hilerako otoitzak, kantak eta abarrekoak biltzen diren, egun ere, oraino, zenbait to-kitan erabilia eta apaizek aho batez goraldia.

Hortaz aparte baditu Lemoarrak artikulu zein idatzi franko sasoiko argitarapenetan sakabanatuak, beti halare, iparra horixe izanik, erlijioaren zabalkundea eta indartzea.

3.3) Eguzkitza, gai sozialetan idazlea: «Gizarte-auzia»

Hauxe da, izan ere, «Gizarte-auzia» liburuan Eguzkitzak gerra au-rrean euskal arlora erakarri zuen gaia. 1935. urtean argitaratua, «Ekin» al-dizkarian ezagutzera eman ziren artikulu batzuren bilduma dugu «Gizarte-auzia», bertan orduko Eliza Katolikoak gizarte auziari edo arazo sozialei buruz zeuzkan ideia eta pentsamoldeak bildu zituela Eguzkitzak.

«Gizarte-auzia» liburuan alabaina, aldarte batzu bereiz daitezke, li-buru honen ikerketa egiterakoan bederen. Guk honela izendatu ditugu:

3.3.1) Sasoian sasoikoak

3.3.2) Helburuak, edukina, ideologia

3.3.3) Euskaraz lehena

3.3.1) Sasoian sasoikoak

Espainiako Bigarren Errepublikaren etorrerak (1931) areagotu egin zuen, ezpairik gabe, antzinetik zetorren hari mataza. XIX. gizaldian lan-

gileen interesak defendatzeko sortutako sozialismoa eta harik geroko komunismoari aurre egitekotan, Eliza Katolikoak, batipat Leon XIII. Aita Santuaren «Rerum Novarum» enziklikaren bitartez, arazo sozialei arpegia eman nahi zien, bere «Doktrina soziala» formulazioarekin. Doktrina honetan batzen ziren, liberalismoarekiko kritikarekin batera, sozialismo, komunismo, anarkismo eta haien mendeko sindikalismoarekiko arbuia eta ukapenik gogorrena.

Elizak, erdibidean kokatua, jabetasun pribaturen onarpena eta ondusunen betebeharrak soziala defendatzen zituen, langileek enpresen etekineta parte hartzeko eskubidearekin batera.

Marko sozial honetan ageriko den euskal abertzaletasunak, bere hasieratik hartu beharko du kontutuan prolematika hau eta bereziki sindikalismo abertzalearen sorreran (Solidaridad de Obreros Vascos-1919), honek Elizaren doktrina soziala ikurrintzat hartuko bait du.

Aurrekin hauek edukirik, Eguzkitzak bere artikulua idazterakoan, Errepublikaren lehen urteetan, oso gertu dauka sindikalismo abertzale hau eta baita ere AVASC delako erakundea, 1932. urtean eratua («Agrupación Vasca de Acción Social Cristiana») non geroko abade «solidario»ek (Policarpo de Larrañaga, Alberto Onaindia, Aitzol, Azpiazu) bere lehen eginkizunak beteko dituzten.

Kristau demokraziaren ideiek, sindikalismo katolikoak eta abertzaletasunak dute hemen bilgunea eta bertan jardungo du Eguzkitzak ere. Horrelatsu mintzatzen bait zaigu bere liburuaren hitzaurrean Lemoarra eta horrelakoak bait dira ere liburu honen edukina eta helburua, ideia horien zabalkundea eta azalpena.

Eguzkitzak, beraz, giro honetan ematen du bere emaitza eta ingurugiro horren zorduna dela ezin aitziz. Baina giro horren barne, halare, bere berriztapenak ere ekartzen ditu.

3.3.2) Helburuak, edukina, ideologia

Eguzkitzaren helburua bere artikuluetan eta liburuan agerian dago eta berak ere horrela dirausku idazti honen hasieran:

«Gure lugin, arrantzale ta alogereko asko be gizartekeriaren sarietan jausteko arriskuan; bear bada beste inoz baño arriskuan andiangoan egozala-ta, andi-andiak al bait lasterren azaltzeko asmuz eldu neutsan arlo oni» («Gizarte-auzia», 5. orr.)

Eguzkitza, horregatik, aurrean aipaturiko ideologiaren ildotik doakigu (sozial-kristautasuna), langile euskaldunak sozialismo moeta guztien atzaparretatik aldendu nahian, horretarako Elizak eskaintzen duen doktrina soziala erakutsiz eta berari eutsiz. Horretara dago zuzenduta liburu eta horregaitik da bikoitza liburu honen izaera; batetik sozialismo, komunismo eta sindikalismoaren kontrakoa eta bestetik jazokun hauen aurrean Elizak ekarri dituen iretenbideen azaltzailea.

Ahaztu gabe ere, bere eginkizunean berak aintzakotzat hartzen dituela mezu hartzaileak: euskal langileak, nagusiki baserritarrak eta beti ere euskal soluzio baten bila dabilela, argiro nabaritzen denez:

«Gaur indartsuena dan Eusko-Langile Batza, beronen bazkideak geituz, dan baño be sendoagoa egitea, gauzarik egoki ta zurrena orixe dala nik uste» («Gizarte-auzia», 194. orr.)

Gauzak honela, helburu horretarako Eguzkitzak darabilen edukina honela bana dezakegu:

1) Hasierako lehen sei kapitulueta Eguzkitzak sozialismoaren hasierak aztertzen ditu historian zehar. Kreta eta Esparta herrien esperimentuak edo zenbait pertsonaia kristauen utopismoak sozialismoarekin zerikusirik ez dutela baieztatu eta gero, hau noizkoa den eta bere indarra nondik etorria den zehazten ditu.

2) Gerogarrenean, VII-XII. kapitulueta Marx-en irakaspenak dihar-
du «gizartekeria» edo sozialismoa zer den eta zer ez den azaldu eta gero, bere moetak eta batez ere Karl Marx-en doktrina erakutsi arte.

3) Ez du etsitzen halare horretan, eta Marxengandik etorritako irakaspenetatik ateratako hainbat jarraitzaile ere miatzen ditu, hala nola Lassalle eta Lehen, Bigarren eta Hirugarren Internazionalak, sozialdemokrazia («gizartekeri gazea» diotsa berak) sindikalismoa eta abar hauek erlijioaz duten zeresana erakusten duela Eguzkitzak jarraian.

4) Liburuaren laugarren zatia (XVIII-XXII. kapituluak), zernahi gisaz, sozialismo, komunismo eta sindikalismoek dakartzaten bere ustezko ondorio txarrak alderatzen ditu Lemoarrak, batez ere gizonaren eskubideekiko kezka grinatsu baten aldetik.

5) Segidan Eguzkitza hain kutunak dituen baserritarrei mintzo zaie. XXIII-XXVI. kapitulueta sozialismoaren sarietatik baserritarrak askatu nahi ditu, bere arriskuetatik begiratzen saiatzen da.

6) Azkenez, XXVII-XXXV. kapituluetak tartean Eguzkitzak Eliza Katolikoaren doktrina soziala ekartzen du bere orrialdeetara. Malinasko Kode sozialaren bidetik, gerra aurreko kristau demokrazian kokatua, sozialismoaren aurka langile euskaldunek jokatu behar duten jokabidez ari da. Lantegi txiki eta ertainen, kooperatiben eta jabetza txikiko sektorearen perspektibatik ikertua, horixe bai, Eguzkitzaren irtenbideak, erdibidetik doaz, liberalismo bezainbeste sozialismoaren kontra ere.

Bukatzen du honela, euskal langilei dei eginez, sindikatu katolikoe- tan alkartzeko eskaerarekin, batasun hori lortzea beharrezkoa bait da lan- gileen alde aritzeko:

«Langile-Batz katolikuok, sozialista eta ugetistakin burruka ibili bear dabe-ta, dagozan lez banaduta baño irurok asmu ta txede batez al- kartuta obeto legokez» («Gizarte-auzia» 193. orr.)

Filosofi oso bat, beraz, arrunta egina eta xedetua, euskaraz emana, erudizioz josia eta aldi berean mezu hartzaile berezi bati zuzendua, helbu- ru propagandista baten menpean; laburbilduz, garai baten ispilu zehatza.

3.3.3) Euskaraz lehena

Izan ere, Eguzkitzak euskaraz erabiltzen ditu bere gaiak. Ordurarte umezurtza zen euskara gai sozial teorikoetan, Eguzkitzaren luman, lan- gogotsu horren tresna bihurtzen da. Horra hor liburu honen beste berezi- tasuna eta azpimarratzekoa, gainera.

Honek noski baditu bere ondorioak:

–Eguzkitzak hainbat kontzeptu tekniko euskaraz emateko duen zail- tasuna. Aurretik ez du inolako terminologiarik edo erizpide teknikorik. Horrexegaitik bere irizpideari jarraituz hiztegi gintzan bederen, ahal duen neurrian euskarazko berba zaharrak biltzen ditu lehenengoz eta gero sa- soian sasoiko neologismoak ere erabiltzen ditu beti (edo ia beti) forma xe- hea alboan dutela. Honela antz edo itxura zaharkitua idoro arren zenbait pasarteetan, bere diskurtsua ez da mozten, zerbait zailtzen bada ere. Go- goratu esaterako hasieratik onartzen duen «domu=kapitala» edo eta «en- derritartekoa=nazioartekoa» «garatz=negozioa», batzu berba zaharrak, besteak neologismoak.

–Eguzkitzak, aurreritzi ideologiko batek eragina eta bultzatua, sozia- lismo, liberalismo, komunismo, materialismo eta sindikalismoa euskaraz- tzeke orduan «Keri» atzizkia erabiltzen du, berez honek duen esanahi negatiboa hartzeko. Nolabait esateko, euskararen garbitasunez eta kontra-

ko garrez joa, euskaraz arruntak diren «gizarte» «alkargo» edo eta «bal- tsa» hitzei «Keri» atzizkia erantsiz, ordaintzen ditu kontzeptu hauek. Ho- netan, Eguzkitzak, gure egungo begien aurrean erabat arbuigarria den zertxobait egiten badu ere, sasoiko pentsakerari jarraitzen dio. Honek, be- rarekiko inolako desenkusarik izan gabe, ez du suposatzen, zio sotil hori dela eta bere obra osoa deskalkifikatzeko tenorea.

–Eguzkitzak, nolana ere, ez du bere hasierako lanen euskara erabil- tzen «Gizarte-auzia»n. Garatzen den ber, bere hizkuntza ere aldatuz doa. Bizkaieraz idazten badu ere, bere morfojoskeraren zenbait puntu dudamu- datan gelditzen dira. Horrela kasurako, soziati boan «gaz» singularrean eta «kin» pluralean erabiltzen du, Lekeitiko usadioari jarraituz.

Bestelakoetan bere euskara Arratia aldekoa dela punturik nabar- menetan argi dago. Azpimarkatzekoak ere, «Eroan» aditza, bizkaiera za- harraren antzera aditz laguntzaile modura erabiltzeko joera nabaria edo eta «irato badadi» eta horrelako ahalezko aditz bereziak sartzeko eraspe- na, baldintasuna eta aditzaren aspektua zehaztu nahian, euskal klasikoen ezagutzaile on bati dagokionez.

–Lehen esan denez ere, Eguzkitzak bere irakurleak kontutan hartzen ditu eta mezua hartzerakoan, irakurle horiei hurbilen dagozkien idazan- kera batzu erabiltzen ditu. Anaforikoak eta antzekoak ahanzten baditu ere, aberatsa da esamoldeetan: «otoz-otoan», «aiko-maikoetan» eta abar; zen- bait kasutan halako baliabide herrikoiak sartzten ditu hala nola «Patakon» lapur ospetsua aipatzen duenean edo eta txakurraren eta otsoaren hikazko elkarrizketan (XX. Kapitulu).

–Laburbilduz, Eguzkitzak berebiziko ahalegina egiten du, zelanbait, gai astun bat hartzaile berezi batzurengana eramateko prosa erreztu bate- tan, mezuaren maila eta hartzailearen gaitasuna orekatuz. Agian eredu bat izan zitekeena, Erkiagak esan duenez, gerokoan gertatu zena gertatu ez balitz:

«Prosa ariña ta erreza da orkoa, gero eta errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdalitzak be, iñoiz baiño ugariago. Orrelakoxea izan zeite- kean arrezkero aren idaztemodua, jazo zana jazo izan ez balitz. Gerrateak euskal-literaturan egin euskun urratualdi negargarria, besteak beste» («Euskera», 1975, 229. orr.)

Eguzkitzaren ahalegin honen errekatik dator, etorri ere, liburu honek euskarazko saiakerako suposatu zuen urratsa, soziologi gaiak eta kristau irakaspenak lehenengoz euskaraz eman zirelarik. Eta kritikak ere eduki

baditu, bere idazkeraren zaporarik eza dela medio, horrek ez du gutxiesten bere balioa, ez aurrekin gisa ez eta zenbait irtenbideren erakusle modura.

4) ONDORIOAK

Eguzkitzaren lana irakurtzerakoan, batez ere «Gizarte-auzia» hone-tan, honelako hauek nabari ditzakegu:

–Eguzkitza, euskarari dagokionez, zenbait kasutan eta hiztegiari ez eze, joskerari buruz ere, «garbizale» jokatu arren, bere ahalak eta lerrak egiten ditu saiakera edu batez, euskaraz gai ez arruntak emateko. Bere erlijio liburuetatik aldentuta hizkuntzaz, Eguzkitza bide baten bila dabil, euskarari hizlaurko saiakerari bere arnasa eramaten dihardu.

–Eguzkitzak, aurreritzi jakin batez, gehiegikerietan jausten bada ere, bestelakoak ere baditu eta berak proposaturiko zenbait irtenbide linguisti-koak ere aintzakotzat har zitezkeela dirudi, harez gero eta gerrak ekarri zuen etenaren ondorioz jarraitasunik ez badute izan ere.

–Iritziak iritzi, egungo irakurle ez irakurzalearentzat askotan asper-garri badirudi ere, «Gizarte-auzia» liburua alboraezina egin da euskal li-teraturazko saiakera kontutan, garai bateko islada bezala. Hiztegi ia guztietan aipatua eta erabilia bere originaltasunagatik, gaiaz zein hizkun-tzaz, bere autoreak zuen idazjasarekin batera, uste dugu liburu jakingarria dela egungo euskal irakurlearentzat, uste osoz eta betez.

Amaitzeko eta urte luzeetan bere kide izan (eta zenbait gertaeretan kontrakarrekia ere, zergaitik ez) Azkue zenak bere heriotzea gertatu ze-nean esandakoa, Erkiagaren hitzetan, gogoratu besterik ez zaigu gelditzen, Eguzkitzaren ohorez:

«Gizon aundi bat il da. Eguzkitza il da.» (Erkiaga, «Euskera», 1975, 235. orr.)

GURE ARGITARAPENA

Ez dugu bestelako asmorik izan, gure «ahalak eta lerrak» buru-tzerakoan, Eguzkitza zenaren ortografia eta puntuazio zeinu batzu egun-go irakurlearentzat egokitzea baino, bere irakurketa erreztekotan. Bestelakoetan, bere hortan utzi da testua, ordutik honako ulergarritasuna ulergaitasuna bihurtu ez delakoan. Hona hemen ikupentxoak:

1) Aditzaren aldetik

a) Lemoarrak beti erabiltzen du «BA» bereiztua; guk, ordea, egungo erara bildu egin dugu aditz formarekin. Gauza bera egin dugu «bai'liran» eta horrelako formetan: «bailiran» moldea erabiliz.

b) Zenbait kasutan, aldiz, ahalezko baldintzak erabiltzerakoan erdi-ko puntuaz erabiltzen du: eroan ba.dagi. Guk beti bildu egin dugu aditz formarekin.

c) «Ete» «ei» «La-ta» «-ta» beti erabiltzen ditu nolabaiteko loturaz. Guk beti bereiztu egin ditugu.

2) Ortografiaren aldetik

«Eri»-k erabiltzen duen ortografia bere sasoikoa da. Dena dela ba-karrik eguneratu ditugu:

–«r» = rr

–«l» = ll

–«z» = s zenbait kasutan, adibidez:

azke = aske

akatz = akats

azkatasuna = askatasuna

–«z» = x zenbait kasutan adibidez:

pizka = pixka

–«s» = z zenbait kasutan adibidez:

Maister = Maizter

Eskontza = Ezkontza

–Galdetzaille eta exklamatiboen kasuetan, beren lehen zeinu kendu egin dugu, egunotako usadioaren eredura. Esaldiaren barruan halare ko-maz ordezkatu ditugu.

3) Oharrak: Eguzkitzak berak jarritako oharrak [(1)*]-ekin ipini di-tugu, guk egindakoetatik bereizteko eta beren barnean «e.o.» adierazpena kokatu dugu, argitzaile izango delakoan.

Andres Urrutia

GIZARTE - AUZIA

Ugazaba ta langile arteko gora-berak

Egilea

EGUZKITZA'TAR JON

EKIN asteroko izparringian agertu ziran
idaz-lan oneik

OHARRA

EKIN' en 46' gn. zenbakian auxe idatzi neban: «Gai au zeatz eta oso-ro azaltzeko asmuz enintzan asi. Asmu orregaz EKIN' en idazten beste bazkide bat asi zala ba nekian. Zeaztasunak orrentzat itxita, gauzarik jakingarri ta bearrenak lenbailen adierazo bear zirala neritxon: origatitk asi nintzan. Gure lugin, arrantzale ta alogereko asko be gizartekeriaren sarietan jausteko arriskuan, bear bada, beste iñoz baño arrisku andiangoan egozala ta, andi-andiak al bait lasterren azaltzeko asmuz eldu neutsan arlo oni. Gero gauzak aldatu egin dira ta, lengo asmuak be beste elburu batera zuzendu bear. Arlo au zeatz lantzeko asmuz EKIN' en idazten asi zan bazkide zintzo ta langile bizkorra, gitxien uste genduanean, Jaungoikoak Beragana eroan dausku (G.B.), au dala ta, esandakoak eta esan barik itxi dodazanak, pixka bat biribildu nai neukez».

Arlo osoa sailean eroan baneu, orain atalok alkarrekin errezago josi al izango nebazan: ori egin enebalako, irakurle orrek utsuneak sarritxu ta birritan esandako gauzak be bein baño sarriago idoroko dozuz. Ori akats anditxua zala ta, EKIN' en agertu ziran lantxuok liburu baten—guztiak ere batera— argitaratzeko nagi ta muker nengoan; baño bazkide batzuk zirika ibili yataz, eta norbere eretxia itxirik, noizean bein iñonena egitea be bidezko gauzea dalako, EKIN' en jauzika agertu ziran atalok, al bes-tean alkarrekin josi dodaz, irakurle orrek eskuetan dozun liburutxu au egi-teko.

Jaungoikoa lagun bekigu orain eta gero.

I Gizartekeria, baltsakeria ta abar

Gizaseme asko buru-ariñak gara. Gauzea zer eta zelan dan jakin barrik, barriketan ekiteko ekandu txarra daukagu. Kristiñau-Ikasbideko liburutxua be eztakien babalasto askok, erlejiñoko gauzetan euren buruak maixu andi egiten dabez; Salomon'ek baño be geyago dakiela uste izaten dabe, ta guzur ta abar barriketa utsean diardue. Iñor diran tentelkeriak esaten dabez: ori ta guzti be, gizona okerrerako makur dagoalako edo, askok siñestu egiten dautse.

Barrena ardaoz berotu ezkeru, sozialismoa zer dan eztakien asko be, *Viva Rusia!* deadarrez ibiltzen dira. Gure baserritarrak egia egitzat, guzura guzurtzat eta zorakeria zorakeritzat euki dagien, sozialismoa zer dan eta nora garoazan albait laburren azalduko dot.

Benetako sozialista ta katoliku batera iñor be ezin izan daitekela esan dausku Aita Santuak. Ori zegaitik dan aitu edo ulertu al izateko, sozialismoa zen dan jakin bear dogu.

Eta lenengo ta bein, sozialismo euskeraz zelan esan ete geike? (1). Nire eretxiz, sozialismoari euskeraz «gizartekeria» eretxi gegikeo (2). Izan be, erderazko «sociedad» euskeraz «gizartea» da. Sozialistak ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe gizartea egin nai dabe: gizonok geure gauzetan daukagun jabetasuna, bakotxari kendu ta gizarteari emon nai dautse: gizon bakotxa kapustu (3) ta gizartea aberastu nai ei dabe: baña ori egitea —geroago esango dogunez— gizon bakotxentzat ezeze gizartearentzat be kaltegarri izango litzake. Beste aldetik edozelako

(1) Geike: Geinke, genezake.

(2) Gegikeo: Geinkio, genezaioke.

(3) Kapustu: Agortu, akitu.

egite txar eta kaltegarriak *keri* atzizkiak adierazten doguz euskaldunok: nagikeri, ordikeri, ustelkeri ta abar: beraz sozialismoak lurreko ondasun guztien jabe gizartea egin nai daualako eta ori gizartean bizi garean gizonentzat kaltegarri izango litzakelako, sozialismoari euskeraz «gizar-tekeria» eretxi gegikeo.

Ogasun ekarkor guztien jabe, lurralde bakotxean, bertoko gizabatza egin nai leukie *komunistak*. Oraingo estaduok baño gizabatza txikiagoetan bazkide bakotxak guztientzat eta guztiak bakotxarentzat lan egiñaz, gizaseme oro baltsan (4) bizitea, gauzarik zuzen eta bidezkoentzat dauke. Onein eretxiz baltsan lan egitera ta baltsan bizitera jo bear da, gizartera zoriona ekarteko: ori dala ta, *komunismoa* euskeraz, baltsakeri izenaz adierazo geike.

Gizartekeri ta baltsakeriak bide bat eta bardiña eztao; baña baltsakeri ta gizartekeri osoa, euren asmu ta elburuetan alkarren antzekoak dira. Estadu andiak nai leukiez *sozialistak*; diñoenez, gizabatza txikiagoak, *komunistak*; baña orretan be izanez baño izen utsez alkargandik urrunago dagozala deritxat, Errusi'ko *komunistak* edonongo *sozialistak* baizen nauskeri ta estadu andi-zale agertu dira ta.

Gizartekeria gauza on eta txalogarriztat dauken askok zer dan eta no-
ra garoakezan (5) ba ete dakie? Daukanari kendu ta eztaukanari emotea, gizartekeri edo sozialismoa orixe dala uste dabe askok; baña gizartekeria ori baño besterik da ta, eztago olako masti-atxurrik.

Patakon, aldi bateko lapur ospetsuak be, eukanari kendu ta ez eukanari emoten baekiela bein baño sarriago entzun dogu: Patakon lapur eta lapurren buru izan zala bai; baña sozialisten buru izan zanik egundo ezto-
gu entzun. Eta izan be, daukanai, badaukala ta beste barik, berea kentzea, Patakon'en egunetan eta arrezkero be, lapurretea izan da beti.

Sozialistak, euren buruak barik, aurrekoak daukez lapurtzat. «Ogasun-
en jabe orain diran ugazaba ta jaunok, lotsa gitxiko lapurrak ei dira ta, ogasunok orrei kenduaz, benetako jabeari, gizarteari, biurtu bear ei yakoz». Ugazaben artean lapurrik izan eztanik eneuke esango; baña guztiak lapur izan dirala esateko be zentzun eta lotsa gitxi bear dira.

(4) Baltsan: Erkidean, komunitatean.

(5) Garoakezan: Eroan gaikazan, eraman gaitzakeen.

II

Beñolako Kreta eta Esparta

*Baltsakeria orain arte egundo gizartean ezagutu eztan
asmakizun barriren bat ete da?*

Baltsakeria edo komunismoa orratzetik arako jantzia, labatik arako opila dala uste dabe babalasto batzuk; baña eguzkiaren azpian gauza oso-
ro barririk, aurrerago iñoz ezagutu ez danik, ba ete dago gero? Olako zer-
bait balego be, baltsakeria ez da olakoa, antxiñako gauza zarra baño. Izan
be, antxiña ta beñola Kreta-ugarteko biztanleak baltsan bizi ei ziran. txar-
to ala ondo, ori ez dakigu; baña gaur eguneko baltsazale (6) ameslariok us-
te daben baizen bizikera zoragarria izan balitz, luzarago iraungo ebalá
deritxat.

Antxiñako Esparta'n be baltsakeria izan zan ainbat urtean nagusi. Li-
kurgo'ren oñarri-legeak ogeta emeretzi mila ataletan zatitu ebazan ango
lurrak, biztanle aske guztiak ondasunetan bardintzeko asmuz. Lur-sail guz-
tien jabe estadia zan: sail bakotxa erabilanak, orren gozamina baño bes-
te eskubiderik ez eukan. *Hotak* eritxoan jopuak, barriz, lurrak lantzen ekin
arren, ez eukan gozamenik be. Gixaxo andi aek, ezeren jabe ez izateko,
euren buruen jabe be ez ziran, eta gizon askeen baltsan sartzeko eskubide-
rik be ez eukan. Orain be gizartean baltsakeria nausituko balitz, jopu edo
erdijopu askok izan bearko leukie.

Espartarren bardintasuna osoagoa izan eiten, jai-egunez gañera ilean
birritan gitxienez, guztiak batera ta janari bardiñak jan eroezan (7); zuku

(6) Baltsazale: Komunista.

(7) Jan eroezan: Jaten eben, jaten zuten («Eroan» aditza, laguntzaile gisa erabilia,
egunerokotasuna adierazteko; obra osoan zehar agertzen da, bizkaieraren
tradizio bati eutsiz). Ikus Sarrera.

baltza ta beste zerbait. Mizkeririk iñoz be ez. Gizaseme ta emakume guztiei aziera ta eziera bardiña emoten eutsen erri aretako zuzentzaileak: gorputza indartu ta sendoagotzeko berebiziko kirol eta ekiñaldiak, gogo lantzeko ain bearra dan azi-ikaskuntza barik.

Bere erria gudari bikaña egitea izan zan Likurgo'ren asmua. Erkin (8) eta makal jayoten ziran umeak, estaduari kaltea ekartzeko baño etzirala ta, il egiten ebezan erruki gitxigaz. Bakotxaren eskubideak estaduak irun-tsi ebazan Esparta'n. Irurogei urteraño gudari izaten ziran espartarrak, eta gudarien jaurbide (9) gogorpean bizi ziran gizon eta emakume guztiak. Gudari anzo bizi zan Esparta zer eta zelakoa zan Pelentan'ek diño labur eta ederto: *zuku baltza janaz aize garbitan gudaletzeko bizikerea egiten eban erria*, orixe zan aldi bateko Esparta. Gizadiaren aurrerapenerako guztiz gitxi egin eban beñolako Espartak; oraingo baltsakeriak geyago egin-go leukenik ez uste.

(8) Erkin: Makal, ahul.

(9) Jaurbide: Gobierno.

III Gizartekeria ta Ebangelioa

Baltsakeri, gizartekeri ta olakorik iñoz irakatsi nai ontzat emon ete eban gure Jaunak?

Jaunak baltsakeria zuzenetsi edo ontzat emon ebala, lotsa gitxiko ameslari batzuk ori be esan dabe; baña ori guxur biribila da. Txiroen alde gauza eder eta onuratsu asko irakatsi ebazan, lander edo pobreai barri ona emotera etorri zan Jaunak: bere jarraitzaile guztiok alkar maite izan bear dogula; eskesari edo limosna egitea gauza osasungarria dala: daukanak ez-taukanari ta bearrizanean dagoanari al eta bear besteko laguntza emon bear dautsala; lurreko aberaskiak, zerua irabazteko, geyenez, eragozpenak dirala: guztiz eta osoro ornidua izan nai daunak, bere ondasunak saldu, txi-roai emon eta zeru bidean berari jarraitu bear dautsola ta olakoak, bai, irakatsi ebazan gura Jaunak; baña baltsakeri, gizartekeri ta onakorik, egundo be ez.

Gizonen gogo ta biotzak lurreko ondasunetatik askatu nai ebazan Jaunak, goiko ta betiko ondasunetara gar andiangoaz jo egien: baltsazaleak, ostera, lurreko ondasunok eskuratzea baño beste ames eta asmurik eztauke. Ondasunai buruz, artzea baño emotea zoriontsuago zala esan eban Jaunak: baltsazaleak iñorena artzeko beti dagoz prest; eurenik emoten ondiño eztabe ikasi, eta Jaunaren irakaspenak euren alde dagozala esateko, benetan lotsa gitxi bear da. Jaunaren irakaspenak aberats zeken (10) eta zikoitz (11), biotza lurreko ondasunetan josita daukenen aurka bai, orrein aurka dira; baña gizartekeri nai baltsakeriaren alde ezelan be ez.

(10) Zeken: Diruzale, lukurrero.

(11) Zikoitz: Diruzale, lukurrero.

Lenengo kistar edo kristiñauak baltsakoyak izan ete ziran?

«Apostoluen egintzak» deritxon liburuaren IV atzalburuan auxe irakurten dogu: Siñestedun guztien biotza bat eta berbera zan, gogoa be bardin: eukanetik ezer berea zanik iñok ez eban uste: bestera, gauza guztiak ziran guztientzat [32]. Guztien ondasunak guztientzat zireala, ori diñoalako, lenengo kistar (12) zintzo aek baltsakerian bizi zirala esan daroe oraingo baltsazale edo komunista batzuk; baña aen baltsako bizitzeak geroko baltsakeri onen antz gitxi daukala jakiteko, burua ausi bearrik eztago.

Lenengo kistarren artean ondasunak guztientzat zelan eta zegaitik ziran, liburu orrek berorrek adierazten dauku, onelan jarraituaz: Aen artean lander edo beartsurik ez egoan iñor be, bazter nai etxeen jabe ziran guztiak, ondasunok saldurik, orrein ordaña ekarri ta apostoluen ofietan ipinten ebelako ta lander bakotxari bear eban beste, ortik emoten yakolako [34-35]. Jaunak esan eban: «Osoro ornidua izan nai badozu, zoaz daukazuzan ondasunak salduta, txiroai emoyezuz eta ondasuntzia (13) zeruan eukiko dozu. Zatoz eta jarraitu nagizu.» Jaunaren esan au osoro betetearren; txiro bizi ta txiro il zan Jaunaren jarrai joan eta zeruan ondasun andiangoak eskuratzearren, lurreko ondasunen jabe ziran askok, ondasunok saldu ta orrein ordaña apostoluei emon eutsen, oneik txiroen artean banandu egien. Ori biotza lurreko ondasunetatik askatu ta zerukoetara jasotea da; ori maitetasun andi ta beroaren egiñena da.

Eleizearen lenengo egunetako kistarrak, zintzo ta ornidua ziralako, ori aurrez egin eben; baña guztiei eskatu ezin leikeoen gauzea da ta, biotzetan gorrotoa baño besterik eztauken oraingo baltsazaleak, lotsarik ba-leukie, arpegia lotsaz gorritu barik aitatu be ezin leikie olakorik.

Ondasunak saldu ta orrein ordaña txiroen artean banatze ori, bearrezkoa ete zan?

Jaunari urragotik (14) jarraitzearen, lurreko ondasunak txiroen artean banatze ori aolku edo konseju ona bai; baña bearrezkoa etzan orduan be. Orain eztan lez, orduan be bearrezkoa etzala, apostoluen egintzak dakartzan liburu orrek, urrengo atzalburuan (15) argiro adierazten dauku.

(12) Kistar: Kristau.

(13) Ondasuntzia: Tesoro.

(14) Urragotik: Hurbiletik.

(15) Atzalburuan: Atalburuan, kapitulan.

Anani eritxon batek, bere bazterra saldu ta emazteak ekiala, aren ordañetik zerbait beretzat gorderik, enparaua (16) ekarri ta apostoluen ofietan ipiñi eban. Simon Kepa'k esan eutsan: Anani, zeure biotz orren jabe egiten, zer dala ta itxi dautsazu Satanas'i, Jaungoikoari guzurra sakatu nairik bazterren ordañetik zati bat zeuretzat gorde dozu ta? Bazter ori zeukanean, zeurea ez ete zan? Saldu ta gero be, orren ordañaren eskubidea ez ete zeukan? Zegaitik bilbatu (17) dozu, ba, iruzur ori zeure biotzean? Eztautsezu gizonai guzurra esan, Jaungoikoari baño [V-I.4]. Anani'k nai bazterra nai onen ordaña bereak baebazan eta orrein jabe irauteko eskubidea baekuan, ondasunak txiroen artean banatzea orduan be aolkua bai; baña egipide bearrezkoa etzala argi dago.

Geroago izan ete da kistarren artean iñor bere burua baltsakeriaren alde agertu dauanik?

Baltsakeriaren alde siñausle (18) edo erejeak bai, noz edo bein agertu dira; baña Eleizearen seme zintzorik, bein bez.

Beste eretxi oker askoren artean lurreko ondasunak baltsan euki ta erabilteko egiñak zirala irakatsi eben *albitar* eta birruguzleak (19) deritxoegun siñausleak. Ondasunetzako bardintza ori gizartean indarrez sartu bear zala ta, astakeri ta gaiztakeri asko egin ebezan batzuk eta besteak; baña gizarteari kalte egitea baño besterik ez eben lortu ta kalte orrein gomuta iguingarri baño besterik ez dabe itxi.

Moro'tar Toma'ren Utopi edo Ames (1516), Kanpanila'ren Eguzki-Uria (1637) Morely'ren Izate-Araudia (1755) deritxoan idaztiak, baltsakeria irakasteko baño ames bitxiz gizonai jolasbidea emoteko egiñak obeto dirudie. Ameslariok alde batera itxi ezker, gaur zabal dabilzan gizartekeri ta baltsakeria oraintsuko asmakizunak dira.

(16) Enparaua: Gainerakoa.

(17) Bilbatu: asmatu.

(18) Siñausle: Hereje.

(19) Birruguzleak: Rebautizadores (Ugutza: Bautizo). Herejia moeta bati buruz dihardu hemen Eguzkitzak.

IV

Gizartekeri ta baltsakeria noiztikoak ete dira?

Gizon gitxi batzuen gogo-jolas eta txakur-amesak alde batera itxi ezker, gizartekeria oraintsuko asmakizuna dala esan dogu. Izan be olantxe da. Oraingo gizartekeria ez ei da amesa beñolakoa lez, benetako jakintza barria baño.

Egia esan, benetako jakintza baño guzur-jakintza obeto dirudi; baño edozelan be, gizartekeriari jakintza usaindun oñarririk igaro dan gizaldiarate iñok ez eutsan ipiñita, jakintza dala diñoen gizartekeri au XIX gizaaldiko landarea dogu.

Gaur zabal dabilzan gizartekeri, baltsakeri ta abar, gaberik goizera, geyagoko barik etorri ete dira?

Gizarteko auzi andiak otoz-otoan, zeri ez dagokiola bein be ez tira etorri, astiro-astiro eta zerbaitek edo norbaitek orretarako bidea emonaz baño. Mila zazpireun eta larogeta bederatzigarren urtean Pantze edo Prantzia'ko matxiñada andia geyagoko barik, otoz-otoan eta bapatean etorri zani egundo iñok eztau esan, eta norbaitek olakorik esango baleu, senean dagoan gizonak ez leuskio siñestuko. Zugatz andiak erro andiak euki oi ditu; gizarteko gora-bera andiak be, erroak sakon eta urrun. Prantzia'ko matxiñadea ango errege Koldobika XIV eta onen birloba (20) Koldobika XV'k egindako uts, oker eta zorakeriak, oneik ekarri eben batez be.

Egiz, matxiñada aren aziak Voltaire eta onen lagunak erein ebezan prantzitarren gogo-biotzetan; baño ereindako aziok ain laster eta ain indar-

(20) Birloba: Biloba.

tsu etziran erne ta jagiko, aitaturiko erregeok orretarako biderik emon ez-palebe. Voltaire eta lagunei azi txarrok ereiten itxiaz gañera, errege biok Pantze (21) erria zorrez josi ta ondatu eben, Koldobika XIV bataz edo besteaz gudan, gerran ibili zan beti; onen birlobea gudan etzan ibili; baña zantarkeri ta ustelkerietan begietaraño sartu ta ustelkeri orren atsa alde guztietara zabaldu bai.

Errege biok Prantzia zor eta lorpean ipiñi eben. Gero zorrok ordaindu ta lorreatik urten al izateko, zerga edo petxu (22) andiak ezarri bear: petxuak erriaren lepora jausi; ori zala ta askoren odola irakiten asi, erria aserratu ta matxiñadea sortu. Matxiñadea ain urrin joango zanik lenengoan iñok ez eban uste; baña bein asi ezkeru, nok gelditu? Odola ibaika ixuri eban eta Koldobika XVI'ari burua moztu eutsan. Egia esateko, onek ezeukan erru andirik; baña sarri jazo oi dan lez, ardien erruak bildotsak ordaindu bear.

(21) Pantze: Frantzia.

(22) Petxu: Zerga, tributu.

V

Gizartekeri ta baltsakeria, zek ekarri ete ditu?

Onyuen (23) antzera, berez eta gaberik goizera erne ta jayo diranik ezelan be ezin uste izan geike: zegaitik edo agaitik etorri dira: zek edo zek bidea zabaldu dautse. Izan be, gizarteak gure erlejiñoko egi andiak zokondora jaurti ebazan; atsegin-zalekeria nausiturik, gizartea oitura ta ekandu txarrez biziten asi zan; goiko ta betiko ondasunetzaz aitzuta, gizonak lur-reko ondasunak baño besterik ez eben aintzat artu ta gizartekeri ta baltsakeriari orrelan bidea idigi ta zabaldu yaken.

Ori egia da; baña gizartekeri ta baltsakeria berariz eta batez be ondasunetzazko bakoizkeriak (erderaz *individualismo económico* deritxoena), onexek ekarri ditu.

Eta ori, zer ete da? Gizarteko legerik auzi ezik, baktotxak bere ondasunak geitu ta ugaritzeko, eskubide osoa; baktotxak orretarako al dauana egiteko eskubidea daukala ontzat emon, esan eta irakastea. Eta eskubide ori artu ta erabili dagianak, aurrekoari porrot eragin badagio (24,) kale gorrian itxi badagi, orduan zer? Or konpon esan da kitu. Eskubide orregaz gitxi batzuk ondo ta enparauak txarto balebiltz, zer? Gizarteko agintariak onako arazoetan eskurik iñoz be ez ei dabe sartu bear, baktotxari al dauana egiten itxi baño. «Egiten itxi, igaroten itxi», auzia berez ebatzi daiten.

Ondasunetzazko bakoizkeria orixe da. Ainbeste urtez gizartean nagusi izan dan bakoizkeri edo liberalkeri ori, Pantzeko matxiñadearen semea da, ta ondoren asko izan ditu, txarrak, onak baño geyago.

Ondasunetzazko bakoizkeri edo liberalkeri onen ondoren txarrok, zeintzuk izan ete dira?

(23) Onyu: Ondu, ontto.

(24) Eragin badagio: Eragin badeutso, eragin badio. Eguzkitzak obra osoan zehar erabilitako ahalezko baldintzaren adizkia da hau, baldintasun hori azaltzeko. Ikus sarrera.

Lenengo ondorena, auxe: Antxiñako langile batzak (gremioak eritxoentak) ausi ta ankaz gora bota.

Zeregin eta ogibide bakotxeko langileak, alkarri lagundu ta euren eskubideak obeto zaintzeko, antxiña be batzandu ta alkartu egiten ziran. Alkargo oneik Pantze'n 1791'garren urteko Epaila'ren 17'an emondako legeak ausi ta ezereztu ebazan. Langileak olakorik ez eben nai. Paris'en bakarrik milaka batu ziran, ogibide edo zeregin bakotxekoak toki berezietan. Bailly ango endore edo alkate jaunagana zuzendu ziran, laguntza eske, alkargoai oñean eusteko asmuz. Alkate jaunak erantzun eutsen: «Gure matxiñada ospatsuak gizon bakotxaren eskubideak sendotu, goratu ta aldarrikatu ditu; matxiñada onen seme zarienez, eskubide osoak daukazuez; baña zuen alkargo edo gremio orreik legeak il ditu ta aurrerantzean ezin bizi daitezke».

Langileak ukapen ori entzunaz etziran naikotu: Batzar Nausira jo eben, len lez alkartuta lan egiteko eskubidearen eske. Batzarraren izenean Chapelier jaunak erantzun eutsen: «Zuen alkargo orreik gaur eztira bidezkoak. Gizon bakotxaren eta estaduaren eskubideak baño besterik ezin aintzat artu geike, ta langile-alkargoai eskubiderik ez emotea erabagita dago». Pantze edo Frantze'ko langile-alkargoak, ango matxiñadeak il ebazan: gerotxuago beste estaduetan be ankaz gora joan ziran, geyago ez jagiteko. Onelan langile gaxoak estaduaren ta ugazaba aberatzen aurrez-aur zatituta, bananduta aurkitu ziran, euren eskubideak nok zaindu ez eukela, eta ortixek etorri dira ainbat kalte.

Antxiñako langile alkargo aek gaur egunerako egokiak etzerala esan leike norbaitek; baña aek apurtu ta barririk, ez obarik ez bardifiik, ez ipintea, egokiago izan ete zan? Alkargo aek obetu eikezala guztiak autortzen dabe: apurtu barik, bear ebezan obariak sartu ta aldiak eskatzen eban eraz atondu balira, mesederik asko ekarriko eben gizartera; baña kistar-usaña euken eta orixe etzan nai. Aen orde gerotxuago Barrabas-usañoak etorri ziran eta bakearen orde gizartera gudu ta burrukea ekarri dabez.

Ondasunetzako bakoizkeri edo liberalkeriaren bigarren ondorena, zein izan ete da?

Ondasunetzako bakoizkeri orren bigarren ondorena, zein-geyaokea izan da (erderaz «competencia económica» deritxoena): ola-jaun, lantegi-jabe ta salerosleen zeingeyaokea, bata bestea zapaldu nairik. Zein geyaoaka ori, bear dan neurritz erabili ta egin ezkerro, txarra danik ezin esan leike. Gaur daukagun Aita Santuak be, ori autortzen dau; baña Birjiliok aitatu

eban urre-gose txarra *auri sacra fames*, biotzen jabe egin ezkerro, zein-geyaoka ori neurritz eta bidegabe barik erabiltea, gatxa baño obeto, ezifia da. Zein geyaoaka ori asi ta laster, zer jazo zan? Nai ta ez jazo bear ebana: *arrain andiak txikia iruntsi*: Ola ta lantegi andien jabeak txikiagoen jabeai porrot eragin.

Au zala ta, aurrerago ugazaba lez euren kontura lanean ziarduen askok, ezin jarraitu izan eben, eta euren buruak, nai ta ez, alogereko egin bearra etorri yaken. Onelan lantegiak urritu ta alogerekoak (25) geitu ziran. Aldi berean bulzkin (26), tramankulu edo makiña barriak asmau ziran; naiz eskuz naiz ur-indarrez naiz lurrun edo bapor-indarrez erabilteko makiñaak. Bape dan makiñeak, aldi bardifiñean, beargin askoren lana egin daroa ta sarritan olako tramankuluak ondo erabilteko, emakume nai mutiko bat naiko izaten da. Onelan aurrerago eskuz lan eginda, bizibidea ateraten eben asko, gura nai gurez, alogereko biurtu ziran.

Aurrerakuntzak txalogarri dira ta senean dagoan gizonak ezin gaiztetsi leikez; baña gitxi batzuen onerako barik, gizarte osoaren onerako diran aurrerakuntzak txalogarriago. Asmau ziran makiñoak, denpora gitxiagoan lan geyago egiteko berebizikoak dira ta, aurrekuntzak dirala ezin ukatu; baña gizarteko gauzak egon diran lez, makiñaak berariz eta batez be ugazaben alde lan egin dabe. Ugazaba asko aberats okitu (27) egin dira; langileak bizi al izateko euren aloger murrixa baño besterik eztabe euki: asarrerako bide egokia da ori.

Ugazaba ta langileen arteko auzi au zelan ebulan jakiteko, *Trade Unions* deritxon bazkuneak (28), batzorde bat izentau eban, ola ta lantegiak ikertu, ugazaba ta langileai itandu; batzuen ta besteena entzun eta erabagi zuzenagoak artu al izateko. James Nasmith, ola-jaunak erantzun ei eutsan batzorde orri: «Ugazabentzat langile asko lan-bila ibiltea lakorik eztago; orduan aloger txikiagoak emon eta irabazi andiakoak egiten doguz: guretzat gauzarik onena, orixe da. Nik neure ola edo lantegian gizonen orde emakume ta mutikoak erabiliaz, irabazi gizenak egin dodaz.

Baña orretarako —erantzun eutsoen— len zeure olan zeunkazan langile asko bialdu egin bearko zenduzan: Orreitzaz eta euroen sendietzaz, zer izan ete da? Zuk ainbeste irabazi dozun bitartean orreik zelan ibili ete

(25) Alogerekoak: Soldatapekoak (Asalariados).

(26) Bulzkin: Máquina, motor.

(27) Okitu: Bete, asetu.

(28) Bazkunea: Asociación.

dira? Ori ezta nire ardurea —erantzun eban Nasmith'ek—. Legorra, itxasoa ta eguratsa indaritsuak darabilezan lez, gizarteko gora-berak be lege-aldatu eziñak, indaritsuak darabilez, eta nire lengo langile ta onein sendiak galdu badira, gizartea darabilen indarorrein errua da ta ez nirea. Gizon baktotxak bere buruaren ardurea dau naiko». Munduan Nasmith'en antzekoak asko izan diralako, Marx eta onen jarraitzaileak, batez be orixegaitik etorri dira.

Ondasunetzazko bakoizkeri edo liberalkeriaren irugarren ondorena, zein izan ete da?

Bakoizkeri onen irugarren ondoren txarra auxe izan da: bere oñarria ondasunetan daukan nauskeria (erderaz *dictadura económica* deritxoena). Arrain andiak txikia iruntsi esan dogu len; arrain andia be andiangoak iruntsi esan bear dogu orain. Onetarako ola ta lantegi andien ugazabak alkar-tu egin ziran. Alkargo onei toki batzuetan *Trusts* deritxoe; beste batzuetan *Kartels*. Onein elburua, merkatuen jabe izatea; salerosia ta onen goraberrak euren eskuetan eukitea izan da. Ugazaben alkargo oneik iru burrukaldi egin dabez. Alkargo orreitan sartu nai izan ezeben burkideak (29), beste ola ta lantegi-jabeak, indarrez azpiratu ta zapaltzeko egin eben lenengo burrukaldia.

Burkideok iruntsi ebezanean, *Trusts* edo *Kartels* orrek merkatuen jabe egin ziran eta salerosle bakarrak eurak izanik, zenbat-nai irabazi eben. Ondasun andien jabe egin ziranean, estaduetako jaurle (30) ta agintariak euren menpean ipiñi ta eukiteko, egin eben bigarren burrukaldia. Errietako ondasunik geyenak gizon aberatsok eure eskuetan erabilezan; indararren jabe ziran ta errietako agintariei zaputzetik eldu ta legeak euren alde emonazo eutsezan: onelan ondasunen eta gizartearen jabe egin ziran, dirua baño beste Jaungoikorik ez euken gizonok.

Ola ta lantegi andietatik urteiten ziren gauza guztiak saltzeko estadu baktotxean bear beste merkatu ez egoala ta, nai ta ez atzerrietako merkatuetara jo bear; onelan *Trusts* eta *Kartels*'ok zein geyaoka ibili bear eta batzuk besteen burkide ta arerio egin ziran. Atzerrietako merkatuen jabe izateko, batzuk edo besteak burkidea azpiratu ta zapaldu egin bear. Zelan? Bestelan ezin bazan, izkiluz eta indarrez. Onelan ola-jaun eta ugazaben al-

(29) Burkidea: Contrincante.

(30) Jaurle: Gobernador, administrador.

kargo orreik estaduen arteko burrukea, gudu edo gerrea bein baño sarriago ekarri dabe.

Ondasunetzazko bakoizkeriaren ondoren nagusienak, orrexek izan dira. Garatz (31) edo negozio andiak erabili dabezan gizonak, ola jaunak, lantegi-jabeak —askok beintzat,— aldi laburrean irabazi gizen-gizenak egin ebezan; aberats andi, aberats okitu egin ziran, eta onelan lurreko ondasunik geyenak esku gitxitan batu. Irurogei, larogei, eun miloe lauerleko urteroko etorria edo errentea daukenak be ei dagoz. Beste aldetik alogereko langileak asko geitu ta ugaritu ziran.

Ogasunetzazko bakoizkeri onek, zelako buztarria ezarri eutsen langileai?

Lanaren bila dabiltzan alogerekoak geyago ta alogerak txikiago. Bai ba: langileak asko, geyegi diranean, merketxuago lan egin nai dabenak be agertzen dira ta, ugazabak olakoai begia argi egiten dautse. Ola ta lantegietan zenbat eta alogereko geyago euki; zenbat eta aloger txikiagoa baktotxari emon, ugazabak ainbat geyago irabazi. Ori ta guzti be biotzak irabaziz ezin ase: *aura sacra fames*. Urre-gose txarra. Gaur egunean garatz edo negozio andiak, salerosketarik geyenak aberats gitxi batzuen eskuetan dagoz —ziñoan XIII Leon Aita Santuak— eta aberats okitu orreik langileen aldra andiari antxiñako jopuenaren antzeko beste buztarri bat ezarri dautse. Olako buztarripean dagoana, artega ta urduri dago ta ostikoka asteko, kiñakada (32) andirik eztau bear.

Ondasunetzazko bakoizkeriak gitxi batzuk aberatz okitu, mundurik erdiaren jabe egin ebazan: asko baño geyago txiro edo pobre, alogereko langile. Lurreko ondasunak oso txarto bananduta egozala ta; baktotxaren jabetzea orpotik ebagi ta gizarteari emon arte, gauza onik ez egoala ta, ortik etorri zan batez be gizartekeri edo sozialismoa eta agirian egozan bidegabe orreik emon dautse indarra be. Gizarteko mailak eratsi (33), maila orreik bardindu egin bear zirala ta, ortik etorri ziran ugazaba ta beargiñen arteko auzi ta burrukea. Ondasunetzazko bakoizkeriak bidegabe andiak egin ezipalitu, gaur burruka ori dan baizen garratza etzan izango. Bakoizkeri edo liberalkeri orren alde egon diranak, eztauke onetan erru gitxi. Jaungoikoak zigorrik eskuan artu barik be, astiñaldi ederrak emoten daki.

(31) Garatz: Negocio.

(32) Kiñakada: Bultzakada.

(33) Eratsi: Beheratu, jeitsi.

VI

Gizartekeri edo sozialismoak aspaldian indar andia artu dau: orren errua norena ete da?

Aurrerago azaldu dogun ondasunetzazko bakoizkeriak (erderaz individualismo económico deritxoena): gizartekeria batez be orrexek eka-
rri dau. Urte batzuen buruan zugatz andia egin da, ta bere beso ta adarrak
alde guztietara zabaldu ditu. Gaur egunean sozialismoak gizartean daukan
indarra be, ondasunetzazko bakoizkeri orrek emon dautso berariz eta ba-
tez be. Egia latza, garratza ta margatza (34) dalako edo, ugazaba aberatsak
olakorik entzun be eztabe nai. Ori aitatzen yakeneneko, buztanean zapal-
duriko sugea lez, asarre ta amurruz jagiten dira ta berariz euren dan erru
ori, iñori ezarri ta egotzi nai leuskioe.

Jaun andi onein eretxiz, gizartekeriak ainbeste indar artzearen errua
Eleizak eta eleiz-gizonak dauke. Langile txiro ta beartsuei eleiz-gizonak
egoarri (35) ta eroapena irakatsi bear ei eutsezan. Ez ei dautsez irakatsi, ta
langile beartsuak ugazaben aurka orixegaitik jagi ei dira. Jaun oneik eurak
ondo ibiltarren, enparauak egoarri ta eroapen andikoak izatea nai leukie;
baña gosez edo erdi gosez dabilan langileari eroapena, nok irakatsi? Ezta
zeregin erreza!

Ugazaba aberatsai langileakin zuzen, errukior eta eskuzabalak izan
bear dabela irakastea, beste ori baño errezagoa dala dirudi. Langile beart-
suei eroapena irakatsi dautsen Eleizeak, ugazabai be euren langileakin zu-
zenak eta eskuzabalak izan bear dabela irakatsi dautse; baña errezagó dan
ori ugazaba askok eztabe ikasi. «Luzaroan be —diño XI'gn. Pi Aita San-

(34) Margatza: Gózagaitza.

(35) Egoarri: Paciencia.

tuak— domu (36) edo kapitalak onura larregi lortu dau. Etekin (37) eta irabazi guztia domuak beretzat eskatu dau, ta langileari beronen indarrak barriztau eta birregiteko lagin (38) ozta-ozta itxi dautso. Bidegabe ori zuritzeko, auxe esaten izan da: ondasunetzazko lege aldatu ezin baten bidez domu-biltze guztia aberatsen alde zala ta langileak, lege ori dala bide, be-tiko txirotasunera edo eskuarte murrizera beartuak egozala.

Geyenez mantxestertarra deritxan ondasunetzazko liberalkeri onen erara eztira gauzak beti ta toki guztietan ibili: ori egia da; baña gizarteko ondasun-arau ta legeak orrantz jo dabela be ukatu ezin leiken gauzea da. Au dala ta, eretxi oker, eta zimarkunkeriok (39) gogor eraso ta jauki dabez, ez bakarrik eretxi ta eskakizun orreikaz euren bizitzea obetzeko eskubide jator barik gelditzen ziran langileak, baita beste askok be, ta ori arrigarri danik ezpegi iñok uste». Ugazabai euren eginbearrak XIII'gn. Leon Aita Santuak be argiro irakatsi eutsezan; baña gitxik baño ez ebezan ikasi. Eta euren eginbearrak ikasi ta beteteko ain nagi ibili diranok, langileai eroapena etxakela irakatsi ta, asarre dira. Aberatsa dala ta, ba ete dauko iñok orretarako eskubiderik?

Ugazaba, ola-jaun, lantegi-jabe eta garatz andiak erabili dabezan guztiak izan ete dira errudun?

Artzañak bere artaldean ardi zuri ta baltzak euki daroaz; ugazaben artean be zuri ta baltzak izan dira. Au dala ta, guztiak errudun izan diranik ezin esan geike; baña ugazaba askok, bide zuzenez nai okerre, euren ondasunak geitu ta ugaritzea baño beste asmurik eztabe euki, ta *ur-re-gose* ori ase eziñik bidegabe asko egin dabez.

Langileak bere alogera baño beste etorririk eztaukala: egunero jan bear dauala atxakitzat artuta, ugazaba askok langileai domeka ta jayetan be lan eragin dautse. Langileen errukiz; langile beartsuak pixka bat geyago irabazi egien, domeka ta jayetako lan egite ori, orixegaitik izan dala saku-tu nai leuskigue ugazaba batzuk; baña ori guzur biribila dala edonok daki. Domeka ta jayetako lan orregaz ugazabak irabazi egiten izan dabe: irabaziaren orde z galtzaya (40) euki balebe, galtzai au txikia izan arren be,

(36) Domu: Capital.

(37) Etekin: Beneficio.

(38) Lagin: Lain, haina.

(39) Zimarkunkeria: Tranpa, maula.

(40) Galtzaya: Galera.

langileetzazko errukirik etzan aitaturko ta jai domeketan, premiña barik, etzan lanik egingo.

Langileak, asto izan bailiran, erabili dabez ugazaba askok. Lanik gogorrenak be ordu luzeetan egiñazoten izan dautsez, eta eurak geyago irabaztearren, langileai albait alogerik gitxien emon. Langileen alogerak pixka bat geitzeko atxaki asko: auteskundeetan arrokeriz milaka ogerlekoak jaurti arren, ardura gitxi. Langileai eroapena irakasteko bide ederra da ori!

Ugaza oneik ur-re-goseak itsutu ditu: origaitik bakotxari berea emon ten be eztabe jakin. Domu edo kapitalak, lan barik, ezta kar irabazirik; lan utsak be, domu barik, ezin lei gauza andirik; irabazia, domuak eta lanak alkartuta dakarre eta bien artean banandu bear da. Irabazia zenbaterañio-kua izan dan begiratu ta domu edo kapitalari berea ta lanari be berea emon balitzako; gizarteko zuzena zeatz eta osoro bete balitz; errukior dirala diñoen ugazabok langileekin esku-zabalagoak izan balira, sozialismoak gaur daukan indarra ez eban artuko; baña ondasun bakoizkeria maite eben ugazabok ez egozan orretarako; langileak eroapena galdu eben; sozialismoaren aziak indarra artzeko, gizartea ondo landuta egoan; azi ereilea agertu zan eta Marx'en eskuz ereindako aziok, langile askoren biotzetan erne dira. Ugazaba aberats askok errudun diranik eztabe autortu gura; negargarriena orixe da, orrelan osabiderik eztago ta.

VII Gizartekeria zer eztan

Gizartekeriaren izenaz bateatu dogun sozialismua zer dan adierazo baño len, zer eztan esan bear dogula deritxat. Aspaldian gizartekeri edo sozialismoa asko zabaldu da, langilien artean batez be. Zegaitik? Gizartekeria bere izatez eta unez kaltegarri da: baño langilien alde gauza onak be egin ditu, ta langileai mesedeak egin dautsezalako, orixegaitik zabaldu da. Kalteak baño ekarri ezpalitu, zabaldu dan beste etzan zabalduko. *Baña gizartekeria dala ta, egin diran gauza onok, langileai etorri yakezan mesedeok, aren errayetan sorturiko ale, arnari (41) ta frutuak ete dira? Ez, urrik emon bez! Gizartekeri barik, gizartean zuzentasuna erabili az beste barik, egin eitekezan eta egin bear ziran gauzak dira langileak aspaldian lortu dabezan obaririk geyenok.*

Obari oneik zeintzuk dira?

Oraindik urte asko eztirala, meatoki ta oletako langileak, abere baño izan ezpailiran, lanerako gauza ziran bestean baño ez ebezan ugazabak aintzat artzen: min artu nai gexotu ezker... or-konpon. Orain, oster, berezko gexo, laneko ezbear eta zartzarorako laguntza ta sorospidea (42) olako edozein langilek dauko. Au gizartekeria ede da? Au langileak euren buruen ardurea eukitea baño besterik ezta ta, sozialismoaz zer ikusirik eztauko.

Ola ta lantegietan emakume ta gaztetxuen lanari mugak ipiñi dautsaz legeak: ori dala ta, ugazabak nai leukien guztia ezin dabe egin. Au gi-

(41) Arnari: Fruitu.

(42) Sorospidea: Socorro.

zarterkeria ete da? —Ez, jauna!— Ugazaba batzuk ezegaz be ezin ase izan dira: euren lantegietarako emakume ta gaztetxuak bilatu dabez, gizonekoai beste lan eragin eta aloger gitxiago emon dautse, eurak geyago irabaztearren. Urre-egarri gaiztoak erabili dauz, eta ori bidegabe andia dala, antxiña esan eban XIII Leon Aita Santuak.

Aspaldian alogerak geitu ta laneko orduak gitxitu egin dira. Oneik gauzok ba ete dauke gizarterkeriaz zer ikusirik? Sozialismoa irakatsi daben buruzagiak eta ori ikasi daben langileak aspaldian be obari orrein bila ibili dira; baña orreik bakarrik ez, beste geyago be bai. Gizarterkeria alde batera itxita, langileak alkartuaz eta indarra artuaz beste barik, bardin eskatu ta eskuratu eikiezan obariak dira ta, sozialismoarenak baña langilien alkarztearen ondoren, amari edo frutuak obeto dira.

Edozein langilek, bape begiratua bada beintzat, bere ta bere sendia elikatu, jantzi ta zertxubati aurreratzeko lain izango dan alogeraren esku-bidea daukala, antxiñatik irakatsi dau Eleizeak. Sendiko, familiko buruari beste enparauak laguntzea ondo dago; baña ama ta umeak lantegira joan bear izatea, txarto. Eleizearen irakaspen onei ugazaba askok jaramon gitxi egin badautse, errua onena da ta ez Eleizearena.

Zortzi ordu lan, zortzi ordu atsedean, zortzi ordu ikasi: orixe izan da sozialisten aspaldiko leloa. Azkenian, ezetarik burruka barik, langile guztiak lortu dabe zortzi orduko lan ori.

Zortzi orduko neurri ori lanbide guztietarako, egokia ete da?

Lan batzuk besteak baña askozaz gogor eta neketsuagoak dira ta, guztiei zortzi orduko muga bardiña ipintea egoki dan ala ez, auzira ekarri ta eztabaidan erabili leiken arazoa da: bakotxak bere zeregiña obeto ikasteko izan bear eben zortzi orduok be, ezer ikasten langile gitxik eta geyenak ardantegietan daroez ta, lege ori langileai mesede egiteko baña onein sakelak murriztuta izteko ohea dala, batek baña geyagok uste dau; baña dan baña kaltegarriagoa balitz be, orretan gizarterkeri edo sozialismorik eztagoala edonok daki.

Gizarteriaren alde ibili diranak, langileai mesederik ekarri ete dautse?

Beti gaiztorako, txerrena edo deabrua izan ezik, iñor be eztago ta, gizonik gaiztoenak be nozean bein gauza onak be egiten ditu. Gizarterkeria (sozialismoa) berenez kaltegarri dan arren, orren alde ibili diranak be gau-

za on batzuk egin dabez, langileai onura ta mesedeon batzuk ekarri dautsez. Egiz, mesede orreik langileak alkartu ta indarra artuaz beste barik be eskuratu eikiezan: au dala ta, aurrerago aitatu doguzan mesedeok gizarterkeriaz zer ikusirik eztaukela esan dogu. Goazan aurrera. Langile asko dabilzan ola ta lantegietako ugazabak, sarri irabazi andiak egin dabez. Beargiñai ugabazarik geyenak egunoroko alogera baña besterik eztautse emon orain arte. Egin daigun langileak euren izakera ta bizikerea obetuaz doazala: Alogeraz gañera irabazietatik be zati bat eurentzat izatea lortu dabela...

Garatz edo negozioak txarto badabiltz; irabazirik ezpadago, olakorik ezin egin leikela zetan esan bez; baña ola ta lantegietan ugazabak irabazi andiak be bein baña sarriagotan eskuratu dabez, eta irabazia ugaritxua danean, esan dogun ori iñoren kalte barik egin leikela, nok ukatu daike?

Ugazabakin batera langileak be garatzean domuzkide (43) izatea, gizarterkeria ete da?

Langileai zor yaken besteko alogera, domu edo kapitalari be dago-kion besteko mozkiña (44) emon, ola ta lankayak oñean euki naiz obetuteko bear dan beste be eratsi ta gero, enparetan dan irabazia ugazaba ta langileen artean bidez bananduko balitz, ori gizarterkeria izango ete litzake? Urrik emon bez! Oraindik geyago: langileak alogeraz gañera dator-kien irabazi ori garatz edo negozio aretantxe ipiñiko balebe; onelan, len langile soil ziranak, urte batzuen buruan, langile ta garazkide (akzionista) egingo balira ta aurrerantzean irabazi bikotxa, langile ta jabekide lez dago-kien irabazia, eskuratuko balebe, ori sozialismoa izango ete litzake?

Ezelan bez! gizarterkeriaren aurrerapen eta garaitzea galerazoteko, orixe baña bide oberik eztagoala dirudi. Ori egingo balitz, ugazaba ta langileak alkar obeto artuko leukie, beargiñak gogozago ekingo leuskioe euren lanari ta opor edo uelgarako asmurik eleukie artuko, opor egiñaz naiz lankayak alperrik galduaz, euren buruai kalte egingo leuskioe ta. Ugazaba batzuk olantxe egin dabe ta ondo joan ei yake.

Beste batzuk olakorik entzun be eztabe nai. Euren irabaziak asko gitxituko litzakezala ta, bide ori artu baña langileakin auzian eta burrukan ibili nayago dabe; baña sozialismoa nausitu badadi, nausitze au ugazaben-tzat, langileai irabazietatik zati bat emotea baña askoz be txarrago izango

(43) Domuzkide: Participe en el capital.

(44) Mozkiña: Beneficio, ganancia.

da ta, orduan kokoteari ats egiteak eztau balioko. Dana dala, esan dogun ori ugazaba askoren eretxi ta gurarien aurka bai izango litzake; baña gizarterkeria, ezelan bez.

Orain arte domu edo kapitalaren alde egon diran legeak, lanaren alde, bear bestean, aldatuko balira, ori gizarterkeria izango ete litzake?

Gizonok osasunez, indarrez, antzez, buruko argiz bardiniak ez kara ta, lurreko ondasunetan guztiok bardiniak ezin izan geintekoz; bardintasun ori indarrez ipiniako balitz be, luzaro ezingo leuke iraun; baña gaur egunean batzuekandik besteakana ondasunetan dagoan aldea be larregia ta gizarterkeria bakearentzat kaltegarria dala autortu bear dogu: batzuk zenbat dauken be eztakie; beste askok, ostera, gitxiegi edo ezer bez. Liberalkeria zabaldu zanetik aurrera, gizarterkeria legeak arazo onetan ugazaben edo aberatsen alde egon dira: lege orreik diruari dirua egiñazoteko, ondasun andiak esku gitxitan batzeko, berebizikoak izan dira. Ausartuak izan diran eta kezka gitxi euki daben askok, aldi laburrean irabazi izugarriak egin dabez, orretarako euren baño geyago ifloren dirua erabiliaz.

Gitxi batzuk aberatsegi ta geyenak txiroegi diranean, gizarterkeria eztabil ondo. Aitaturiko legeak txiro ta langileen alde aldatu ta urte batzuen buruan lurreko ondasunak gaur dagozan baño obeto, zuzen eta bidezago bananduko balira; ondasunok obeto bananduaz, gizon guztiak edo beintzat geyenak zerbaiten jabe izatea lortuko balebe, ori gizarterkeria izango ete litzake? Gauzen jauntzea obeto banandu ta albait jaberik geyen egitea, gizarterkeriari indarra kentzeko biderik onenetarikoa zala, irakatsi euskun XIII'gn. Leon Aita Santuak.

Eta ogasunetan guztiok erdi bardintsu izatera elduko bagintzaz?

Gizonok, osasunez, indarrez, lanerako jasez (45) bardiniak ez karealako, ondasunetan be bardiniak ezin izan geintekozala esan dogu; baña lapurreta barik, legez eta bidez, oraingo alde andiok gitxitu ta, guztiok erdi-bardintsu izatera elduko bagiña be, orretan gizarterkeririk ez legoke. Diñogun onek gizarterkeriari mesede ala kalte geyago ekarriko ete leuskion, eztabaidan ipini leiken auzia da; baña gizarterkeria ezelan bez.

(45) Jasez: Gogoz, moldez.

Ugazabari berea emon eta baserritar maister bakotxari bizi dan etxearen eta darabilan bazterren jabe egin daiten, legearen bidez, erreztasun andiakoak emongo balitzakeoz, orrek gizarterkeri edo sozialismoaz zer ikusirik eukiko ete leuke? Batzuk besteak baño askoz aberatsago izateak, gizarterkerian nauskeri ta jauntxukeria sortu daroazala ta, antxiñako euskaldunak ori galerazteko oiturazko legea eukela diñosku Zamakola'k [(1)*]. Onelan senargai ta emaztegayak, bakotxak bere etxaguntzea baekarren ezkontzara, etxaguntza orreik oitura legez seme edo alaba biren artean banandu bear ei ebezan gurasoak, etxaguntza asko esku batera etorruta, ori nauskeri ta jauntxukerirako bidea izan ez eiten.

Aintxiñako gauzea da ta, ori orrela zan ala ez ziur ezta kigu ta jakin be ezin geike; baña legez eta bidez orrañoxe elduko bagintzaz be, orrek sozialismoaren antzik be eleuke eukiko. Zer arrano da ba orduan gizarterkeri edo sozialismo ori? Urrengoan esango dogu.

[(1)* Historia de las Naciones Baskas, 1.^o-80. «e.o.»]

VIII Gizartekeria zer dan

Gizartekeri edo sozialismoa zer ete da?

Itaun oni itz gitxitan erantzutea ez da egikizun erreza. Gizartekeri-zaleak euren eretxietan batera balebiltz, orrein irakaskintzen muga ta litsak (46) bardiñak balira, gizartekeria zer dan itz gitxitan be azaldu al izango geuke; baña gizarte-eraketa orren alde dagozanak, margo askotako arrañak dira; ur gazikoak asko; ur eztikoak be ez gitxi; bakotxak bere eretxien erara igiri egiten daki; batzuk sakonagotik, besteak azalegotik dabiltz, eta guztiak sare baten sartzea, egiñen gatxa baño be gatxagoa da.

Gizartekeriaren irakasleok, ezetan be ez ete dagoz batera?

Esan dodanez, gizartekeriaren irakasleok buru bezenbat aburu edo eritxi erakutsi dabez; orraitik be, batzukandik besteakana dagoan aldea, eretxien jokeran baño geyago, orrein gazi-gazan agiri da.

Auntzak bere jokerea mendira: gizartekeriak nora?

Gizon bakotxaren eskubideak geyago edo gitxiago moztu, eta gizabatzarenak edo estaduarenak geitu ta sendoagotzea, gizartekeriaren jokerea orixe da. Estaduak bere eskua gizarteko arazo guztietan, edo beintzat geyenetan, sartu bear ei dau, ondasunai dagokien arazoan berariz. Edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea ta ondasunok gizartean banantzeko ardurea; arazo bi orreik be, geyago edo gitxiago,

(46) Litsa: Nabardura (matiz).

estaduak beragandu ta beretu egin bear ei dauz. Gizartekeri-mueta guztien jokerea orixe da: bakotxak noraño eldu nai leuken, gero esango dogu.

Sozialista geyentsuen asmu nagusiak, zeintzuk ete dira?

Lurreko ondasunak gizartean txarto bananduta dagozala ta, beste era batera, oraingoaren antzik be eztaukan erara, banandu bear dirala diño gizartekeriak. Emengo ta ango errietan, gizartekeriak sortu dauzan asarre, burruka ta iskanbilen erro ta sustrai, ondasunen banatze barri ori izan da; baña orrezaz gañera garrantzi andiko beste gauza asko be zearo aldatu nai leukez gizartekeriak.

Gizonok izatez bardiñak ei gara ta, ondasunetan be bardiñak izan bear ei geuke. Egiz, gogo ta soña, gorputz eta arimea guztiok daukaguz; orretan bardiñak gara; baña beste gauza askotan ez kara bardiñak ez gixiagorik be. Gizon batzuk besteak baño zoli ta bizkorragoak dira: buruan argi geyago, eskuetan antze ta indar geyago daukez, langileago dira ta irabazietatik aurreratzen be batzuk besteak baño obeto dakie. Au dala ta, lurreko ondasunen jauntza edo jabetzea gizonen artean bardin bananduko balitz be, bardintasan orrek aste betean be ezingo leuke iraun. Gizartekeri-zaleak be ori argiro dakuse, ta argiro ikusten dalako, ondasun orreine jabetzea gizon bakotxari kendu ta gizarteari emon bear yakola diño. Bardintasunerako bidea orixe ei da.

Edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztiak, gizartearenak ei dira: orreine jabe bakarra gizartea ei da ta, olako zerbait euren-tzakotzat daukenak; olako zerbaiten jabe lez agertzen diran gizonak, iñorena eurakandu daben lapurrak baño besterik ez ei dira. Solo ta baso, ibai ta mendi, abere, golde ta burdi; itxaso, itxasontzi, arrantzurako potin eta sare; meatoki, ola ta lantegi, makiña ta lankiñak; zerbait irabazteko bide diran gauza guztiak, oraingo jabeai kendu ta gizarteak beretu egin bear ei ditu ta bere-bereak bailiran, ordekoen bidez eta ondoen deritxonez erabili.

Ondasun guztiak gizartearenak izan ezkeru, gizon guztiok ondasunetan be bardiñak izango ei gara; baña ori, ondasunetan barik, arloterian guztiok bardintzea dala edonok daki. Gizon bakotxak gizartearentzat lan egin bearko ei dau, ta jan, jantzi ta jolasteko bear dauana, gizarteak, emongo ei dautso. Guztiok ondo bapo obeto ibiliko ei gara: bakotxak bear dauan guztia ugari ta oparo eukiko ei dau. Gizartekeri-zaleak ori edonon eta edonoz eskiñi ta agintzen dabe: baña agindua bat ta emona bi ta iñok emona- ren begira dagonaren errukarri.

Eta erlijioatza zer diño?

España'n gizartekeria irakasten diarduen morroyok, maixu txikiak dira: onetan be atzerritarrak eta doixtar edo alemanak batez be, orreik dira irakasle nagusi: emengo maixu txikiok doixtarrak diñoena barrero esaten baño eztakie, eta sarritan, sozialismua zer dan azaldu barik, langileen odola ugazaba ta aberatzen aurka irakiten ipinteko egokien deritxoena baño besterik esan be eztabe esaten euren itzaldietan. Alemania'ko gizartekeri-zaleak euren eretxi ta asmuak Gottha'ko programa edo egitarauan agertu ebezan: Egitarau aretan erlejiñoa gizon bakotxaren arazoa dala diño; baña ori siñestedun langileak atzipetu, engañoa ta eurakandutearren baño ez ebela esan argiro ikusi da.

Gizartekeriak gizabatza ala Estadia baño beste Jaungoikorik ezta-zau (47): onen eleizea lantegia da; amar aginduak gizonaren eskubideak; elburua, zentzunen atsegiña. Dietzgen'ek argiro diño: Gizartekeriak erlejiñorik eztauko; guk erlejiñoaren orde zizon bakotxaren argaltasuna, gizartearen menpean osoro jarriaz, sendotu ta osotu bearra daukan argaltasun orren errukia, erlejiñotzat orixe ipinten dogu. Geuk nai dogunez eraturako gizarte barria, gure Jaungoiko orixe da, ta orregan siñestu ta itxaroten dogu. Bebel'ek, ostera, zerua aingeru ta kurloio edo torre txorientzat izten dauala diño ta ondasunak guztienak dirala, Jaungoiko ta erlejiño bako erri-yaurgoa (48) nai dau.

Gizartekeria ezkontza ta sendi edo familiaren arerioa be bada. Umeak azten dagozan ama guztiak Estadia ardura andiz zainduko ei ditu, berariz lagunduko ei dautse; bein umeai bularra kendu ezkeru, barriz, ortik aurrera ume guzti-guztien ardurea be Estadia izango ei da. Ori dala ta, ez ezkontzarik ez sendirik ez ei da bear, eta gauza zar onein gomu-tea be bein betiko kendu bear ei da.

Ona emen gizartekeri edo sozialismoaren asmurik nagusienak. Eztau nai, ez Jaungoikorik, ez zerurik, ez ezkontzarik, ez sendirik, ez jaun-tza edo jabetzarik. Gauza guztien jaun eta jabe gizabatza edo Estadia ta gizon guztiok orren morroi ta jopu. Ori gauza ona bada, munduan gauza txarrik eztago.

(47) Ezta-zau: Ezagutzen ez dau, ezagutzen ez du.

(48) Erri-yaurgoa: Gobierno, Señorío del pueblo (República).

IX

Gizartekeri edo sozialismoa, zenbat eratakoa da?

Gizartekeri-zale guztiak aburu edo eretxi bardiñekoak ez dirala esan bear dogu. Izan be, aldi bateko gizartekeria alderdi bitan, bitaz be, zatitu da: alderdi batari baltsakeri edo komunismoa deritxo; bestea lengo izenaz gelditu da. Alderdi bi oneik alkarri gorroto bizia dautse ta aspaldian be bata-bestearen aurka dabiltz. Baltsakeria bere burubide, eretxi ta asmuetan gizartekeria baño zorrotz eta errotikoagoa da; orraitik be elburuan baño orra eltzeko bideetan alkargandik urrunago dabiltz.

Baltsakeriaren asmuak, zeintzuk dira?

Baltsakeri edo komunismoak bere eretxi, asmu ta gurariak lotsa ta bildur barik azaltzen ditu: gizarteko mailak eratsi ta bardindu arte, langileak ugazabai eten bako gudua egin bear dautsela ta bakotxaren jauntza edo jabetzea errotik eta zearo kendu bear dala, koipekerietan ibili barik, argi ta garbi irakasten dau.

Erlejiñoa langileak lotan eukiteko *opioa* baño besterik ez dala ta, Jaungoiko, ezkontza ta sendi edo familiaren izenik entzun be eztau nai. Onen alde dabiltzanak, gizon azarri (49), gereka (50) ta urduriak dira. Güz-tia guztiena ta ezer bez iñoreña; gizon azarri onein gudu-zantzoa orixe da. Elburu ori, gerora begira egon barik, indarrez, eta matxiñadaz albait laste-

(49) Azarri: Auşarta.

(50) Gereka: Intranquilo, sin base sólida.

rren lortu nai leukie. Orretarako bide guztiak on, egoki ta zuzenak ei dira; orraitik be jo ta kea ateratea, biderik laburrena: augaitik geldi-geldika, geyenen eretxiz eta autarkien (51) bidez orra eltzeko asmua darakusen *sozialistak*, gizon txepetx eta euli epel batzuk baño ez ei dira.

Baltsakeri ta gizartekeriaren artean beste alde andi bat be badago; baltsakeri zaleak oraingoan antzeko *estadurik* ez dabe nai; euren buruen jabe ta eskuko izango diran giza-batzak ipiñi nai dabez, eta gero, ondo balitiz, bata-besteagaz alkartu, baña guztien buru izango dan jaurgo ta agintaritza barik. [(1)*]

Bere muga-barruan diran ondasun guztien jabe langile-batza egingo da: egin bear diran lanak eta ortik datozen irabaziak banandu ezkerro, ondo biziteko lagin guztientzat egongo ei da.

Eta gizartekeriarenak, zeintzuk?

Gizartekeri-zaleak, ostera, *estadua* bearrezkoa dala diñoe: erri-jaurgo edo errepublikea bai, baña agintaritza nagusi ta guzti. Edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztietzaz *estadua* jabetuko ei da: guztien eta bakotxaren lana ta onen irabazia be *estaduak* berak bananduko ei dauz gizartean, eta norbait atsegin-pozez ezpalego, gauza ona zer dan ez dakialako izango ei da.

Gizartekeria, bere bideko asmu ta egintzetan, baltsakeria baño gaza ta biguntxuagoa dala esan dogu. Eta egiz, bere elburura biurrikeriz eta indarrez barik, geyenen eretxiz eta autarki edo botoen bidez eldu nai leuke: langile ta ugazaben arteko burrukea pixka bat gazatu daroa ta gauza batzuen jabetzea, ondasuna ekarteko gai eztiranena batez be, gizon bakotxari laketu leikeola uste dau.

Onetan gizartekeri-zale diranen artean batasunik ezta agiri. Jabetza guztia bakotxari zearo kendu bearrik eztagoala diñoe batzuk: gizarteari on eta mesede andiak egin dautsazanak, nasai biziteko lagin emongo dautsan ondasunaren jabe izateko eskubidea badaukala autortzen dabenak be badira: beste batzuk jabetzea bera baño ondasun andien jabetzeak dakarren almen eta indar larregia, gizartetik baztertu nai dabela dirudi; baña geyenak, langile ta ugazaben arteko burrukea pixka bat gazatu arren, burruka

(51) Autarki: Voto.

[(1)* Erusi'n besterik egin dabela badakigu. Izan be, ango erri ta erki guztiai buztarri gogorra ezarri dautse Moskou'ko agintariak. «e.o.»]

ori izteko asmurik eztauke ta gauzarik geyenen jabetzea be errotik kendu nai leukie. Gizarteko mailak bardindu egin bear ei dira ta edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe estaduak baño beste iñok ez ei dau izan bear.

Baltsakeria ta gizartekeria, euren elburuan baño arako bidean alkar-gandik urrunago dabilzala esan dogu, ta ori egia dala edonok dakus. Lennengoak, edozein ondasun ekarteko gai diran gauza guztien jabe, giza-batzak egin nai leukez: bigarrenak, estadua. Baña naiz batera naiz bestera izan, gizon bakotxak jauntzarik (52) eleuke eukiko; ondasunen jabe izateko eskubiderik bez. Garrantzirik andiena daukan arazo onetan, biak batera dagoz, ta bata bestea baño gaziago ala gazeago izatea baño beste alderik eztauke.

(52) Jauntza: Señorfo.

X

Gizartekeri edo sozialismoaren buraso ta irakasle nagusi Karl Marx

Gizartekeri edo sozialismoaren buraso ta irakasle nor?

Igazitako (53) gizaldian sozialismoak irakasle asko ta margo asko-takoak izan ditu; baña gaur egunean ango ta emengo gizabatzetan ondo errotuta dakusgun gizartekeriaren buraso ta irakasle nagosi Karl Marx izan da (1818-1875). Onen aiskide mami-kutuna zan F. Engels'ek be ez eban egin lan gitxi: egiteko guztietan zintzoro lagundu eutsan Marx'eri eta onen «Domua»ren bigarren atala be Engels'ek emon eban argitara; baña Marx'ek besteko izen, ospe ta entzuterik eztau lortu. Euren buruei *ortodoxos* edo aburu zuzenekoak deritxoen edonongo sozialista, Marx'en jarraitzaileak dira ta euren buraso ta maixu nausitzat doixtar (54) ospetsu ori dauke.

Gizartekeriari jakintza-usaindun oñarriak ipiñi nai izan eutsazan Marx'ek, *Domua* (El Capital) deritxan bere liburuan batez be. Egia esateko, jakintza-usaño baño gaikeri-atsa (materialismo-atsa) ugariago darioe jaun orrein liburuei. Marx'en aldian, Alemani'ko ikastetxe askotan beintzat, gaikeri edo *materialismoa* aurrez irakatsi oi zan, ori gizonarentzat aurrapide andia balitzan lez.

Gaikeri ori zer ete da?

Guk, gizonok, edozer gauza egiteko, gaya (55) bear izaten dogu; buztarrigiñak, buztarrigaya: maya egin nai dauan arotzak, zura edo ola, ormea

(53) Igazitako: Igarotako.

(54) Doixtar: Alemaniar.

(55) Gaya: Materia.

egin nai dauan argiñak, arria eta abar. Edozer egiteko bearrezkoak doguzan gayok, soña edo gorputza euki daroe beti, guk gizonok soin bako gairik eskuartean erabilten be eztagu ta. Gaikeria irakatsi dabenen eretxiz, soin bako izakirik bategiñik be eztago munduan, ez goyan ez beyan. Munduan dan guztia, gaikia (56) ei da, berengotik asi ta gorengoraño, ta aske dan gogorik iñongo iñon ez ei dago.

Emen geure barrenean daroagun eta arimea deritxogun izaki au, soña edo gorputza baizen gaikia ei da. Gibelak beztuna berez dakarren lez, garunak be gogaya alantxe ei dakarre, ta gogai edo pentsamentua azaltzeko, gaikia eztan gogo bearrük ez ei dago. Olakoxe gauzak ikasi ebazan Marx'ek bere gaztezarotan.

Diran guztiak gaikiak balira, gizona aske edo libre dala esatea, amesutsa baño besterik ez litzake: gizona bere egikizunetan aske izan ezük, ostera, gizarteak eroan dauan baño beste biderik eroan egikeala: bide baten orde bestea artzea, ori gizonak euren eskuan euki dabela esatea be, zorakeri garbia baño ez litzake. Gaikia deritxogun mundu onetan, ortze ta lurreko gauza guztiak aldatu ezindako legepean dagoz eta indaritsuak darabilez.

Gaikeri-zaleen eretxiz, gizartea be olantxe, indaritsuak, legealdaziñak darabile: au dala ta, aize txistulariak ekatxa sortu daroyenez, olantxe gizartean be aldi batek urrengoa bere indarrez sortu ei daroa eta dan lez baño ezin izan ei daiteke. Gaikeriaren alde dagozan sasi-jakitunak ori diñoce. Onein eretxiz, mundua ta bertoko gauza guztiak eta bakotxa, soingayaren nai ta nayecko aldaketak baño besterik eztira: onelan mundu onek, berau eztan eta Jaun eta Jabe lez, legepian ipiñi dauan Egilerik ez ei dauko, ta gizonak aukeramen eta askatasunik be ez. Marx'en eretxia be orixezan.

Eta gizadiaren edesti edo istoria, zelan ulertu eban Marx'ek?

Gaikeri ori, guzur biribila dan gaikeri ori oñarriztat artuta, gizadiaren lengo ta oraingo edesti edo istoria olantxe ulertu ta azaldu eban sozialismoaren buraso ta irakasle nagusi dan Karl Marx'ek. Onen eretxiz gizarteak igikun (57) eta zirkiñik (58) txikienik be eztau egundo egin, lu-

(56) Gaikia: Material.

(57) Igikun: Mugimendu.

(58) Zirkin: Mugimendu.

rreko ondasunen bat irabaztearren izan ezük. Itxasoko uin edo olatuak ekaixaren indarrak darabiltzan lez, gizartea be olantxe bere igikun, lorratz eta atzera-aurrera guztietan lurreko ondasunak, eta oneik bakarrik, erabili ei dabe. Ondasun orreitatik bat-edo bat irabaztearren izan ezük, iñongo gizasemek ez ei dau egundo ezer egin.

Marx'en eretxi au guzur garbia dala edonok daki. Ezpabe esan. Seme gexokia; geroago be buruko miñak baño besterik eztautsala ekarriko jakin arren, seme gexokia al bait ondoen zaintzeko neke andiak artu ta gabak galtzen dituan ama laztana, zek igitu dau? zek darabil? Lurreko ondasunek ez beintzat. Ezetariko izenik, ospe ta entzuterik bilatu baga, aberriaren alde bizia gogoz emon daben abertzaleak, lurreko zein ondasunek igitu ta erabili ete ditu? Lurrerako irabazte barik, aurrekoai on eta mesede egitearren, neke latzak artu ta bizia galdu daben gizasemeak, ainbat izan dira ta, Marx'en eretxi ori guzurra dala autortu bear.

Marx'en eretxi orreik goratu ala eratsi egiten ete dabe gizona?

Marx'en eretxiok abereen mailara erasten dabe gizona. Gizonaren gogo ta biotza igitu daikezan zio bikañagorik ezpailegoan, sakela ta askea ipiñi eutsozan gizonari begien aurrean sozialismoaren buruzagiak. Sake-lak eta askeak gizaseme asko be asko erabili ditu. Ori egia da; baño gizona igitu ta erabilteko, orreik baño zio bikañagorik eztagoala uste izatea, ori, ziñez, gizona abere uts egitea beste da. Eta izan be, euren egitekoetan sakela ta askea baño beste ziorik erakutsi eztabenak, gizonik txatxarrenak izan dira. Gizona dan gizonarentzat askea baño gauza bikañ eta goragorik badagoala ta, Bernstein, Mac Donald, De los Rios eta beste batzuk, sozialistak izan arren be, Marx'en esakun eta eretxi okerrok, txartzat emon dabez. Bai bear be!

XI Marx'en asmaketak

Gizartekeriari jakintza usaindun oñarria ipinteko, ze gauza barri asmau ete eban Marx'ek?

Edozein gauzak —ziñoan Marx'ek— aldin edo balio bi ditu: dana dalako gauza orrek erabilteko daukan balioa, ta beste zerbaiten ordez truketako nai diru-ordez saltzeko daukana. Balio orrei erderaz *valor en uso* ta *valor en cambio* deritxoe. Eta balio oneik, zer dira? Gauzea berenez zertarako egiña dan eta aretarakoxe daukan egokitasuna: esaterako, soñekoak gorputza estaldu ta janzteko daukan berezko egokitasuna, *valor en uso* orixe da; baña soñeko orren jabeak, bere gorputza janzteko erabili barik, bearragoa dauan beste gauza baten ordez trukau nai saldu be egin leike, eta soñekoak onetarako daukan balioari *valor en cambio* deritxoe.

Baña gauza bakotxak balio biok badaukazala, ez ete da, ba, egia?

Egia ete dan, ba! Egi argi ta garbia dalako iñongo gizasemek egundo ukatu dauanik eztot uste, Aristoteles ezta atzo goizeko gizona eta gauzen balio biok antxiña ta beñola aitatu, zenbakeu ta berezi ebazan Aristoteles'ek. Adibidetzat oski edo oñetakoak aitatu ebazan: oñak babes-tu ta berotzeko balio dabe eta beste zerbaiten ordez truketako be bai.

Gauzen balio bikoitz ori antxiñatik ezauna izan bada, ze gauza harri asmau eban Marx'ek sozialismoari jakintza usañeko oñarriak ipiñi nairik?

Marx'en asmakuntzea orain arte esan doguna baño besterik zan. Jaun onen eretxiz, gauzak erabilteko dauken balioa, *valor en uso*, berezkoa da-

be; beste batzuen ordez truketako nai diru-ordez saltzeko daukena ta *valor en cambio* deritxoguna, ostera, guztiz eta osoro langilearen lanetik eta ortik bakarrik ei datorkie. Onelan eskuz egindako ta salgei dagozan gauzen balioaren neurri bakarra, langileak gauza orreik egiteko erabili ta sautu (59) bear izan dauan lan indarra ei da. Neurri bakarra ori izan ezkeru, —zetan esan bez— egindako gauza bakotxak, langileak or sartu dauan lanak beste balio dauko, ez geyago, ez gitxiago.

Ori esaten errezago da, onegiten baño. Ori orrelan dala erakutsi nairik, esan edo idatzi eban Marx'ek: Sarritan alkarren antzik apurrik be eztauken gauzak truketan doguz; baño bata-bestearen ordez gauzak truketako, balioan gitxi gorabera bardiñak izan bear dabe, trukeaz galdu nai dauanik eztago ta.

Orain ba; alkarren antzik eztauken gauzok, langileak gauza orreitan sartu ta ezarri dauan lanean izan ezik, beste ezetan be ez tira bardiñak: balioan gitxi gorabera bardiñak dira: augaitik, gauzai truketako nai saltzeko dauken balioa, langilearen lanetik datorkiela autortu bear da.

Marx'en esanok, egiak ete dira?

Egia erakusteko maltzurkeri ta azerikeririk ezta bear: olakorik darabilenak, geyenez, egia estaldu ta guzurra egitzat saldu nai leukela darakus (60). Marx'en asmakuntzok maltzurkeri garbiak eta guzur biribilak baño besterik ez tira. Gauzen balioa neurtzeko, langilearen lana aintzat artu bear da. Orretan ba gagoz; baño langilearen lana baño besterik aintzat ez tala artu bear diñoana, ori burutik ondo eztago. Ikusi daigun.

Lugin edo nekazari batek mendi aldapeko lur idor, elkor eta erdi-antzuana, lur ori lantzeko alak eta lerrak egin ta gero, gari arloa erein dau. Zoriontsuago izan dan beste batek, askozaz be lan gitxiagogaz, lur mami, apatz eta gantzatsuan lenengo arek lango biko gariarloa. artu dauan larimiña edo anega-gari bakotxean lenengo nekazariak bigarrenak baño birritan be lan-indar geyago sartu daua ta, aren larimin-gari bakotxak birritan geyago balioa eite dau? Birritan geyago eskatu ezin leikenik eztiñogu; baño, emon nok?

Bear bada aren garia beste onena baizen ona izan be ezta ta, birritan be lan geyago egin arren, beste onek baño merkeago saldu bear izango leu-

(59) Sautu: Gastatu

(60) Darakus = Erakusten dau, erakusten du.

ke. Gauzak truketako nai saltzeko dauken balioaren neurri bakarra, langileak orretarako erabili ta sautu dauan lan-indarra balitz, Marx'ek ziñoanez, lan geyagogaz egin dan gauzeak geyago balioa leuke; baño ori geyenez orrelan ez tala agiria dago. Masti jabeak ardao zarra ta barria eukiteko egin dauan lana osoro bardiña balitz be, ardao zarrak, luzaroago ardategian egon dalako beste barik, ardao barriak baño geyago balio izaten dau.

Langile trebe ta antzetsuak aldi laburragoan lan andi ta ederragoa egin daike langile trakets eta ongatzak (61) aldi luzeragoan baño. Ori egia dala edonok daki: Marx'ek be baekian eta azalera etorkion guzurra estaldu nairik, beste asmaketa batera jo eban Marx'ek.

Marx'en asmaketa barri au, zein ete da?

Eskuz egindako gauzen balioa, langileak orretan sartu dauan lanetik dator; baño balio orren neurritzat —gañeratu eban Marx'ek— ezta artu bear langile bakotxaren lana, salgai dagoan gauza ori egiteko, nai ta ezkoa dan gizarte-lan ertain edo erdikoa baño. eta *gizarte lan ertain ori, zein ete da?* Langileak esku artean darabilan gaya ta lantegia zelakoak diran, langilea bera nor dan gomutau ezkeru, edozein gauza egiteko bear dan lana, luze edo laburragoa izan daitekela argiro ikusten da. Lanik luzeena ta laburrena alkarrekin batu, kopurua erdibitu ta gizarte lan ertaña orixe dozu.

Esaterako: langile trebeak lau orduan ondo egin daike lanerako, beargin traketsak zortzi bear baditu, gizarte-lan ertaña, sei orduko lana da. Gauzak truketako nai diru-ordez saltzeko dauken balioaren iturri bakarra, orixe gizarte-lan ertain ori zala irakatsi eban Marx'ek: baño ori ezta egia, urrik emon be. Gauzea egiteko erabili ta sautu bear dan lan-indarra gauza orren balioa neurtzeko aintzat artu bear dala len esan dogu ta orain barri-oro diñogu; baño ori bakarrik, ezelan be ez.

Egindako gauza ori gizonentzat bearrekoa nai onuratsua dan ala ezta be kontuan artu bear da. Egiz bearrekoa ta onuratsua izatea be ezta beti naiko, gauzeari balio geyago emoteko. Ura ta eguratsa bearrak eta onura andikoak doguz; baño ugari be ugari dagozalako, urak eta eguratsak nai saltzeko nai beste gauza baten ordez truketako balio gitxi dauke. Au dala ta, gauzea ugari ala urri dagoan be aintzat artzekoa da, orren balioa neurtu al izateko. Arribitxiak urreak baño geyago balio dabe; urreak zidarrak baño geyago, zidarrak burdiñak baño geyago. Zergaitik? Ederragoak dira-

(61) Ongatxa: Heldu gabekoa.

lako? Baleiteke; baña batez be arribitxiak urrea baño, urrea zidarra baño, zidarra burdiña baño urriago, eskasago dagoalako.

Gauzea salgai ta opaka askok badarabile ta erosleak gitxi badira, ge-yagoko barik be gauza orren balioa jatsi egiten da, eta bestera, erosi nai dabenak asko ta opatzen dabenak gitxi badira, berealaxe salneurria goruntz doa. Ori egunero dakusgun gauzea data, bere senean dagoan iñok ukatu ezin leikena. Gauzen balioa neurtzeko gizarteko oiturak eta gizonen kasketaldiak be aintzat artu bear dira. Jostunik antzetsuenak XVI mendean oitzen ziran lako soñekoa josiko baleu, soñeko ori apañenatarikoa balitz be, untzean eskegita eukiteko nai dauanen bat edo agertu ezik, erdi debalde be iñok eleuskio erosi gurako.

Truketako aldiña edo *valor en cambio* deritxoena langilearen lanetik bakarrik datorrela, guzur biribila da. Marx'ek guzur ori egin eban bere irakaspen guztien oñarri, eta oñarri oker eta txarra ipiñi ebalako, ondoren oker eta txarrak atera ebazan, urrengoan ikusiko dogunez.

XII

Marx'en eretxi ta irakaspen okerrak

Ondasun eta irabazkien iturri bakarra lana da —ziñoan Marx'ek.— Lanaren bidez egindako gauzak, gizonen bearrizanak ornidu ta betetako dauken egokitasuna, gauza orrein *valor en uso* orixe da; baña orrezaz gañera gauza batzuk beste batzuen ordez truketako, nai diru-ordez saltzeko be, gai eta egokiak dira. Gaitasun edo egokitasun oni *valor en cambio* deritxogu, ta gauzai orretarako dauken balio guzti-guztia langilearen lanetik datorkie. Au guzurra dala lenago azaldu ta adierazo dogu. Marx'ek bere ustariaren oñarritzat guzur ori artu eban eta ortik ondoren ustelak atera.

Gauza batzuk beste batzuen ordez truketeak, nai diru ordez saltzeak, berez gauza orrein balioa ezin geitu leike —ziñoan Marx'ek. Trukean artzen dan gauzea nai onen ordezko dirua, emoten danaren ordaña da ta; bataren balioa bestearen bezenbat izan oi da ta, orretan truketzaiileak nai salerosleak irabazpiderik eztauke, zuzenik beintzat.

Ori ta guzti be, domudunak, ola-jaun, lantegi-jabe ta salerosleak irabazpen gizenak lortu ta dirutza andiak egin daroez.

Zelan izan daiteke ori?

Marx'en eretxiz, pizti gaizto orreik, zetan ezuala, guzurrez eta maltzurkeriz gauzen aldin edo balioa geitu ta goratu egiten dabe, eta maltzurkeri orren bidez euren irabazpenak geituaz, aberats okitu egiten dira. Ori orrelantxe dala erakusteko asmuz idatzi eban Marx'ek *Domua* (El Capital) deritxan bere liburua.

Marx'ek bere eretxi ori, zelan azaltzen ete dau?

Lan indarra be —ziñoan Marx'ek— aspaldian beintzat saldu-erosian dabil, eta beste edozein saleroskiak lez lan-indarrak be aurrerago aitatu doguzan aldin edo balio biak daukaz. Lan indarraren *valor en cambio*, egin-dako gauzan sartu ta ezarri bear izan dan gizarte-lan ertaña da: argiroago esateko, langileari, onek erabili ta sautu dauan indarra birregiteko, ugazabak damotsan (62) alogera da, langileak aloger orregaz jan, edan eta bere indarrak barriztau bear ditu ta; baña lan-indarrak orrezaz gañera badau *valor en uso* deritxoguna be. Au langileak berezkoa dau, bape etxako kosta; baña ugazabarentzat irabazpide-iturri yori ta ugaria da.

Esan nai dodana auxe da: lan-indarrak gazizan gauzai berak daukan baño balio andiagoa emoten daki, orretarako almena dauko: almen au langilearena da; baña ugazabak malmuzkeriz (63) beretu egiten dau, eta one-lan iñoren lepotik aberastu egiten da. Adibidez, irule nai eule dan langileak bost orduko lanaz esku-artean darabilan liñabera nai ariaren balioa ogerleko baten geitu badagi, orrebesteko lantsari edo alogera ondo irabazita dauko; baña ugazabak, bear bada, beste bost orduan lan egiñazoten dau-tso ta amar orduko lan ori ogerleko bategaz ordaindu.

Bigarren aldiko bost orduetan be langileak izerdia atera ta lan-indarra sautu dau; baña bigarren aldiko lan onek langilearentzat baliorik apurrik be eztau euki; guztia ugazabarentzat izan da, ta iñori «eskerrik asko» be esan barik, polito-polito sakelean sartu dau. Marx'en balio bi daukaz; orren *valor en uso* langileak erabili ta sautu dauan lan-indarra da: *valor en cambio* ugazabak beargiñari damotsan alogera.

Langileak egindako gauzeak be balio bi ditu: orren *valor en uso*, zetarako egiña izan dan eta atarakoxe daukan egokitasuna da: *valor en cambio*, beste gauzaren baten ordezkauk nau diru-ordez saltzeko daukan balioa. Bigarren balio au Marx'en eretziz, langilearen lanetik eta ortik bakarrik datorkio; baña ugazabak lanaren ordezkauk ogerleko bat emon eta langileak egindako gauzea ogerleko bian (eta bear bada geyagoan) saltzen daki.

Langileai, egindako gauzan sartu eban lanaren balioa ordaintzea zanean, balio ori ogerleko bat baño etzan, eta langileak egindako gauzan sartu eban lan berori trukauk nau saltzen danean, orduan ogerleko bi da orren balioa. Au maltzurkeria ezipada, munduan eztago maltzurkeririk, Marx'en eretziz.

(62) Damotsan: Emoten deutsa, ematen dio.

(63) Malmuzkeriz: Maltzurkeriz.

Eta salneurri-gaña edo «plus valia», zeri deritxo Marx'ek?

Langilearen eskuetatik ogerleko baten urten zan gauzea, ogerleko bi ta bear bada, geyagoan saltzen dabe ugazaba, ola-jaun, lantegi-jabe ta salerosleak. Langilearen eskuetan ogerleko bat baño balio ez eban gauzeak, ugazabaren eskuetara ezker ogerleko bi, zer dala ta balio ete ditu? Salneurri-gaña gauzen balioa orrelan goratzeari eritxon Marx'ek. Eta ori baño be txarrago dana —esaten eban—, salneurri-gañok domudunen (64) eskuetara doaz beti eta onela aldi laburrean asko larregi aberastuten dira.

Marx'en irakaspenok egiak ete dira?

Ugazabak sarritxu euren langileai zor yaken besteko alogerik eztau-tzela emon, iñok be ezin ukatu daike, Aita Santuak be ori bein baño sarriago irakatsi dabe ta; baña Marx'ek bere asmuetarako arira etorkiona sarriegi aitutzen eta oker etorkiona polito estaltzen baekiala be esan bear dogu, au be egia da ta. Gauzak truketako nau diru-ordez saltzeko daukan aldin edo balio guztia, zeatz eta osoro, langilearen lanetik etorkiela; orixe ipiñi eban Marx'ek bere irakaspen guzti onein oñarritzat: baña oñarri ori guzurra da ta, Marx'ek ortik eratorri ebazan ondorenak be guzurak izan bear.

Eta izan be, ugazabak langileari, beronen lana egiteko, emon dau-tszan gayak —diranak dirala—, baliorik ez ete dauke? Ugazabak bere ola nau lantegian daukazan tramankulu, bulzkin eta makiñak, balio bakoak ete dira? Lantegia zuzen ibili dadin, ugazabak artu bear dauan ardurea, txakur txiki bategaz ordaintzekoa ete da? Ola ta lantegian egindako gauzak saltzeko, bein baño sarriago datorkiozan buruausteak, txanpon zar bat be ez ete dabe balio? Galtzeko arriskua be bein baño sarriago izaten da; arrisku ori be aintzat artzekoa ez ete da? Lantegitik urteiten diran gauzetan Marx'ek alde bat baño ez eban ikusi; langilearen lana. Begietan lausoa eukalako edo, aintzat artu bear diran beste asko, ez ebazan ikusi; origaitik Marx'en irakaspenetan, egia urri.

(64) Domudun: Kapitaldun.

XIII

Karl Marx'en iragarpenak

Esku lanez egindako gauzak truketako nai diru-ordez saltzeko dauken aldin edo balioa, langileak erreitan sartu ta ezarri bear izan dauan gizarte lan ertafiarena bestekoa da, ez andiagoo, ez txikiagoo. Marx'ek bere irakaspenen oñarritzat orixe ipifii ebala bein eta birritan esan dogu.

Marx'ek ortik atara ebazan ondorenak eta egin ebazan iragarpenak, zeintzuk dira?

Salneurri-gain edo *plus valia* guztiak —ziñoan Marx'ek— ugazabak malmuzkeriz eskuratzen dabez. Onelan egunerik-egunera aberatsago egiten dira, eta domukeria (kapitalismoa) da munduan nagusi. Dirua parra parra irabaziaz, ugazabak ola ta lantegi barriak errez egiten dabez: lantegi erreitan gero baño gero langile geyago darabilez. Langile geyago ta ugazabak eskuratzen dabez salneurri gañok be geyago. Ugazabak langileai damotsen alogera txikiago ta aen irabazpidea, aundiago. Emakume ta mutikoak lantegietan sartuaz be, ugazabak salneurri-gaiañak goratu ta ugaritu egiten dabez, eta onelan baztarrak guztiak irabazi ta eskuratzeko bidea daroe.

Onen ondorenak zeintzuk izango ete dira?

Ugazaben joko txar onek ondoren izugarriak ekarriko ditu, Marx'en eretxiz. Domu txiki guztiak irunsi ta lureko ondasun guztien jabe domukeri andia egingo da, aldi gitxi barru. Salneurri-gain guztiak gero baño gero esku gitxiagotan batuaz, domukeria izugarrian aziko dala begian aurrean dago. Domukeria aziaz, gero baño gero ola ta lantegi andiagooak izango dira: ola andiok beste enparauak, txikiagoak zearo zapalduko dabez, eta onelan domu txiki guztiak irunsi be bai. Marx'en ustez, ibilian ibilian burrukari bi baño eztira geldituko: domukeri andia ta langile aldra izugarri. Domukeria andiago ta domudunak gitxiago —diño Marx'ek—,

ondasunak urregorik-urregora esku gitxiagotan batuaz joango dira ta; beste aldetik, domukeriak langileen odola edanago ta munduan txiro edo pobreak ugariago.

Orduan zer jazoko ete da?

Marx'en ustez, egundo munduan ezautu eztan besteko ondarena. Bere burua igarle etsirik, Marx'ek iragarpenak egin ebazan: lurreko ondasun guztiak adu oneko aberats gitxi batzuen eskuetan batuko dira, ta mundu edo gizadia gero baño gero txiro, lander edo pobreago izango da. Marx'ek iragarpenok egin ebazanetik ona, ainbat urte igaro ta igazi dira; baño arek iragarri ebanik ezta jazo. Marx'en iragarpenok egiak izan balira, lurreko ondasunok esku gitxitan batze ori egin zen onezkero, ta aberats okitu bakanok izan ezik, enparau guztiok langile txiro ta arlote baño besterik ezkintzakez izango. Ori orrelan ezta edonok daki.

Domukeria, bai, azi ta geitu da, ta beste inon baño geyago Ipar-Amerika'ko Laterri-Batzen (65); baño ain zuzen be domukeria beste inon baño geyago azi dan erri aretan, domu txikia be beste inon baño ugariago dago ta erriaren bizibide-mailea beste inon baño gorago. Ola ta lantegi andiak ipiñi ta erabilteko bear dan domutzea, sakel askotako dirua izan oi da ta, irabaziak be askoren eskuetara doaz. Onezaz gañera, ola andien jabeak askotzak irabazten dabezanean, lantegi txikiagoen ugazabak be biziteko lagin baño geyago irabazi daroela, orain arteko jazoerak argiro diñoskue.

Beste gauza batzuetan lez, onetan be, Marx igarle ustela izan da. Ori ta guzti be, gizon txepetx batzuek Marx zalako ori igarle anditzat dauke. Oraindik sei ilabete eztirala Aldama deritxon batek *Sozialista*'n esaten eutsen gure baserritarrai: «Gure baserritarrak akulua erabilten ezeze, besterik be ikasi dabe: Marx igarle andiaren abotsa ta deya entzuteko aldía etorri yakela uste dabe». Gure baserritarrak Aldama [(1)*] nor dan bai-edo dakie: Marx nor izan zan, bear bada, inoz eztabe entzun. Marx'en iragarpenok origaitik azaldu dodaz, sozialistak ainbeste bidar aitutzen daben buru ta maixu au igarle txarra ta guzur-zalea izan zala baserritarrak be jakin dagian.

(65) Ipar-Amerika'ko Laterri-Batzen: Ipar Ameriketako Estatu Batuetan.

[(1)* Jaun onek arrezkero besterik be esan dau: maizterrak (errentadoreak) legez eta bidez bakoxta bere etxaldearen jabe izateari ondo deritxola adierazo dau. Katalunya'ko rabassaires' i zorionak bialduaz. Au, ziñez, Marx'en irakaspenen aurka dago ta, Aldama jaunaren asmoak zeintzuk diran jakin be eztakigu «e.o.»]

Ola-jaun, lantegi-jabe ta salerosle aberatsok, alkarri, zein-geyaoka, egingo dautsen guda ta burrukeaz —diño Marx'ek— gitxituaz joango dira ta azkenerako amar-amabi baño geyago eztira izango. Lurreko ondasun guztiak euren eskuetan batu dabezan aberats okituok ain gitxi izango diran ezkeru, zer kostako yake langileai aberats orrei daukena kentzea? zer, aberatsok ankaz-gora jaurti ta bilosik iztea? Onelan domukeria —diño Marx'ek— sagar eldua lez, bere astunez jausiko da lurrera.

Eta orduan zer?

Orduan langileen agintaritze, obeto esateko, langileen nauskeria etorriko da: langileak estaduaren jabe egingo dira ta aberaskume guztiak buztaria ezarriko dautse. Orain arte —ziñoan Marx'ek— domudun aberatsen alde egon dan estadia, langileen zapaltzale izan da. Estadia gero be zapaltzale izango da; baño ugazaba ta aberatsen zapaltzale, langileen alde.

Ori lortu al izateko, gudua bear zala ta, Marx'ek langileai gudu zantzua jaurti eutsen; gizarteko mailak eratsi ta bardintzeko, eten bako burrukea bear zala ta, Marx'ek langileai eten bako burrukara dei egin eutsen, esanaz: Domudunok lapur andi batzuk dira: erri leunari, langileai, sarritan egindako lapurreten bidez, geldika-geldika ondasun andi-andiak batu dabez. Lapur orrei batu dabezan ondasunok kendu ta orren jabe dan gizarteari biurtzea, zeregin errez eta laburragoa izango da. Eta egin bear dana orixe da —ziñoan Marx'ek.

Eta ori, zelan egin daiteke?

Ori ondo egiteko eta domukeria gizartetik bein-betiko kentzeko, bide bat baño eztago, Marx'en eretxiz. Gizon bakoxtari ezeren jabe izateko eskubidea errotik ebagi, ta edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe estadia egiñaz, asmu ori lortuta dago: orrelan domukeriak ezingo dau egundo bururik jaso, ta lurreko ondasun guztien jabe langileak izango dira. Marx'en esan au sozialistak ao-miñean erabili oi dabe; baño guzur biribila da. Estadia gauza guztien jabe egin ezkeru, esku-bide ta aukera guztiak agintari ta onein ordekoenak dira: eginbear, neke ta lan guztiak, enparauenak: agintari ta enpleauak ugazaba andi, enparau guztiak orrein morroi txiki. Estadia aberats, gizon bakoxta txiro ta arlote. Estadia baño biotz gitxiagoko ugazabarik ezta ezautu: onen morroi izatera letorkezan langileen errukarri.

XIV

Marx eta Lassalle'k, alkarren antzik ba ete dauke?

Biok ziran jayotzaz doixtarrak, odolez judarrak; biok aroideak (66) eta biok gizartekeriaren irakasle ospatsuak; baña bakotxa bere bidez ibili zan ta, bizikeran alkarren antz gitxi dauke. Marx'ek liburutzar andian idatzi ebazan domukeriaren okerrak eta gizartekeriaren obari ta mesedeak adierazteko asmuz; Lassalle'k ez eban askorik idatzi, baña etorri ederreko izlaria zan ta, langile-aldra andiak irakiten bai ipiñi ebazan bein baño sarrago.

Ondasunetzazko goraberak ikasten ekin eutsan Marx'ek: Jaun onen liburuak —*Domua* deritxonak batez be— gai orretzaz diardue ta Marx'en irakaspén guztiak, apainduri ta edergailuak kendu ta bilosik itxi ezkeru, Proudhon'en esan onetara datorz: *Yabetzea, lapurretea da*. Aberats, lantzale, bizkor, argi, andinai, gereka ta pixka bat uzu (67) ta basati zan Lassalle: biotz eta kemen andiko gizona, izlari bikaña, entzulak ara nai ona erakarri ta erabilten ekian eletari gartsua. Bere bizitzako azken urteak batez be doixtar langileai gizartekeria irakasten, onein biotzak aberatsen aurka gorroto sutan ipinten igaro ebazan Lassalle'k, maitamiñak ekarritako burruka zoroan il zan arte: baña Lassalle doixtar abertzalea zan: Marx ostera —berak ziñoanez— lur zabal guztia baño beste aberririk ez eukan gizona.

Eretxi onegaz batera munduko langile guztiei dei-egin eutsen Marx'ek, gudu-zantzo au jaurtiaz: «Domukeria, orra or, langileak, zuen arerio ankerra. Ori eratsi ta zapaltzeko, erri guztietako langileok alkartu

(66) Aroideak: Contemporáneos.

(67) Uzu: Ikarati.

zaiteze». «Mugak, zetako dira? Gizartera asarre ta guduak ekarteko baño bestetarako eztira ta, eratsi daiguzan mugak, luzatu dayoeguzan alkarri eskuak, guztiok alkarren anai gareala autortu daigun»: olako gauzak idatzi ta irakatsi ondoren, lur zabal guztiko langileak bazpatzean alkartzeko asmua artu eben Marx'ek eta onen jarraitzaileak. Langileen Alkargo onei enderritarteko (68) bazpatzak deritxoegu.

Marx'ek eta onen jarraitzaileak asmau ta irazan (69) dabezan enderritarteko bazpatzok (internacionalok), zeinbat eta zeintzuk izan ete dira?

Sozialista eztiran olako bazpatz batzuk: Alkargokeri-zale edo Sindikalisten enderritartekoa, zuriena ta oriena deritxoenak be badira; baño oneik alde batera itxirik, marxistarrak sortu ta irasi dabezan enderritarteko bazpatzak aitatuko doguz.

Lenengo enderritartekoa norena ta noztik onakoa ete da?

Lenengo enderritarteko (internacionala) Marx'ek eta onen adiskide ta lagun andi zan Engels'ek sortu eben, eragozpen andiak garaitu ta gero. Aizkide biok olako zerbait egiteko asmua 1847'garren urtean artu ebela dirudi; baño oraindik labea ez egoan ogia erretako gertu ta, asmua aurrera eroatea gerorako itxi bear. 1862'garren urtean asmu onen adierazleak bialdu ebezan enderri askotara, gauzea gertu ipinteko. Urte bi geroago doixtar, pantzetar, englandar, suizar, belgikar eta poloniar langileen ordezkariak batzandu ziran London'dik ur dagoan Saint Martins Hall uritxuan eta araudia zuzenetsi ta ontzat emonaz, lenengo enderritarteko bazpatzaren oñarriak antxe ipiñi ebezan. Urte bi geroago, 1866'garrenean, araudi ori barriro ontzat artu zan *Geneve*'ko batzarrean.

Zenbat irauñ eban enderritarteko bazpatz onek?

Ezin gitxiago. Mugak eratsi, Kisto'ren legea alde batera itxi ta anaitasun maitakorra gizaseme guztien biotzetan sartu bear zala ta, asmu orregaz lanean asi ziran marxistarrak, oka ta porrot egin eben laster. Lenengo ta bein, Bakunin eta beste batzuk Marx'en aurka jagi ziran, nauskeririk etzala

(68) Enderritarteko: Nazioarteko.

(69) Irazan: Crear.

bear ta: onelan lenengo enderritartekoari kurubioak (70) kolkora bota baileutsezan lakoxe lazkea (71) sortu zan aren barruan; baño 1870'garren urtean etorri zan guduak, pantzetar eta doixtarren arteko guduak batez be, enderritarteko lenengo bazpatz orri ez eutsan azur osorik itxi. Gizonaren biotzak berez zer emon daiken ikusteko, aldi labur ori be naiko izan zan: langileak alkarren aurka gudura joan ziran: guduak gorrotoa ekarri eban eta langileak gudu ostein len baño be bananduago gelditu ziran.

Bigarren enderritarteko bazpatza, non eta noz sortu zan?

Bigarren enderritartekoa Paris'en sortu ta jayo zan 1888'garren urtean. Bigarren onek bere irugarren batzaraldia Zurich'en egin eban 1893'garrenean. Alkar ezin aituta, eztabaida ta lazkea sortu ziran batzar aretan; azkenez ezkertar geyegikeri-zaleak jaurti egin ebezan bazpatzatik eta barruan gelditu ziranak, gizartekeri aldakoi, otzan eta gazagoa, Marx'enaz zer ikusi andirik eztaukan gizartekeria, obetsi eben.

Bigarren enderritarteko onek luzaro irauñ ete eban?

Iturrira sarri doan pitxarrarena jazo yakon bigarren enderritarteko oni be: arri jo ta apurtu. Jo eban arria, 1914'garren urteko gudua. Gudu aretan Europa'ko erririk geyenak sartu ziran, batzuk besteen aurka, ta langileak be lentxoago alkarri esandako maitakeri ta koipekeriak zokondora jaurti ta, txakur-katu izan bailiran, burrukan ekin eutsen luzaro. Onelan enderritarteko bigarren bazpatzari be ardatza ausi yako, eta burdia luperian sartuta gelditu zalako, 1915'garren urtean beste bazpatz bat sortu ta irasi nai izan eben Suiza'n, Lenin eta Trotsky barruan zirala.

Asmu au aurrera eroateko aldi egokia be etzala ta, gerorako itxi zan; baño enderritartekoarenak egin ebala asmu orrek argiro diño. Gudua amaitu zanean, zelan edo alan berbiztu egin bear zala ta, banandutako atal batzuk batu ziran eta enderritarteko Alkargo-Batzarren izenaz, Amsterdam'en daukoz bere erdoki (72) ta egoitza. Estadu bakotxetik langile-alkargo bat baño ezin sartu daiteke Amsterdam'go bazpatz orretan eta España'tik Langilen Batz-Orokarra da ango bazkide. Guztien buru, omen eta entzutez beintzat, VanderVelde, beljickarra dala dirudi.

(70) Kurubioak: Avispa.

(71) Lazkea: gatazka.

(72) Erdoki: Lugar, centro, punto medio.

Irugarren enderritartekoa, noztik onakoa ete da?

Irugarren enderritartekoari gorria deritxoe; bere burua lenen 1905'garren urtean agertu eban Errusi'ko eun-ola baten; gero iltzat egoan; baña 1919'garrenean berbiztu zan, Lenin eta onen lagunak emondako arnaseaz. Moskou'n, Kremlin jauregian ospatu eban bigarren batzaraldia ta irugarren enderritarteko bazpatz onetan sartu nai daben langile-alkargo guztiai ogetabat baldintza ertsi ezarri ta beteazoten dautsez. Ainbat erritan langileak banatu ta alkarren aurka ipiñi ditu, eta Errusi'ko nauskeriari eskerrak, itxaron zeiteken baño indartsuago bizi da.

Egitarau edo programak geyenez Marx'en gogai, burubide ta ertxiak azaldu dabez. Egitarauok iru dira: Gotha, Erfurht eta Vürzburg'oa, zeazketaen batzuetan edo izan ezik, enparauetan irurak alkarren antzekoak. Enderritarteko Bazpatz oneik gizartean anaitasuna zabaldu ta sendoagotzeko asmuz ipiñi ei dira. Asmua txarra danik eztiñot; baña Jau-naren legea zokondora jaurti ta enderritarteko bazpatzok ipiñi ziranetik ona anaitasunean aurreratu ete gara? Abere gaiztoa da gorrotoa ta aspal-dian gorrotoa da nagusi. Enderritarteko orreik, zer ekarri dauskue? Barri-keta asko ta gauza on gitxi.

XV

Gizartekeri gazea (73)

Gizartekeri gazarik, ba ete dago?

Marx'en eta onen jarraitzaileen gizartekeri edo sozialismoa, garratz eta gaziegia dala ta, pixka bat baño geyago gozatu nai izan dabe batzuk. Oneitarikoak dira Macdonald englandarra ta de los Rios españarra. «Trade Unions» deritxon England'ako langile-batzak gizartekeri-irakaskintza berezirik eztabe eurakandu: ola, lantegi ta meatokietako beargiñen alde egitea, langile-batza aen asmua batez be orixe da, orretarako aldi bakotxak eta onen zertzeladak eskatzen dabenez jokatuaz; baña gizartekeria oñarri-tzat artu barik.

Marx'en gizartekeriak, England'an jarraitzaile asko ete daukaz?

Marx'en irakaskintzak ara be eroan dabez; baña ezin izan dira bertakotu: doitzerritik (74) eroandako landara orrek an ezin izan dau indarririk artu. Orraitik be gizartekeria naikotxu zabaldu da an be; baña gizartekeri onek Marx'enaz zerikusi andirik eztauko: askozaz be gazeagoa da: Marx'enaren ondoan ur-epela dala esan geike. England'an gizartekeri-zale alderdiaren buru Ramsay Macdonald bakaltseña (75) da. Jaun onek «Gizartekeria» deritxon liburu bat idatzi eban eta gai onetzaz dituan aburu ta ertxiak antxe agertu ta azaltzen ditu.

(73) Gizartekeri gazea: Sozial demokrazia.

(74) Doitzerritik: Alemaniatic.

(75) Bakaltseña: Ministro del Rey.

Eretxirik nagusi ta gailenenak, zeintzuk ete dira?

Macdonald gauza askotan eztago Marx'egaz: onen gaikeri edo *materialismoari* txarto deritxo. Gizartearen zirkin eta igikun guztiak ogasun-egarriak eragindakoak izan dirala ta beste aldakuntza guztiak be orrexeri zor yakozala: gizartearen edesti edo istorian aldi batak bestea, aurrerago-koak urrengoa adurrez, alanbearrez, nai ta nai ez ekarri dauala; eretxi oneik nozbait eta nonbait gizartekeriari indarra emoteko izan badira be, Macdonald'ek egiak direanik eztau uste. Gizartekeria kistar uskurtzaz (76) edo erlejiñoaz alkartu leikela uste dau, oster, Macdonald'ek; baña orretzaz Aita Santuak besterik diñosku. Gizonaren elbururik gorenena Jaungoikoa dala diñosku geure siñiskuntzak: gizartekeriak, oster, gizonaren elburu ori edo zearo ukatzen dau edo aintzat be eztau artzen: ori dala ta, gizartekeria, benetako gizartekeria bada, katoliku siñeskuntzeaz ezelan be ezin alkartu leike, diño Aita Santuak.

Gizon bakotxari bere gauzetan daukan jauntzea nai beste batzuen jabe izateko eskubidea, kendu bear ete yako?

Marx'ek bayetz diño; Macdonald'ek, ezetz. Lugintza ta ola-ekin-tzako domuak gizon nai lagundi bakotxaren eskuetan dagozala, zuzen eta gizartearen onen ezin erabili leikezala ta, olako domuak gizartearenak izan bear dabela uste dau Macdonald'ek; baña orretarako bakotxaren jabe-tzea kendu bearrik ez ei dago; zerbaiten jabe izatea, gizaseme guztien ames, asmu ta guraria dan ezker, bakotxaren jabetzeari eutsi ta iraunazo egin bear ei yako. Lanaren irabaziaz lez domu etekiñiak (errentez) bizitza be baldintza bigaz laketu leikeo gizonari, Macdonald'en eretxiz. Baldintza biok onexek dira: ez arranditsu (77) ez lander ta bai itxura baten bizitako lagin emon bekio, ta emoten yakan domu etekin ori gizarteari egindako mesedeen ordaña izan bedi. Jarauntzi edo erentzia be zearo kendu bearrik ez ei dago, neurrira ekarte naiko ei da ta. Nai jabetzeak nai jarauntsiak gizartearentzat kaltegarri dan zerbait eta mesedegarri dan beste zerbait ei dauke: kaltegarri dan ori kendu bear ei da ta mesedegarri danari bakean itxi. Bardintasun osoa ames utsa baño ez ei da ta, atzamarrak alkarrekin dauken antzeko bardintasunaz naikotu bear, nai ta ez, gizartekeri-zaleak be.

(76) Uskurtza: Religiön.

(77) Arranditsu: Handinahiko, azantzu.

Eta gizonaren aukeramen edo askatasunetzaz, zetan eta gara?

Marx'en gizartekeriak gizonari bere aukeramen edo askatasuna eba-gi ta moztu egiten dautso: gizon bakotxa gizartearentzat egiña ei da ta, gizartearen onean aukeramina moztu bearrean ei dago gizona, estaduak izentau dagion lana egiñaz eta emon dagion alogera ixil-ixilik artuaz. Macdonald'ek gizonaren aukeramina gitxitze orri txarto deritxo. Gizonok geure emaitzik ederrena aukeramina dogun ezker, orren aurka ezertxu be ez ei da egin bear; bestera, aukeramen ori sendoagotu egin bear ei da, erri-ke-ta-askatasunari ogasun-jabetzeak dakarrena erantsiaz. Ugazaba ta langi-leen arteko burrukarik be ez ei da bear. Burruka ori sozialista atzeratu-en leloa dala diño Macdonald'ek. Gizadiaren zuzentzaile izan nai dabenen elburua, estadu baketsu ta zoriontsua dan ezker, zuzentzaileok asmu eta jakitez orraxo jo bear ei dabe; baña mailen arteko burrukeak ori galerazo egiten dau ta, alde batera itxi bear ei da. Gizartekeriak matxiñada-zale be eztau izan bear, Macdonald'en eretxiz: matxiñada barik, lege egokiak emonaz, gizarteari oberantz eragin bear ei yako. Lurreko ogasunak gizo-nen artean zuzenago banandu, domu edo kapital andiegiak galerazo, jabe-tza txikiei iraun dagien eta azi daitezcan erretzasunak emon, eta alogerekoak be zerbaiten jabe izateko bidean ipiñi bear ei dira.

Baña oneik gauzok Macdonald'ek baño lenago, ez ete ebazan XIII Leon Aita Santuak esan eta irakatsi?

Bai, «Rerum Novarum» deritxon Idazkian Aita Santuak orreik gau-zok argi ta garbi diño. Orduan Macdonald'en irakaspenak Aita Santuare-nakaz batera ete dagoz? Aitatu doguzan oneik bai; baña beste asko ez. Macdonald'en bein-beñeko asmua gizarteko auzi andi oni beronen garraz-tasuna kendu edo beintzat gitxitzea dala dirudi; baña azken elburua, gizar-tekeria: Marx'ena baño motel eta gazagoa, baña gizartekeria.

Domukeri edo kapitalismoak jaukitako utsak, egindako okerrak, ekarrirako kalteak, orreik bai argi ta garbi azaltzen dauskuz Macdonald'ek: domukeria erasten diarduanen, langile antzetsu ta trebea agertzen yaku; baña gero gizartekeria jaso ta eregi nai dauanean, bere trebetasuna ori gal-du egiten dau: gauzak luzegi, ilun eta zeaztasun barik azaltzen ditu, ta, ba-tez be, diñoana onegiten eztaki. Gizartekeriaren irakasle guztien gexoa da ori; iñok egindako etxea erasten ba dakie; baña etxe barria iragiteko tayu ta ganora gitxi. Dana dala, ainbeste egi garratz ta gauza zuzen esan ta ge-ro, Macdonald, uste ezkenduanen, gizartekeriaren alde agertzen yaku:

ogasun ekarkor guztien jabe gizartea; edozelako ogasuna ekarteko gai ta bide diran oroen jabe, estadia: Macdonald, ibili ta ibili, azkenean orraxe doa. Egiz, Macdonald'ek, bein eta birritan diñoskunez, ugazaba eredu izango dan estadia, estadu ezin obea nai leuke; baña olako estadia gatxa baño gatxagua da. Orain arte estadiak urdail andia, biotz txatxarra ta esku latza euki dabez: ori gauzeak berez dakarrena da ta, aurrerantzean be olantxe izango da, Macdonald'ek uste ezarren.

Ramsay Macdonald'en antzera Fernando de los Rios'ek be Marx'en gizartekeria gozatu nai leuke, aberats eta erdi aberatsak ikaratu eztaitez an edo. Izan be, Marx'en jarraitzaileak ao-miñean darabilen gizartekeria, ez bakarrik zerbaiten jabe dirantzat, baita ezeren jabe izateko uste ta i-txaropena daukenezat be gazi ta garratzegia da. *El sentido humanista del socialismo* deritxan liburuan azaltzen dauskuz de los Rios jaunak gai orretaz dituan eretxi nagusienak. Doitxerrian ikastaro berezia egin ebala esateko dauko. An asko ala gitxi ikasi eban eztagu; baña bere gogai ta eretxiak doixtarrak baizen ilun eta ilunago adierazten ikasi ebala jakiteko, liburu ori irakurtea naiko da; bein baño sarriago zer esan nai dauan susmateko alak eta lerrak egin bear dira ta.

Gure uskurtz edo erlejiñoaren aurka ez tiran gauzak, guzurak, sarritxu diñoaz, erlejiñoa bear dan lez iñoaz ikasi eztaualako edo. Lenengo iru mende edo eunkietako (78) kistarrak begikoago yakoz jaun oni, gerokoak baño. Nai ta ez siñestu bearreko eskutuki edo misterioak irakasten Nizea'ko Batzar Nagusian, 325'garren urtean, asi ei zan Eleizea: ori egiñiaz kistarrak zearo bidekatu ei ziran; aurreragoko bide zuzena itxi ta bide okerrearan sartu. Ori esanaz, zer adierazo nai ete dausku? Aurreragoko kistarrak siñeskuntzako egi ta eskutukiak siñestu biarrik ez eukela edo adierazo nai dausku jaun orrek; baña, gogoak emoten dautsala ta beste barik, ori diñoan, uskurtz gauzetan txakurrak eunetan baño geyago eztaualako, orixe adierazten dau. Fernando de los Rios sozialistea dala esan bearrik eztago: ori liburuaren izenak berak be argiro diño, baña gizartekeria adikor, onbera ta guztientzat maitagarria nai leuke, alogerekoak ezeze ugazaba ta aberatsak be gizartekeriaren sare barruan sartzeko asmoz.

Uskurtzari buruz de los Rios'ek gauza zuzenik eztiñoala esan dogu: enparaueetan zuzen ala oker ete dabil?

(78) Eunkietako: Mendecetako, gizaldietako.

Macdonald'en antzera jaun onek be Marx'en garrakeriak txarresten ditu: soin-gayaren emaitzak baño gogoarenak eder eta bikañoagoak dirala ta, Marx'en gaikeri (materialismo) zarpailak de los Rios'i iguin emoten dautso: bakotxaren jabetzea be zearo kendu bearrik eztagoala diño. Jabetza orretaz zer adierazo nai dauskun, ezta beti argiro ikusten, nas-teak darabiltz ta. Beste aldetik jaun au gizartekeri-zaleen batzarretan be izaten da: bakotxaren jabetzea kendu egin bear dala; edozelako ogasunak ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe gizartea ala estadia egin bear dala; batzarkideak olako gauzak diñoezanean eta batzarrak erabagi ori artu arren be, de los Rios'ek ixilik egoten daki, erabagi orren aurka ezertxu be esan barik; au dala ta jaun onen eretxi benetakoa zein dan ezta errez igarten. Dana dala, bakotxaren jabetzea zearo kendu bearrik eztagoala aitaturiko liburu orretan bein baño sarriagotan diño: Macdonald'en baldintzen antzekoekin domu-etekiñez biziteko ta jarauntsiz zerbaiten jabe egiteko eskubideak be autortzen ditu. Mailen arteko burrukeari be ezteritxo ondo, burruka ori gizadiaren ona egiteko baño gizabatzari kaltea ekarteko obea ei da ta.

Erkalmen (79) edo erri-jaurgo (80) andi ta bikaña, De los Rios'ek nai leuken gizartekeriaren elburua orixe ei da, orrelan gizonai al diran eskubide guztiak emon al izateko: gizabatz on, oso, zuzen eta lantzaleak birregitera, orraxe jo bear ei dau gizartekeriak, era batera guztien eta bakotxaren bizibidea obetuaz. Jaun onek gizartekeria betaurreko dauala, amesetan ikusi dauan gizabatz bitxi ori oraindik ez ei da jayo, erria gizarte-bidean osoro sartu eztaualako; bide orretan sartu ta ortik ibili dadin, irakaskintzea gizartekotu bear ei da, ikasteko gai diran eta gogo dauken guztiei orretarako bideak erraztu ta zabalduaz. Orain arte irakaskintzea aberats tentel askorentzat izan ei da, aberatsak izan diralako beste barik: txiroak, ostera, eskuarterik euki eztaualako, ezin izan ei dabe ikasi. Oker dagozan gauzok gizartekeriak zearo aldatu ta azpikoz-gora ipiñiko ei ditu: irakaskintzea guztientzat izango ei da, txiroenak be eskumendean eukiko ei dabe; buru argia ta ikasteko gogo baño besterik ez ei yako iñori be eskatuko; bakotxak jasa zetarako daukan eta atarakoxe ikasiko ei dau: onelan zeregin bakotxerako gizon jakitun eta bikañak agertuko ei dira ta gizon garbalok (81) gizartea osoro barriztauko ei dabe, iruntzietara (82)

(79) Erkalmen: República.

(80) Erri-jaurgo: República, régimen de gobierno popular.

(81) Garbalok: Jakintsuok.

(82) Iruntzietara: Alderantziz.

dagoana, erara ipiñiaz. Gizarte barri ori ikustekoa izango ei da, akats gitxi izango ei ditu. Gauza oneitatik erdiak gitxienez ames utsak dira; baña ames txarrak direanik iñok ezin esan dagike.

Eta gizartearen okerrak zuzendu ta gatzak osatzeko, zein bide artu bear ete da Fernando de los Rios' en eretxiz?

Orretarako jaun onek bere liburuaren azken-aldean *Gildak* aitatzen ditu: izen ori daroen langile-batzak guztiz begiko yakoz, ezin geyagoan goratzen ditu, ta zabalduko balira, gizartearen izakerea zearo aldatuko leukiela uste dau. Eta *gilda* orreik, zer ete dira? *Gildak* euren kontura lanean diarduen langile batzak baño besterik eztira: diru etxeai nai domudunai dirua eskatu, euneko onenbeste edo ainbestean mailegatu, lanak euren kontura artu ta egin: itz gitxitan esateko, lan-artzaile ta langile batera izan eta bieie dagokiezan irabaziak eskuratu; *gilden* asmu ta elburuak, orrexek dira. Onako langile-batzik aurrerago ez ete da ezagutu? Aldi bateko *gremioak* orrenbeste egiten baekien: geroago be olako langile-batzak izan dira ta gaur be badagoz, zeregin txikietarako beintzat. Egikizun andiagotarako be *gilden* antzeko langile-batzak antolatuko balira, ainbat obe, ugazaba ta langileen arteko auziak gitxituko leukiez ta. Eleizeak orixe nai dau ta, olako langile-batzak bere magalpean artzeko prest dago. Eleizea eztago orren aurka, alde baño; augaitik de los Rios'ek, *gildak* baño besterik nai ezpau, Eleizeatzaz txarto esateko ziorik eztauko. Eleizearen aurka diñozan guzurak, beste zerbaitek eraso dautsaz.

XVI Gizartekeri gaza oneik erlejiñoaz alkartu ete leikez?

Ekarkor diran gauzen jabetzea gizon bakotxari dagokien eskubidea eztala ta, jabetza ori gizabatzak ala estaduak beragandu ta beretu egin bear daua, gizartekeriak orixe diño ta bere oñarrizat orixe dauko. Orraxe jo bear ei da, ta ori lortu artean langileak ugazabakin eten bako burrukea egin bear ei dabe.

Gizartekeriaren alde dagozan geyenen eretxia orixe da; baña baltsakeri edo komunismoaren barrabaskeri ta ondoren txarrez ikaratuta edo, gizartekeri edo sozialismoa bigundu ta gazatu nai leukienak be badagoz. Eten bako burruka orrek mesede baño kalte geyago lekarkela ta, langile ta ugazaben arteko burruka ori lurreko ondasunen banatze zuzenak eskatzen dauan gorrotobako eztabaidara eratsi ta ekarri nai leukie. Ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea gizon bakotxari zearo kendu ta gizabatzari ala estaduari osoro emoteak be, naste txarrak eta oker andiak lekarkezala ta, bakotxaren jabetzea baño geyago ondasun andiak esku gitxitan batzea ta onek dakarren indar eta eskumende larregia eragotzi ta galerao nai dabezala dirudi.

Gauza bi orreitan sozialismua bide zuzenera baletor, langile ta ugazaben arteko burrukea bear dan besteraño gazatuko baleu, ta bakotxaren jabetzea be kendu bearrik eztagoala ta, neurrira ekartea naiko dala autor-tuko baleu: gauza bi orreitan bere eretxi ta asmuak ezetariko akar edo agirakarik merezi eztaben mailaraño eratsi ta gazatuko balitu; gizartekeria erlejiñoaz alkartu al izateko, ori naiko izango ete litzatke?

«Quadragesimo Anno» deritxon idazkian XI Pi Aita Santuak itaun ori egiten dau ta gizartekeria orrañoxe baletor be, gure erlejiñoaz ezelan

be ezin alkartu leikela darantzu (83). Gizartekeria —diño Aita Santuak—, benetako gizartekeria bada beintzat, aituriko gauza bi orreitan egia ta zuzena guztiz eta osoro autortuko baleuz be, gure erlejiñoaz ezin alkartu leiken gauzea da, gizartekeriak eta gure erlejiñoak gizonari ta gizarteari izentaten dautsezan zeregin eta elburuak ezin geyagoan alkarren aurka dagoz ta. Izan be, gure erlejiñoak irakasten dauskunez, gizona gizartean biziteko egiña da; baña gizabatzarentzat egiña ez. Gizon bakotxa ta gizarte osoa be Jaungoikoak beretzat egin ditu: au dala ta, batak eta besteak Egile daben Jaungoikoa aintzat artu ta goresteko eginbearra dauke. Gizon bakotxa, bere burua ornidu ta obetuaz eta bere bizibideko zeregiñak ondo beteaz, lureko eta zeruko zoriona jadetsi dagian, gizartean orretarakoxe dago. Gure erlejiñoak gizonari ta gizarteari izentaten dautsezan elburuak, orrexek dira: gizon bakotxaren elburu nausia, betiko zoriona.

Gizartekeri edo sozialismoak, ostera, gizonaren elburu nagusi ori aintzat be eztaur artzen; auntzaren gaberdiko estulari baño garrantzi edo inportantzi geyago ezteutso emoten. Gizona, gizartean biziteko ezeze, gizabatzarentzat egiña be ba dala, kezka barik irakasten dau: ori dala ta gizon bakotxak gizabatzaren ona egitea baño beste elbururik ez ei dauko, ta gizabatzak be gizonaren lureko zoriona egitea baño besterik ez. Eretxi oker onei jarraituaz, gizartekeriaren irakasle nagusiak erlejiño, ezkontza ta sendi edo familiaren arerio agertu dira, asieran esan dogunez. Beste edozein eretxi okerrek lez —diño Aita Santuak— gizartekeriak be guzurraz nastean egi batzuk ba darabiltz; baña bere-berea dauan ta oñarriztat daukan gizon eta gizarteatzazko uste ta eretxi oker ori, erlejiñoaz ezelan be alkartu ezin leiken gauzea da ta, origaitik katoliku ta *sozialista* batera iñor be ezin izan daiteke. Aita Santuak ori diño ta zer diñoan ondo daki.

(83) Darantzu: Erantzuten dau, erantzuten du.

XVII Gizartekeriaren beste era bat

Alkargokeri edo sindikalismoa nozkoa ete da?

Langile-alkargoak antxiña ta beñolakoak doguz. Asmu ta elburua onak izan diranean, alkargo orreik on eta mesederik asko ekarri dabez; baña oraintsu agertu yakun alkargokeria (*sindikalismoa*), ori baño besterik da: onen asmu ta elburua eztira onak, ez gitxiagorik be. Sindikalismo onen irakaslerik ospetsuena Georges Sorel izan da. Alkargokeri au, orain arte beintzat, gizartekeriaren aurka agertu da, sozialisten barriketak langileai iruzur eta trankart egiteko baño bestetarako eztirala ta. Izan be, *sindikalisten* eretziz, gizartekeriak langileai gauza onik ezelan be ezin legioe ekarri, eta orretan zuzen be zuzen dagoz. Lagardelle'k diñoanez Marx'en gizartekeriak gaikeri, alanbear edo adurkeria ditu bere iturburu, ta *estadu* altsu ta ankerra dau bere elburu; onelan erkal (84) edo erri-jaurgoa usteldu ta zapalduaz, gizaseme guztiak *estadu* orren morroi ta jopu errukarri egiten ditu.

Gizartekeria ustelkeri utsa baño besterik eztala jakiteko —diño *sindikalistak* batean-bestean zer jazo dan gogoratu baño besterik eztago. Gizartekeriaren buru izan diranik geyenak, aberats andi ta beste iñor baño *Burgues* txarragoak egin dira, ta buru nagusi izan eztiran beste zuzentzaileak be, jauntxu garbi agertu yakuz: zuzentzaile-zeregiña itxi ta barriro lengo lanetara biurtu baño urkatu be nayago izan dabe; lapak atxari lez euren *entxufesai* inkata, langileen lepotik biziten ikasi dabe. *Sindikalistak* ori diño *sozialisten* aurka. Orretan guzurrik diñoenik eztot uste: baña eurak nausituko balira, obak izango litzakezañik be ez.

Alkargokeriaren asmuak, zeintzuk ete dira?

(84) Erkal: Errepublikak.

Gaur egunean beargiñen lana aberatsen domuaz (kapitalaz) ezin beste eta indarrez buztartuta ei dago: ori dala ta buztarriean besaka alkarren aurka ibili oi diran idien antzera, domu ta lana be alkarrekin besaka gogorrea ei dabiltz. Indarrez, gura nai gurez, ezarrirako buztarri ori ausi ta, domu ta lana aiskide anzo alkartzeko; gauza bi onekin eskontza aske edo librea, gogozko ezkontza atsegintsua egiteko asmua edi dauko Alkargokeriak. Ezta au, zifiez, auntzaren gaberdiko eztula, egiñen andi ta gatxa baño! Onetarako, lenengo ta bein bizibide guztietako langileak alkartu bear ei dira, idekoak alkarrekin dirala, bakotxa bere sailean: gero, langileak nautitu daitezanean, edozelako ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe alkargo oneik egingo ei dira, gizon bakotxaren jabetzea zero kendu ta.

Nai ogasuna ekarteko nai ekarritakoa banatzeko ardurea langile-alkargo oneina izango ei da ta ez beste iñorena. Alkargo bakotxak, bere eskuko edo bere buruaren jabe dala, enparauen arazoetan sartu barik, bere sailean lanari ekingo ei dautso, ta gizarteak bear dauzan ogasun guztiak erakarteko zeregin andia, guztien artean ondo baño obeto beteko ei dabe. Onelan, lurreko ogasun guztien jabe langile-alkargo oneik izango dira, enparauak ago bete azurraz itxi ta. Bizi nai dauan edonok, nai ta ez, alkargo bat edo baten sartu bearko dau. Baña lurreko ogasun guztien jabe izango litzakezan alkargo orreik, gizarte osoaren jabe ta nagusi be berez egingo litzatekez, eta jabe danak agintzea berezko gauzea dalako, langile-alkargo onein aginpidea baño beste ezetariko aginpiderik ez ei da gizartean izango.

Ogasun eta aberaskiak ekarteko neurri ta bideak, langile-alkargoak artuko ei dabe: arazo au zuzen eta egoki erabilteko bear diran agintzak, nortzuk emongo dabezan be, alkargo orreik erabagi ta esango ei dabe ta, aginpidea beraganatzen dakian estaturik, ez ei da bear. *Sindikalistak* onetan *anarkistakandik* urrun dabilzanik eztot uste ta gizarteari ikarea sartzeko darabilezan bideetan be alkarrekin naiko ondo aitzen dirala edonok daki.

Eta bere asmuak aurrera eroateko, alkargokeriak ontzat daukazan bideak, zeintzuk ete dira?

Domukeri edo kapitalismoa, lantzean pixka bat moztuaz, geldi-geldi berez lez lurrera jausiko dala diñoen sozialistak, tentel ala maltzur andi batzuk ei dira; diñoen ori siñesten badabe, tenteltzarrak: siñestu barik badifioe, ostera, langileai iruzur egin nai dautsen maltzur andiak. Sindika-

listen eretxiz domukeria indarrez eta takateko (85) gogorrez eratsi bear da lurrera, ta orretarako, kopeikerietan ibili barik, aurrez-aurre ta zuzen jokatu bea ei da. Edozer ei da aizu edo zilegi (86): edozein bide, on eta txalogarri. Ogibide guztietako langileak, guztiak batera, oporketara jaurti, naste ta matxiñadak sortu, lanerako tramankuluak apurtu, ta ugazabai al bait kalterik geyen egitea, garaitza lortzeko bide onak ei dira: izkilu bunbadaz ta eztrandakiz batzuk il eta besteak ikaratzea be txartzat eztauke.

Domukeriari zaplada ederrak emoteko beste biderik be badago, Grifuelhes'ek diñoskunez. Zein ete da? Domukeria eta bakotxaren jabetzea albestean laidoztu; orre in aurka iñon diran guzurrak asmau, esan eta zabaldu; lan oni eten barik ekin; egirik ezin danean, guzurra ta abarra, egiantza emonaz, ugari erabili, gizartearen eta batez be langileen eretxiak aldatu daitezzen eta erriak bere erabagia domuaren eta bakotxaren jabetzearen kaltez eta alkargokeriaren alde emon dagian. Bide au izkulu-bunbada ta eztrandakirik onenak baño be ohea ta indartsuagoa ei da ta, sindikalistak ezeze beste ezkartar guztiak be, bide orretara sarri jotzen dabe.

Bidegabeok ontzat daukazan alkargokeria, ona ezelan be ezin izan daiteke. Elburua ona balitz be, bideko txarkeri oneik osoro zikinduko leukie; baña alkargokeriaren elburua be txarra da ta, gizadiaren lepora jausi dan zigorrik astunena dirudi. Gaur egunean zabal dabilan alkargokeri au gure uskurtz edo erlejiñoaren arerioa da: bakotxaren jabetzeari buruz Marx'en gizartekeria baizen gazi edo gaziagoa, eta bere elburura joteko daroazan bideak, gizartekeriarenak baño be txarragoak dira.

Gizartekeriak langile gaxoak —agintari ta onein ordeko alperrak izan ezik— beste enparau guztiak estaduaren jopu errukarri egiten dituala diñoen sindikalistak. Ori egi biribila da; baña langile-alkargoak be buru, agintari ta ordekoak nai ta ezkoak dabez. Enparauak orre in agintzapean, alkargoarentzat lan egin bearko dabe ta alkargoaren jopu izango dira. Estaduaren jopu izatea, langilearentzat zori txarra da: alkargoaren jopu izatea, bape ohea danik eztogu uste.

(85) Takateko: Kolpea.

(86) Aizu edo Zilegi: Legezkoa.

XVIII

Gizartekeriaren guzur eta kalteak

Edozelako ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea gizon bakotxari kendu, onen eskubideak iñausi (87), askatasun edo libertadea be moztu, estaduaren, gizabatzaren nai langile-alkargoaren buztarri gogorra ezarri ta gizon gaxoa ugazaba mamu ta anker orrein otsein, morroi ta jopu egiten dabelako, gizartekeri nai baltsakeri nai alkargokeria (sozialismo, komunismo ta sindikalismoa) gizonentzat kaltegarri dira.

Aitaturiko gauzok bana-banan azalduko doguz.

Gizartekeria ta bakotxaren jabetzea

Sozialistak diñoenez, erabiliaz igatu (88) edo amaitzen diran gauzak, bakotxarenak be izan daitezke: onelan gizon bakotxak biziteko, jan, edan, jantzi ta jolasteko bear dituan gauzak, bere lanaren irabaziaz erosi ta bere-tu al izango ditu; orrein jabe izango da; baña edozein ondasun ekarteko gai ta bide diran gauzak, oneik gizartearenak ei dira; gizartea baño beste bi-dezko ugazaba ta jaberik ez ei dauke ta, gizartekeria nausituko litzateken egunetik aurrera, onelako gauza bat ez-baten jaun eta jabe gizon bakotxa ezingo ei da izan. Ez ba! Olako eskubiderik gizon bakotxari laketu ezke-ro, sozialistak ondasunei buruz gizartea ipiñi nai daben bardintasuna ankaz gora lioake (89), batzuk besteak baño aberatsago aldi laburrean egingo litzakez ta.

Sozialisten eretxiz, gizon bakotxari bere ondasunetzaz gaur daukazan eskubideok, gizartean erne ta jayo yakoz, gizartetik datorkioz, eta es-

(87) Iñausi: Podar.

(88) Igatu: Agortu, akitu.

(89) Lioake: Joango litzake, litzateke.

kubide orre in iturri gizartea dalako, onek, gizon bakotxaren eskubideok, ondoen deritxonez ebagi, moztu ta aldatu daikez. Gizon bakotxak bereztakotu dauzan gauzen jauntza ta jabetzeak be, gizarteak berak ipiñitako legeak baño beste oñarri ta eustazpirik (90) eztauke, sozialisten eretxiz; baño legeok ipiñi dituan gizarteak, orreik kendu nai aldatzeko eskubidea be badaukala ezin ukatu; augaitik ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea, iñori bidegaberik egin barik, gizon bakotxari kenduaz, beregandu ta beretu daike gizarteak. Sozialistak ori diño: baño orretan be oker dagoz.

Gizarteko legeak gizon bakotxak bere gauzetan daukan jabetzea eza-gutu ta sendotu bai egin dabe, baño besterik ez. Ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabe izateko eskubidea, gizonak berezkoa, jatorrizkoa dau, gizonaren izatean erne ta jayo da; gizonari eskubide ori bere izatetik datorkio ta gizartea baño lenagokoa da.

«Rerum Novarum» deritxon idazkian XIII Leon Aita Santuak dakartzan argibideak, zeintzuk dira?

Urrengo onexek:

Abereak gerokoaren ardurarik eukiten eztakie: euren egiñen guztietan usna bik darabiltz; bata euren bizia jagotera, besteak endeari eutsi ta irauazotera daroaz. Elburu biok jadezteko, aurkezten yakezan, euren bidean aurkitzen dabezan gauzak erabiltea naiko dabe ta, gauza orre in jabe izan bearrik eztauke. Abere-izatea badau gizonak be: baño gizona beste abereak baño geyago da, gorago dago. Gizonaren gauzarik bikañena, gizona gizon egin eta beste abere guztietatik berezten dauana, bere adimena, buruko argia da. Adimendu abere bakarra dalako, gizonak beste abereak eztaukezan eskubideak euki bear ditu; baño biziteko bear dabezan gauzak artu ta erabilteko eskubidea abereak be badauke ta, origaitik abereak baño askoz geyago dan gizonak, gauzen jabe izateko eskubidea be badaukala autortu bear dogu, eskubide ori gizonari ukatzea gizona abereen mailara erastea izango litzake ta.

Gizona bere egiteen jabe da: adimenaren bidez geroko gauzak oraingoakaz alkartu ta ekartzen ditu ta etorkizunaren ardurea eukiten daki. Ziñez, badau Jaungoikoak egindako gauzen ardurea, batez be gizonarena; baño Jaungoikoaren ardura nagusipean gizonak berak be, bere ezaguereak

(90) Eustazpirik: Oinarririk (Base, sostén).

Jaketzen dautsan neurrian, bere buruaren ardurea eukiten daki eta euki bear dau. Ori dala ta, gizonak orain nai gero beretzat bearreko nai onuratsu izango dirala deritxen gauzak, aukeratzeko almena dauko. Almen au gizonari bere izateak damotso; baño gizonak gauzen jabe izateko eskubiderik ez-paleuko, almen ori uts eta utsala, ezetako eza izango litzake: augaitik aukeramen ori daukan gizonak, gauzen jabe izateko eskubidea bear dau, ta ez bakarrik lurra dakartzan zitu edo frutuen jabe, baita geroago bear izango dauzan gauzok dakartzan lurrarena be.

Gizonaren bearrianak joan eta etorri egiten dira ta gaur ase dauzanak, biar edo etzi barriro agertu ta aurkezten yakoz; augaitik erabiliaz amaitzen diran gauzen jabetzea ezeze, eurenz iraunkor diran gauzen jaun eta jabe izateko eskubidea be gizonari bere izatetik datorkio. Eskubide ta ardura ori gizartearenak ala estaduarenak dirala diño sozialistak; baño oker dagoz, gizona gizartea baño lenagokoa da ta. Lurrean estadurik e-tzanean be baziran gizonak. Gizon aek euren buru ta biziaren ardurea eukiteko eskubiderik ez ete euken? Bai beintzat! Nok emon eutsen eskubide ori? Gizarteak? Estaduak? Oraindik gizarte ta estadurik etzan iñon eta ori ezin izan daiteke. Gizartea ta estadia baño lenagokoa da gizona, ta lenagokoa dalako, gizonari bere buru ta biziaren ardurea eukiteko eskubidea ta orretarako bear dauzan gauzen jabetzea, bere izatetik datorkioz. Ori bere senean dagoan gizonak ezin ukatu leike.

Gizona guraso danez.

Gizona, banezean barik, sendi edo familiaren buru danez begiratu ta aztertu badaigu, jabetzearen eskubide ori argiago ta sendoago agertzen da. Sendia gizarte txikia da; baño benetako gizartea ta estadia baño lenagokoa: augaitik sendiak estadia baño lenagokoak diran, estadutik ez datorkiozan eta bere bereak dituan eskubide ta eginbearrak daukaz. Gurasoak euren umeak elikatu, jantzi ta azi bear dabez: eginbear ori izateak berak emon dautse; baño euren eginbear ori ondo bete al izateko, gurasoak jabetzea, erabiliaz amaitzen eztiran gauzen jabetzea be norezkoa dabe.

Umeak gurasoen zatiak dira: sendiaren buru diran gurasoak euren bizia zelanbaist seme-alabetan luzatzen dabe: ori dala ta, seme-alaben ona egiteko ardurea gurasoai berariz dagokie, eta euren biotzetako zatiok bizitako ezbear eta zoritxarrai albait ondoen arpegi emon dagikeoen (91), umeak orretarako bear izango dabezan gauzak batu ta eukiteko eskubidea

(91) Dagikeoen: daikeoen, diezaieketen.

dauke gurasoak; baña iraunkorra dan ondasunaren jabe izan eta ondasun ori umeai jarauntsiz izteko eskubiderik euki ezik, gurasoak euren berarizko zeregin eta eginbear ori ezingo leukiez bete. Eta ez esan gauza orren ardurea estaduak artuko dauala, eginbear ori estaduarena baño lenago gurasoena da ta.

Estadua lez sendia be benetako gizartea da, aita buru ta agintari dala: augaitik famili bakotxak, bere elburuaren muga barruan, bere ona bilatu ta egiteko, estaduak muga zabalagoetan besteko eskubidea gitxienez dauko. Gauzea ondo aztertu ezkerro barriz, sendiaren eskubide ori estaduarena baño beñagoa dala be egiz esan geinke, familia estadia baño lenagoa da ta. Sendi askok alkartuta, uria egiten dabe; uri askok, bata-besteaz alkartuta, uria egiten dabe; uri askok, bata-besteaz alkartu ta guztientzat agintaritza bat ipiñiaz, estadia egin daroe. Sendiak uriaren nai estaduaren atal egiñaz, bere bereak dituan eskubideok galduko balitu; uriak nai estaduak sendiaren eskubideok iruntsiko baleuz, sendiarentzat gizarte ta estadia opagarri baño obeto gorrotogarri izango litzakez. Sozialistak umien ardurea gurasoi kendu ta estaduari emon nai leuskioe; baña onetan be izatezko eskubide zuzenaren aurka dabiltz.

XIX

Gizartekeria (sozialismoa) ta gizonaren eskubideak

Gizasemeok adimen edo errazoyaren, buruko argiaren jabe gara, ta ain zuzen be beste abere guztiakandik, geure buruko argi orrek berezten gaitu. Gizona adimendun, errazoedun aberea da ta, bere burua lauofekoen mailara eratsi nai ezpadau, bere egikizun guztietan buruko argi orrek diñotsanez ibili bear dau. Ziñez, gizona gizartean biziteko egiña da, bere izatearen ayerkunde ta premiñak gizartera daroe ta; baña gizona gizartean osoago izateko sartzen da, ta ez motz eta marketsago (92) izateko. Gizon bakotxak, gizartetik barik, bere izatetik datorkiozan eskubide ta zuzenak daukaz, ta eskubide ta zuzenok obeto zaintzearren, eskubide orrei sendoaroago eustearren, orrexegaitik doa gizona gizarteko bizitzara.

Zuzena zer dan Jaungoikoaren legeak eta geure buruko argiak diñoskue: «Zeuri beste iñok egitea nai etzeunkanik, besteri ez egiozu egin, eta besteak zuri egitea nai zeunken ona, zuk be aei egiezu». Gure egite guztien arau izan bear dabe egi biok, geure barrenean irarrita (93) daroaguz. Jaungoikoaren legea arau bi orrein azalpena baño besterik ez da ta, Jaunaren legea be gure biotzetan irarrita dago, ta griña txarrak buruko argia ilundu ezik, Jaunaren legekoko agintza guztiak eta bakotxa geure izateari dagokiozala, argiro ikusten dogu.

Gizon bakotxaren eginbear, eskubide ta zuzenok bere izatetik datorz; erro ta sustraitzat gizatasuna bera dauke ta, estadia baño lenagokuak dira, eta lenagokuak diralako, estaduaren gañetik dagoz. Bakoxari berea, orixe da zuzenbidea; baña bakotxari berea emoteko, gizonari, bereak dituan eskubide ta zuzenok ezautü ta emon bear yakoz.

(92) Marketsago: Akasdunago.

(93) Irarrita: Imprimatua.

Eta sozialistak, zer egiten dabe?

Sozialistak gizonaren eskubide ta zuzenok ukatu ta zapaldu egiten dabez. Onein eretxiz —eretxi okerrez— gizon bakotxaren eskubide ta zuzen guztien iturburu bakarra, gizartea ala estadia da ta, gizon bakotxak estadia damotsazan eskubide ta zuzenak baño besterik eztauko. Onelan zuzenbide guztien iturburutzat dauken estadia, gizonaren jabe oso egiten dabe sozialistak eta gizona orren jopu ta morroi.

Gizon bakotxak gizartea daukazan eskubide ta zuzen guztiak estadia emonak balitu, zetan esan bez, eskubideok emon dautsazan estadia, zerao kendu be al izango leuskioz, eta ezetariko eskubide barik, bilosik itxi al izango leuke; gizona orrelan estadia morroi balitz, estadia ondo deritxonean, gizona, errugabea dala be, urkamendira bialdu al izango leuke; estadia zama edo kargea baño ez tiran gexoki ta zarrai kendu al izango leuskioe, txarkeririk egin barik. Beñola kistar ez tiran estadia, bein baño sarriago egin eben orrenbeste, ta xarrago dana, jakituntzat egozan gizonak be, ontzat emon eben astakeri ori.

Sozialisten asmu ta eretxiak aurrera eroan ezker, barriro be orraze joko geuke ta erkalaren, demokraziaren izenean astakeri galantak egiteko bidean gengokez. Sozialisten eretxi au ustela ta okerra da. Gizonak bere izatez daukazan zuzen eta eskubideak, estadia baño lenagokoak ditu —diño Eleizeak: lenagokoak ditualako, estadia gañetik dagoz eta onek bidegabe andia jauki barik, ezin kendu legikeoz gizonari. Ogasun erkarraren jabe izateko eskubidea be bere-berea ta estadia baño lenagokua dau gizonak; augaitik estadia indarrez bai, indarrez kendu leikeo gizonari eskubide ori, baño zuzenez, egundo bez.

Sozialistak legea bein baño sarriago aitatzen dabe; legea zer dan ba ete dakie?

Lege zeri deritxogu? Errazoyagaz batera dagoan, guztien edo geyenen onerako dan eta gizabatzaren arduradunak erazagutu daben agintzeari, legea orrexeri deritxogu. Gizonok, gizon izateko, geure egiñetan buruko argiz ibili bear dogu; gizarteko arazoak be errazoyaren indarrez atondu bear doguz, bestelan geure buruak lauñoiko abereen mailara eratsiko geukez ta: origaitik lege izan nai dauan aginduak, nai ta ez, errazoezko izan bear dau, bestelan ezta lege, kasketaldi baño. Guztien edo beintzat geyenen onerako be izan bear dau legeak, askoren lepotik gitxi batzuen ona egitea, bidegabe litzake ta. Gizabatzaren ardurea daukenak menpekoai agintza ori erazagutu edo jakiñazo bear dautse, bete al izan dagien.

Sozialistak onetan be uts andia egiten dabe. Onein eretxiz legeak egiteko eskubidea, estadia baño beste inok eztauko, ta estadia agindu dagiana, nai zuzena nai okerra dala, nai errazoyaz batera nai orren aurka dagoala, legea ei da. Ori diñoenak euren senean ete dagoz? Lege-etxean autarki edo indarrik geyen daukenak agindu dagiana, indar ori asto-indarra balitz be, legea izango ete litzake?. Askoren kasketaldia bai izango litzake; baño legea...? Errazoi zuzenaren aurka eztago legerik; geyenen onaren aurka dan agintzeak be adimendun gizonen artean, ezin euki leike indarrik. Sozialistak gizonari bere eskubide ta zuzenak moztu egiten dautsez eta legea kasketaldi biurtzen dabe. Gizarteko bizikerea obatzeko, bide ederra!

Eta ugazaba ta langileen arteko burrukea, zuzena ete da?

Bakotxaren zuzenak ostikopean dirala ta legea askoren kasketaldi baño ez tala, sozialistak ekarri nai dautsuen bizikera zorionsu (?) orretara eltzeko, orain mailen arteko guda eta burrukea, eten bako burrukea egin bear ei da. Burruka ori ankaz gora jaurtindako zuzena barriro zutunik ipinteko, ausitakoa osotzeko balitz, txarto ez letorke; baño zapal dutako zuzena, barriro zutunik eta bere indarrean ipiñi ezker, burrukeari ekin bearrik eztago. Sozialistak, ostera, eten eta amai bako burrukea nai dabe. Zetarako? Ausitako zuzena osotzeko, barriro oñean ipinteko ete da? Ez, orretarako ez, enparauak zapaltzeko baño.

Burruka itsu au gorrototik dator eta asperkunde edo bengantzearen bila dabil. Baño gorroto ta asperkundeak gizarteari, ze on ekarri legikioe? Onik ezetaikorik bez eta kalterik asko. Mailen arteko burruka gogor au, sozialistak aitzen daben lez, gizarteko onaren arerioa da, ta bakotxari berea emonaz zuzena nagusi egiteko barik, ugazabak zapaltzeko asmuz egiten dan burruka onek, langileen alde lortu leikezan obariak be sarri galerazo ta atzeratu egiten ditu.

Gizarteko zuzenaren alde dago Eleizea. Bakotxari berea, orixe da zuzenbidea. Ogasuna ekarteko ugazabaren domua (kapitala) ta beargiñen lana alkartzan dira ta, domuari dagokion besteko irabazia emon bear yako; baño beargiñari be onen lanari dagokion besteko lantsari edo alogera emon bear yako; baño beargiñari be onen lanari dagokion besteko lantsari edo alogera emon bear yako; bakotxari berea, nai ugazaba nai langilea dala. Zuzena estadia baño lenagokoa da ta, agintarien gañetik dago; agintari dirala ta, zuzena ausi ta okertzeko eskubiderik eztauke. Agintariak zuzen ori

bete eragiteko ardura bai, ori euren dabe ta, errazozko legeak emonaz, guztien eta bakoxtaren eskubideak aldeztu ta jagon bear dabez.

Orraitik be, euren eskubideak zaintzeko, aberatsak txiroak baño erreztasun geyago ta iñoren laguntzaren premiña gitxiago daukelako, es-taduak txiro, langile edo alogerekoen eskubideak, berariz eta ardura geyagoz, aldeztu ta zaindu bear ditu: langile zurrai zelako edo alako ogasun ekarkorraren jabe izateko, bidea leundu ta erreztu bear dautse: goiko ta be-koak zuzenbidera ekarri, guztiak ortxe alkartu ta gizabatzaren onerako, burkide barik, lankide egin bear ditu.

XX Gizartekeria ta gizonaren askatasuna

Senean dagoan gizonak aukeramena berea dau. Aukeramena, au edo beste gauza aukeratzeko almena da ta, gizona ain zuzen be, almen ori daukalako, aske edo libre orixegaitik da.

Gauza txarrak, oben edo gaiztakeriak egin al izateko almena, askatasunaren ezaugarri bai, ezaugarri bada; baña askatasuna orretan ez datzala edonok daki; bestelan oben eta utsik egin ezin daiken Jaungoikoa, ez litzake aske izango, ta iñor baño askeago ta aske diran izaki guztien Egile be badala ondo dakigu. txarrerako almen ori be ba dau gizonak; baña ori askatasuna baño obeto onen aulkeri ta gexoa da. Oben dagiana, obenaren otsein eta jopu egiten da ta, iñoz obenik egin barik, beti gauza onak aukeraten dakiana, obendi (94) edo pekataria baño askeago da. Gauza txarretara jo barik be badago non aukeratu.

Gizonak askatasun edo libertadea baño doe bikain eta maitagarriagorik ba ete dau?

Askatasuna urre ta zidarrez ezin erosi, urre ta zidar oro baño obe ta ederragoa da ta. Zein maitagarri dan antxiñako ipuin onek adierazten dausku. Bein baten, ilunabarrean txakur eta otsoak alkar aurkitu ei eben. Batak besteari «kaixio lagun» esan ta gero, otsoak txakurrari: mutil, ire lodien lodie! narrua betean ago; uleak be argi brist! egiten dauske, zelan arrano gizendu az orrenbesteraño? I baño indartsu ta bizkorragoa nok; baña gozez nayabilik, gizona zer dan be etxakiadala, azur eta azal uts. txakurrak: nire zeregiña egin nai badok, gizendu al izango az i be. —Ze zeregin—

(94) Obendi: Pekatari, oben-egile.

diñotso otsoak. —Atezain izan eta gabaz ugazabaren etxea lapurrekandik jago, darantzu txakurrak. —Ori baño ezpado, orretarako gertu nayagok neu be— diño otsoak. Orain mendi ta oyanetan aize ta euriz, edur eta izotzez bizikera latza yaroat. Zenbat atsegiñago teilapean bizi ta alper ta nagi, jatekoz ase! —Ator ba neugaz— diñotso txakurrak.

Alkarrekin yoazala, txakurraren saman ulepeituz egindako uztaya dakus otsoak eta diñotso: aiskide, zer dok ori? txakurrak: au ezer eztok. —Ezer eztoala?— darantzu otsoak. Esaidak arren, jakin nai yoat eta. —Gaizto antza be ba yaukadala ta, lotu egiten nayoek —diño txakurrak— egunez atsedan dagidan, gabaz itzar egoteko. Ilunabarrean askatzen nayoek eta emetik zear ibiltzen nok. Janaria, neuk eskatu barik ekarten yaustek: ugazabak bere maiko azur eta ondakiñak: otseñak, ogi-tatuak eta jaki gizenak jaurtiten yaustezak, eta lanik egin barik, urdaila bete bete egiten yoat. —Ondo yagok— diño otsoak; —baña esaidak: ona edo ara joateko gogoia datorkanean, ori egiteko askatasunik ba ete daukak? Orixe ez, geyenez beintzat —darantzu txakurrak. Eta orduan otsoak: goretsi doazan zorion guztiok, euretzat itxi ta, ni banayoak; lengo bizibidera nayoak, aske enazala errege be etxoak izan nai ta.

Askatasuna gizasemearen doe, bagi ta bitxirik ederrenetarikoa da: aukeramena kendu ezker, gizona ezta gizon, jopu errukarri baño. Gizon guztiok ezker bizibide ta zeregin guztietarako egiñak: egiñen batzuetarako besteetarako baño antzetsu ta trebeagoak izaten gara ta, olako zeregiñak atsegiñago izaten yakuz. Gizon bakotzak bere eretxi, asmu, gurari ta atsegiñak daukaz, eta nayen dituan bizibide ta zeregiñak galerazo ta gogoko etxakozanak arreraztan bayakoz, atsedan eta bake barik, beti arteta ta urduri ibiliko da. Gauza on askoren artean, nayen dauana aukeratzeko askatasuna bear dau gizonak, bestelan zoritxarreko izango litzake ta.

Gizartekeriak (sozialismoak) gizonaren askatasun ori bear bestean aintzat artzen ete dau?

Urrik emon bez. Gizartekeriaren irakasleak diñoenez, gizona gizararentzat egiña da ta, ezta duaren otsein eta jopu izatea dagokio. Ogasunak ekarteko diran arazo guztien zuzentzaile estadia izan ezker, lan gitiagogaz ogasun geyago ekarri leikezala; ori akiakulatzat arturik, sozialistak gizonaren askatasuna ebagi ta moztu egiten dabe. Garatz edo negozio andiak darabilezan aberatsak: gauza askoren salerostea euren eskuetan dauken *trust*'ak, enparaei buztarri gogorra ezarri ta langile asko

jopu, (esklabu) egiten dabezala ta, sozialistak garraxi baten ibili dira ta orain be garraxika diardue. Baña ori txartzat dauken morroyok, askozaz be txarrago dana egiteko kezkarik eztauke. *Trust* orreik gorabera, estadu bakotxean ainbat ugazaba dagoz; sozialistak nai dabena egin ezker, ogasun, garatz, saleroste guztien ugazaba bakarra, estadia izango litzake; zeintzuk lan egin bear diran; lan orreik nortzuk egingo dabezan; lanak dakartzan ogasunak, noz, non, eta zelan salduko diran; orreik eta beste olako gauza asko, estadia erabagi ta aginduko leukez: estadia ogasun-ekarle, estadia salerosle, estadia jabe; enparauak, orren morroi.

Eta gizonarentzat ain maitagarri dan askatasuna, non da?

Askatasuna iñorentzat barik norberarentzat ei da ona. Gizartekeria nagusi dala be guztiak eztira izango jopu ta morroi: agintariak aske izango dira ta gogoak emoten dautsena agintzeko eskubidea eukiko dabe. —Eta enparauak?— Enparauak estadiaren morroi izateko eskubidea, ez ete dabe naiko? —Ori nauskeri edo diktadura garbia dala? Eta zer? Gizartekeriaren irakasle orrei, eurak agintari izan eta ondo ibili ezker, enparauakaitik zer dautse? Askatasuna barriketea baño besterik ezta, Largo Caballero'k oraintsu esan dauanez. Estadia bear ei da indartu; estadia eskubide guztien jabe oso egin, ugazaba panparroya izan dadin. Askatasunaren izenean orren aurka iñor jagi badadi barriz, kaskarreko ederrak emonaz, aske izateko gogoia bein betiko kendu bear ei yako. Largo Caballero'k olako gauzak esan dituala ta, arritu ta izutu egin dira gizon txepetx batzuk. Ori gizartekeriaren berezko ondorena da ta, etzan zegaitik arritu ez izutu. Gizartekeria berenez nauskeria ta askatasunaren arerioa da.

XXI

Gizartekeria ta ugazaba barriak

Jango dozun ogia zeure arpegiko izerdiz irabazi bearko dozu —esan eutson Jaunak lenengo gizonari. Egaztija egaz egiteko ta gizona lanerako jayo da —diñosku Job deunaren aoz. Geldi dagoan ura usteldu ta xomorroz beteten dan antzera, gizon alper eta nagia ren gogo a be usteldu ta griña txar askoren abi ta bizitoki egiten da. Nagikeria oitura, ekandu txar askoren ama da ta, zetan edo atan, bakotxak bere salean, gizon guztiok lan-egin bear geuke.

Sozialistak be orixe nai dabela diño: gizon guztiak, langile. E-txagunik iñor bez, guztiak maizter: ugazabarik bat egiña baño ez, enparau guztiak beargin.

Gizartekeriaren irakasteak diñoen ori, egia ete da?

Gizon askok biziko badira, nai ta ez lan egin bear dabe ta lan egin arren be, arrastaka baño ezin dira bizi: beste asko, oster a, iñoren lanak dakartsen mozkiñez, bape neke barik, ondo baño obeto bizi dira. Ori txar-to dago —diño sozialisten buru egiten diranok—. Ondo dagoanik be ez-tiñogu, zetan edo atan guztiok lan egin bear geuke ta; baña ori txarto dagoala diñoenok, beste ezer baño lenago orixe egiten ikasten dabe. Gauza bat irakatsi ta beste bat egin, ori be eztago ondo.

Orain gizartekeriaren irakaste ta langileen buru diran orreik —geyenok beintzat—, lenago langile ziran: bata, irarle, bestea zuritzaile, urrengoa ogigin edo olako zerbait; baña gizartekeria irakasten asi ta laster, jauntxu egin ziran eta arrezkero langileen lepotik polito bizi dira. Aberats egin diranak be eztira gitxi. Beste askok be orixe egiten dabela ta, orain orixe baño beste biderik eztaukela diño; baña gero, gizartekeria nau-

situ daitenean, besterik izango ei da. Orduan ugezaba bakarra ta enparau guztiak bardintasun osoko langile izango ei dira.

Sozialistak diñoen ori siñegarri ete da?

Langile asko atzipetu dauzan guzur biribila da sozialisten buruak diñauskuen ori. Gizartekeria nausitu ezkerro, estadia izango ei da ugazaba bakarra; egin bear diran lanak eta onek dakartzan ogasunak, estadia banatuko ei ditu; baña estadia berenez ezer egiten ezta; ezer egitekotan buru ta agintariak nai ta ezkoak ditu. Agintariak be arazo guztietara ezin eldu leitekez ta, jaurle ta ordezkooak enpleau ta morroyak, nozezkoak dabez. Gaur egunean estadia zeregin gitxiago euki arren, zenbat ordezko, zenbat enpleau eztitu bear? Ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe ta ugazaba bakarra egingo balitz; lanak banatzeko, lanak dakarrera saltzeko, lantegiak oñean eukiteko, langileai alogera emoteko ardurea bere gain artuko baleu estadia, zenbat ordezko, zenbat enpleau eleukez bear izango?

Agintari ta enpleauak izango litzakez zuzentzaile, enparau guztiak langile; aek ugazaba, enparauak alogereko; aek nagusi ta jabe, enparauak jopu ta morroi. Gauza guztien ugazaba estadia egingo balitz; lenago aita-tu doguzan ardura guztiok bere gain artuko balitu, biztanleetatik lauren bat gitxienez agintari, jaurle, ordezko ta enpleau izango litzakez eta enparauak orrean agintapean lanari ekin bearko leuskioe. Eta orra or enda bitako gizonak: batzuk lana agintzeko; besteak, otera, aek agindutako lanak egiteko.

Sozialistak ekarri nai dauskuen estadi ori erlauntzaren antzekoa izango litzakela diñoe batzuk: nik, askozaz txarragotzat daukat. Erlauntz bakotxean, erregeñez gañera, mota bitako erleak dagoz: langileak eta nagiak. Erle-langileak ezтира ez arrak ez emeak; baña erlekumea ateraten, orri jaten emoten eta gero eztingiñen aspertzeka, zoli ta bizkor ekiten dautse lanari. Erle nagiak arrak dira ta ezতির egiten ezta. Ezতির egin ez, baña langileak egindako jan bai; orretan mutilak dira.

Sozialistak ekarri nai dauskuen estadi barrian, erle nagien ideko agintari, jaurle ta onein ordezko enpleauak izango litzakez: lanik eleukie egingo, besteai egiñazo baño, ta, erle nagien antzera, langileen leptik biziko litzakez. Orretan sozialisten estadia erlauntzaren antzekoa izango litzateke; baña sozialisten estadi ori askozaz be txarragotzat daukadala esan dot eta au be egia da.

Erle nagioak be erlauntzean bizi oi dira udagueneraño; baña bein orra ezkerro, erlauntzean nagie orreintzat bizitokirik ezta. Erlauntza ezta be ta dabean erle langileak, jaten baño ezta lan nagirik ezta be nai etxean euki, ta udaguenean erlauntzetik jaurti egiten dabez, eta urten nai ezpadabe, izpia edo eztena sartu ta il. Sozialisten estadian, erle nagien ideko diran agintari ta onein ordeko enpleauak, nok jaurti al izango leukez? Erle nagioak eztenik eztauke, langileak bai otera. Oneik eztenunak diralako, nagioak erre zupuztu daro ez ta bizirik edo ilik erlauntzetik kanpora jaurtiten dabez; baña sozialistak ekarri nai dauskuen estadi bitxi orretan, errizain eta gudariak, iskilu edo armen indarra, agintari ta enpleauen alde legokez eta negu gorria nai gosetea etorri arren be, eurak beti nagusi.

Bein agintaritzan jarri ezkerro, nok kendu? euren tokietatik, nok jaurti? Egifiñ gatxa be gatxa izango litzake ori. Errusi'n jazoten danak, begiak idegiazo bear leuskioez langile guztiei. An erlemandoak dira aspaldian be nagusi ta iñok ezin ditu kendu. Enparauak langile dira ta eurentzat baño len nagie aentzat lan egin bearrean dagoz. Sozialisten estadian agintari ta enpleauak erlauntzean erle nagioak baño obeto: gizon beariñak, otera, erle langileak baño askoz be txarrago.

XXII

Gizona gizartearen otsein eta jopu

Gizartekeri edo sozialismoa erlijioaren arerioa dala aurrerago esan dogu: gizonaren arerioa be badala guzur andi barik esan geike. Gizona gizartean biziteko egiña da; baña gizartearentzat egiña, ezelan bez. Gizonak, banezean eta bakarrean bizita ezin lortu leikezan ainbat onura ta mesede eskuratu daikez gizartean biziiaz. Ori dala ta gizona gizarterako ayer eta makur dago; irrirts edo lera (95) ori bere-berea dau, eta gizona gizarteko bizitzara bere izateraren indarrak daroa.

Baña, zegaitik eta zetarako doa gizona gizartera?

Banazean bizita, ezin bete dauzan bearrizanak, ezin lortu dauzan onurak, gizona gizartera beste ezek baño geyago orrexek daroe; baña orreik badaroe, gizona gizartera bere onaren bila doala, nok ukatu daike? Bere burua orniduagotu, bere bizikerea obetu ta onura edo mesede geyago eskuratzearren, gizona gizartera orixegaitik doa.

Gizartean bizi dan gizonak, bizabatz osoaren ona al bestean egiteko gertu ta prest egon bear dau; orretan ba gagoz; baña gizabatza be bazkide guztien eta bakotxaren onerako dala iñok be ezin ukatu leike. Eta egiz, gizon bakotxak gizartean biziiaz irabazi baño geyago galdu bear baleu, gizartean bizite ori, zetarako leuke? Gizartean sartuaz bere eskubideak galtzekotan, naiz eskubide orreik murriztuta ikustekotan, gizonak gizartean biziteko gogo andirik ezin euki leike.

(95) lera: Joera, jokera.

Soñā ta gogoā, gorputza ta arimea gizon bakotxarenak dira: premiñā edo bearrizanak eta oneik beteteak dakartzan atsegin eta zoriontxuak be, gizon bakotxarenak. Gizon bakotxa alde batera itxi ezker, gizartea zer da? Gure adiñean sortutako gogai edo irudia bañio besterik ez. Eta gizon bakotxaren lepotik gogai uts orren ona egiteko, gizartea orretarako danik nok siñestu? Ez, gizon bakotxaren eta al bestean guztien ona egiteko: gizon bakotxari lurrian al besteko zoriona eta bizitza onen ostean betikoa jadesten laguntzeko, gizartea orretarakoxe da, ta orretarako ez izatekotan, gizonarentzat kaltegarri izango litzake.

Gizartekeriaren alde dagozanen eretxiz, gizona gizartean biziteko ezeze, gizartearentzat egiñā be ba da, eta gizartearentzat egiñā dalako, gizon bakotxak bere burua guztiz eta osoro gizarteari eskiñi ta emon bear ei dautso.

Bakotxa bere aldetik ibili barik, guztien indarrak alkartu bear ei dira: ori egin ezker, lan gitxiagogaz onura andiāgoak eskuratu ei leikez. Bakotxak berari dagokion sailean; bañā guztiak batera ta guztiak guztientzat lanari ekin ezker, ortik letorkezan irabazki ta ondasunak, ugari be ugariak izango ei litzakez. Ori dala ta, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran ggauxa guztien jabetzea, gizabatzak ala estaduak beragandu ta beretu egin bear ei dau. Gero ugazabari dagokionez, menpekoen artea lanak banandu; langile bakotxa bere sailean ipiñi ta guztiei guztientzat lan egiñāzo. Onelan egindako lanak, ondasun eta onura izugarriak ekarriko ei leukez eta langile guztiak eta bakotxak, biziteko ezeze, jolasteko bear dabena be ugari izango ei leukie.

Amesak ames dira ta, langile bakotxari zenbat elduko litzakeon ez-takigu; bañā gizartekeri-zaleak diñioen ori egia balitz be, gizon gaxoa gizarbatzaren ala estaduaren otsein eta jopu errukarri egiten dabe ta, bere burua zerbaitetan daukan gizonak, ori ontzat ezin emon daike. Izan be, edozelako ondasuna ekarteko gai diran gauzen jabetzea kenduaz, gizartekeri edo sozialismoak gizonari bere eskubideak moztu egiten dautsaz; gizon bakotxa bere sailean ipiñi eta guztiei guztientzat lan egiñāzoaz, gizona abere bailitzan, lanerako buztartu egiten dau eta orrelan buztartuaz, gizonari bere aukeramen, askatasun edo libertadea be iñausi ta moztu egiten dautso: augaitik gizartekeria gizonaren arerioa dala uste dogu.

Gizon bakotxak bere lanaz irabazitakoaz, zer egin al izango ete leukie?

«Bere lanaz irabazi dauanaren jabe, bakotxa izango da; ori bere-bereā izango dau eta bereā dauan ori nayen dauanez eralgiteko (96) eskubi-dea, iñok eztautso ukatuko». —Orduan bakotxak bere lanaz irabazi dagianetik, zati bat aurreratu al izango leukie, eta aurreratu dauan orregaz abere, solo ta ondasuna ekarteko gai diran beste gauza batzuk be erosi ta beretu al izango ete leukiez? — «Ori ez —diñioe gizartekeri zaleak: erabiliāz sautu ta amaitzen diran gauzak bai, olakoak erosi ta beretu al izango ditu; bañā ondasuna ekarri leikenik, ez: onako gauzen yabetzea gizon bakotxari ezin laketu leikeo, ori laketuaz beste barik gizartean ipiñi nai dogun bardintasuna, ankaz gora joango litzake ta». Onelan ba, gizartekeria txiroak aberats bañio aberatsak txiro egiteko asmu ohea da.

Lanak banatzeko ardurea, norena?

Gizartekeria nausituko balitz, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien ugazaba ta jabe bakarra, gizarbatza ala estaduā izango litzake; bañā ugazaba aldatu arren, gauzak berez ondasunik eleukie ekarriko ta, orduan be gizonak lan egin bearko leukie. Bakotxari bere lana, nok izentauko ete leuskio? Gizartekerizale asko ameslari andiak dira ta, gizartea ondo eratu ezker, lan guztietarako langileak berez agertuko litzakezala uste dabe. Umeai —diñioe ameslariok— txikitatik asita, berarizko azi-ikaskuntza emongo geuskioe; bakotxak bere jas berezia zetarako daukan laster igariko geuke; bere jasaren erako zeregiñā emongo geuskio; onelan lana jolasa baizen atsegin izango litzate ta edozein lanerako langile onak eukiko geukez.

Ori diñoenak zoro garbiak ezpadira, ameslari galantak bai dira beintzat. Gizonik geyenen berezko jasa auxe da: albait lanik gitxien egin eta albait ondoen bizi. Orain, bakotxak beretzat lan egin eta beretzat irabazten dauanean, ori orrelan bada, gizartekeriak nai dauan lez, bakotxak guztientzat lan egin bear izango dauanean, zer izango ete da?

Lan batzuk besteak bañio gogor eta neketsuāgoak dira: naskagarri ta osasunarentzat kaltegarri diranak be badagoz, ez gitxi. Enparauen irabaziaz onako lan nekatsu ta naskagarrietarako langileak berez agertuko litzakezala; ori diñioana burutik ondo eztago. Orreik txakur-amesak dira ta, guztiak gosez ez iltekotan, lanak banandu ta bakotxari bere lana egiñāzoteko ardurea gizarbatzak ala estaduak artu bearko leukie. Estaduak agindu

(96) Eralgiteko: Gastatzeko, xahutzeko.

ta enparauak burua makurtu. Langile bakotxari bere toki ta lana agintariak eta onein ordekoak izentauko leuskioe ta aen baimen barik langileak ez tokiz aldatzeko ez lana izteko eskubiderik eleuke izango. Gizartekeria ta gizonaren askatasun edo libertadea sua ta ura baño geyago ezin alkartu lediz; gizartea agintari orreïn menpean, artzafiak aurretik daroan artaldearen antzekoa izango litzake. Gizartekeriak zoriona opatu ta zoritxarra ekarriko leuke.

Gizartekeri edo sozialismoak bake ta zorion andiak ekarriko ei leuskiguz: orren alde dagozanak, ori diñoie; baña asarre, gorroto ta burrukak ekarteko obea dala deritxat. Gizartekeri-zaleak diñoenez, ugazaba ta jabe bakarra gizabatza ala estadia izango litzake, ori baño beste ugazaba ta jaberik eztala bear garraxika diñoskue ta; baña lanak banatzea, langile bako txak zein lan egin bear dauan esatea, ugazabari dagokio, ugazabaren ardurea da.

Lanak banatzea, zeregin erreza izango ete litzake?

Gizabatzak naiz estadia, agintari ta ordeko barik, ezer egiten ezta ki ta egin be ezin daike: au dala ta, ugazaba ta jabe bakarra gizabatza naiz estadia balitz, gizon bakotxari bere lana agintariak eta onein ordekoak izentau bearko leuskioe. Guztiok lan guztietarako egokiak ez kara ta, lanok ondo banatzeak zeregiñak emongo leukez. Zeregin guztietarako langileak berez agertuko litzakezala uste dabe batzuk; baña ori ames garbia dala edo nok daki. Lana baño alperkeria maiteago dogu ta lan gogorra baño errezt xua edonok nayago. Agintariak eta onein ordekoak, gogorik onena euki arren be, langile guztiak nayan daben lanera ezingo leukiez bialdu, ta askori gogoko etxaken lana egiñazo bearko leuskioe. Amaikatxu gorroto, asarre ta burruka balekarkez bai lanen banatze onek!

Errusi'ko langileak, zelan ete dabiltz? Zoro batzuen eretxiz, ezin obeto; baña angoo barri dakienak diñoskuenez, txarto baño be txarrago. Gudari edo soldau gorriak jagola (97) dabezala, langileak aldran, gaizkiñak bailiran, lanera daroez eta gogoko yakela naiz etxakela, guztiei ta bako txari izentauriko lana egiñazoten dautse, gudari gorri aen agintzapean. An langileak nayan daben lana aukeratzeko askatasunik eztauke; lana itxi ta beste toki batera joateko eskubiderik bez. Langile aek, gizonak ete dira?

(97) Jagola: Zaintzailea.

Gixaxo andiak lanerako buztartu egin dabez ta, gizonak baño abereak obeto dirudie.

Gizartekeria nausituko balitz, beste edonon be orraxo jo bearko litzake; gizonak lan egitera beartu egin bearko litzakez, osterantzean iñoren tzat lan egiteko gogorik, iñok be eleuke eukiko ta: onako edo alako lana egitera be beartu, bestelan guztiak lanik errezenera joko leukie ta. Orain Errusi'n jazoten dan lez, langileai euren lana agintariak izentau bearko leuskioe ta langile bakotxa bere lana egitera beartu bearko litzake; baña ori bakea ta zoriona baño asarre, gorroto ta burrukea ekarteko bide obea da.

Eta lanaren irabaziaz zuzen eta bidez banatzea, sozialistak uste daben baizen egiñen erreza ete da?

Ziñez, gizartekeria nausi dala, estadia baño beste ugazaba barik, lanak banatzeak zeregiñak emongo leukez; baña lanaren irabaziaz guztien artean bidez eta zuzenez banatzeak, buru-auste ta zeregin txikiagoak eleukez ekarriko. Ume, gexo, uatu (98) ta zarren ardurea gizabatzak ala estadia eukiko ei leuke ta, lenengo ta bein irabazietatik orreintzako bear dan beste berezi bearko litzake; gero etxe, ola, lankayak barriztau ta lanerako gayak erosteko bear dana be, nai ta ez eratsi bearko litzake. Ori egin ta gero enparetan dana langileen artean bidez, zuzenez eta bardintasunez banatuko ei litzate; baña ori esaten errezagoo da egiten baño.

Eta egiz, irabaziaz langileen artean ondo banatu al izateko, arau argi, ziur eta zuzen bat nai ta naiezkoa da. Arau ori, zein da? Gizartekeri zaleak alkar ezin artu dabe ta, arau ori zein izango litzaken eztakigu. Gotha'ko egitarauan auxe esan eben: irabazien banatzea bakotxak egindako lanaren eta bakotxaren bidezko bearrizanen arauz egingoo da. Ori argi dago egon; baña zuzen dagoanik eztogu uste. Egindako lana ta bearrizanonok sarri askotan eztabiltz batera.

Egin daigun langile bik lan bardiña egin dabela; baña bata bestea baño bidezko bearrizan geyago daukazala. Gotha'ko arau ori aintzat artu ezkerro, bearrizan geyago daukazan langileari besteari baño geyago emon bear izango litzakeo; baña bien lana bardiña izan da ta, gitxiago artuko leukena, bidegabea egin yakola ta, aserratu egingoo litzake. Biei bardin emon ezkerro, ostera, bidezko bearrizan geyago daukazana, bestea baizen ondo

(98) Uatu: Elbarritu, makitu.

ta nasai ezingo litzake bizi, ta sozialistak gizartean ipiñi nai leukien bardintasuna ankaraz gora joango litzake.

Lanean egindako orduak be irabakiak zuen banatzeko arau ona ezti-ra. Aldi edo denpora bardiñean langile antzetsu, trebe ta bizkorak lan geyago ta lan ohea egin daroa langile alper, ongaitz eta baldrasak baño. Laneko orduak bardiñak izan dirala ta beste barik, bieirabazi bardiña emotea bidegabe andia litzake.

Irabaziak zuzen banatzeko lanaren balioa arautzat artu leikela diñoen beste batzuk; baña lan baktaxaren balioa zenbaterañoakoa dan, nok ebatzi ta esango dau? Sarri askotan neke gogorrez egiten diran lanak baño gorpuzta gitxi nekatuta egiten diranak, gizartean balio geyago dauke ta, lanaren balioa arautzat artu ezkeren, estaduaren aginduz lan gogorrean gorputza ausi dauan langilearen irabazia, beste askorena baño txikiago izango litzake; baña lan gogorragoa egiaño yakonari irabazi murriztagoa emotea, bidegabea ez ete da?

Estaduak orain daukazan zeregiñak be txarto asko egiten ditu: ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe egingo balitz; lanak eta irabaziak banatzeko ardurea bere lepora artuko baleu, zer jazoko ete litzake? Agintari ta ordekoak, onein aiskide ta lagunak elitzatekez ain txarto ibiliko; baña enparauak, astoak lez lan egin arren, gosez arrausi egin beariko leukie bein baño sarriago. Estaduak gauzak txarto egiten dituala ta, gaur egunean be ba dabil bazterretan zeresana baño ezтана: ondasuna ekarteko bide diran gauza guztien ardurea bere gain artuko baleu, zer jazoko ete litzake? Oraingo bidegabeok kendu egin bear dirala diñoen sozialistak; baña Estadua jabe ta ugazaba bakarra dala, lanen eta irabazien banatzeak, bidegabe andiakoak ekarriko leukez: gitxi batzuk ondo; baña geyenak txarto ibiliko litzakez ta, gizartekeria bakea ta zoriona baño nastea ta drogea, aserrea ta burrukea gizartera ekarteko bide ohea da.

XXIII

Gizartekeria ta baserritarrak

Gure baserritarrak —geyenak beintzat— gizartekeri edo sozialismoa zer dan, beronen asmuak zeintzuk diran eta nora garoakezan eztakie. Sozialistak ondasunen banakuntzea, *errepartoa* egin nai dabela, ori bai, ori iñoz baño sarriago entzun dabe; baña ondasunen banatze ori zelakoa izango litzaken, geyenak iñoz eztabe entzun. Ori ta guzti be, gizartekeria begi txarrez dakuse baserritar zintzoak: alper eta nagien, arlote eta ameslariaren asmakizuna dala uste dabe, ta orretan ain oker be eztabiltz, gizartekeriaren alde dagozan guztiak ez arren, asko beintzat arloteak, naikotxu irabazi arren zurikorik aurreratzen eztakien langileak dira ta.

Gure baserritarrak eskolau andiak ezti-za izan; baña burua bere lekuan dauke ta, orrei azurraz koipetsu egiterik eztago. Euren ondasuna nekez eta izerdiz irabazi dabe: urte baktaxean pixka bat aurreratuz, euren eskuarte-txua olantxe egin dabe ta, nekez eta lorrez aurreratu daben ori arloteakin banantzeko gogo gitxi dauke. Orraitik be gure baserrietatik, ola ta lantegietara doazan gazte batzuk, Viva Rusia! deadarrez iñoz baño sarriago ibiltzen dira, batez be nappar ardaoak barrena berotu dautsenean: au dala ta, gizartekeriak baserritarrentzat tzattzattzattzatter dakarren, gure artean nausituko balitz, gure baserritarrakin zer egingo leuken adierazo nai dogu. Zoroenak esaten eta egiten baserritarrik eztaiten ibili, egi mardulak esango doguz. *Lugintza-gizartekeria* berariz deritxona be badaki. Onen alde dagozan morroyak beste oğasun batzuen jabetzea gizon baktaxari be laketzen dautse; baña lurrarena eta batez be landu daiteken lurrarena, ezelan bez. Lurra guztiena ei da ta, orren jabe estaduak baño beste iñoz ez ei dau izan bear.

Lurrai buruz gizartekeri onen nai beste edozeñen asmua, zein ete da?

Gizartekeri edo sozialismoa ezta ondasunen banakuntzea, ezta *errepartoa*; daukanari kendu ta eztaukanari emotea, ezta ori gizartekeriaren asmua. Zein da ba? Daukanari kendu ta eztaukanari ez emotea: gizartekeriaren asmua orixe da, gizon bakotxaren yabetzea gizartearentzat kaltegarri dan lapurretea baño besterik ez ei da ta. Baltsakeri edo komunismoak gauza guztien jabe gizabatzak egin nai ditu; gizartekeri edo sozialismoak, ostera, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen ugazaba ta jabe, estadia egin nai dau. Emokor edo ekarkor diran gauzen jabetzea gizon bakotxari errotik kendu ta estaduari emon bear yakola, ori gizartekeriaren alde dagozan guztiak diñoe, euren eretxietan bigunenak diranak be bai.

Gizonok batez be lurak dakarrenaz bizi gareala ta, lurra bera ta ori lantzeko bear diran abere ta tramankuluak, eskubide osoz eta beste ezer baño lenago gizartearenak ei dira ta gizartea baño beste ugazabarik ez ei dabe euki bear. Etxaldearen eta orrek dakartzan zitu edo frutuen jabe izatea, gizon bakotxari ezelan be laketu ezin leikeon eskubidea ei da. Orreik gauzok gizarteak bere-bereak eta bizi al izateko osoro bearrezkoak ei ditu ta, iñorena ostuaz etxaguntzak eurekandu dabezan etxagunok, lurraren benetako ugazaba dan gizarteari itzuli ta biurtu bear ei dautsez.

Au onelan ixanik, gizartekeria nausituko litzaken egunetik aurrera, etxe ta bazter, solo ta baso, idi ta bei, burdi ta golde ta beste lankayen ugazaba bakarra, estadia izango litzake ta oraingo etxagun ta maizterrok ago bete azurraz geldituko litzakez. Etxagunik elitzake izango bat egiñik be: ondoen dala be, guztiak maizter edo *errentadore*. Ori ondoen dala, sozialisten artean ori baño txarragorik nai dabenak be badira ta.

Eta ugazaba nor?

Ugazaba bakarra, estadia. Onek berez ezer egiten eztaki ta, zerbait egiteko, jaurle ta agintariak norezkoak ditu. Agintariak be nai ta ez ordezkokoak izentau bear izaten dabez. Onelan ba, ugazaba estaduaren buruak, agintari nagusiak izango litzakez: agintari-ordekoak oraingo *mayordomoen* antzeko, ta baserritarrak orre in menpeko. Oraingo ugazaba guztiak biozbera ta errukiorrak direanik eztiñot. Ugazaben artean be guztitarikoak dagoz, onak eta errukiorrak be ez gitxi.

Estadia baño biotz gitxiagoko ugazabarik, eztagoala edonok daki: agintari-ordekoak baño erruki gitxiagoko gizonik eztoz uste dagoanik. Estaduak urdaila bai, urdaila andia dau; baña biotza, txatxarra. Orren ordekoak be begia zorrotza ta eskua latza. Oraingo zergari edo petxu-batzaileak

zelakoak diran badakigu. Gizartekeriak ipiñiko leukezanok oraingo zergariak baño obak elitzatekez izango, errukiorragoak bez.

Baserritar-maizter bakotxak urteoro estaduari onenbeste edo ainbeste anega emon bear dauan, agintari ordeko orreik izentauko leuskioe: izentau bakarrik ez, emonazo be bai. Etxalde ta bazterrak zelan landu ta erabili adierazteko, agintariak arau ta legeak emongo leukiez: agintari ordekoak lege orreik bete azoteko ardurea eukiko leukie, ta bete nai eztauzanari bazterra kendu ta beste norbaiti emoteko eskubidea be bai. Gizartekeria nausituko balitz, baserritarrak ondoen dala be, orraxe etorriko litzakez: guztiak estaduaren maizter, eta nozbait etxagun izateko itxaropenik iñok bez. Gizartekeriak baserritarrak eskintzen dautsen zoriona, orixe da; zorion ederra, latz ederra!

Aurrerago esan dogunez, gizartekeri edo sozialismoak ondoen dala be, oraingo etxagunak maizter (errentadore) egingo leukez. Ori etxagunentzat, ziñez, etorkizun ederra da, benetan ederra! Baña oraingo maizterrak eleukez etxagun egingo, etxaguntzea ta gizartekeria ura ta sua baño geyago alkartu ezin leikezan gauzak dira ta.

Orraitik be, baserritarrak ikaratuko ete diran bildurrez edo, jaun orreititik batzuk euren eretxia bigundu nairik, auxe gañeratzen dabe: Baserritar lugiñai orain darabilezan bazter eta lurren jabetzea kendu arren, bazterra bera kendu bearrik ez legoke. Bazter orre in ugazaba ta jabe estadia egingo litzateke; baña estadia baserritarrakin ainbat urterako eguinea edo kontratua egin al izango leuke ta, augaitik, baldintza edo kondiziño batzuen bibeze, lurrok landu ta erabilteko, orain darabilezanai eurai be emongo litzakeoz. Norbait etxaldea itxi bearrean aurkituko balitz, or sartu dituan obariak aintzat artuko litzakeoz eta onelan ezer eleuke galduko.

Baldintza orreik zeintzuk izango litzatekezan, jaun orreik zeatz eztiñoskue; baña estadia, gizartearen onak orixe eskatzen dauala ta, lenengo ta be in baserritarrak errenta polita ezarriko leuskioe: gero, ipiñiriko baldintzak be zeatz bete eragingo leuskioez eta bete gura eztituanari baserrria kendu. Agintari-ordekoen ardurea izango litzake ori: morroi orre in begi zorrozpean bizi beariko leukie baserritarrak, beti maizter eta egundo etxagun izateko uste barik. Gizartekeriak, ondoen dala be, orraxe ekarriko leukez baserritarrak. Orain askoz obeto dagozala zetan esan bez. Baserritarrak be euren bizikerea obetzeko eskubidea dauke. Orretarako alegiñak egitea, ondo dago; baña gizartekeria orretarako biderik txarrena da ta, barrikeri galgarri oni baserritar gorroto bizia izan bear leuskioe.

XXIV

Gure baserritarrak be sarietan sartu nai

Errenten goraberea dala ta; Madril'go agintariak, baserrietako maizterrai azken urteokaz ugazabak, zio berezi barik, jaso dautsen etxe-errentea, eratsiazoteko eskubidea emon dautsela-ta, Langilien Batz Orokarra, (erderaz, Unión General de Trabajadores deritxona) be or ibili ei da bere sareak baserriraño zabaldu ta maizterrak batez be sarietan sartu nairik. Entzun dodanez, maizterren batzuk sare-mailetan jausi be egin dira. Au, ziñez, koipe bila dabiltzan beste morroi orrei entzun eta jarraitzea baño askoz txarrago ta kaltegarriago da.

Ugazabai etxe-errentea eratsiazoi nai dautsen maizterrak, Bazkun orretan zetan sartu eztauke, olako bidera jo barik be errez lortu daikien gauzea da ta; baño baserritar askok Langile Batz Orokar au zer dan eta nortzuk darabilen eztaukie: izen ederra dauko ta izana ta mamiña be onak diralako ustean dagoz, bear bada. Onezaz gañera, Bazkun onetako ordezkariak azeri zarrak dira ta, euren asmuak, lenengotan beintzat, erdiz-erdi baño eztabez agertzen: asmu onak erakutsi ta zitalak ostendu, ori egiten ondo dakie. Erlejiño arazoa —esan daroe— ori bakotxaren zeregiña da ta, gu orretan ezkara sartzan; gu langile gaxoen alde gabiltz eta onein bizibidea obetzea baño beste asmurik eztaukagu. Langile katolikuak euren sarietan sartzeko, olako gauzak esaten dabez, baño ori guzur biribila da.

Langile Batz Orokar onen buru nortzuk dira? Langile Bazkun au nortzuk darabile?

Bazkun onen buru ta jabe sozialistak dira, nai daben lez darabile ta nai daben lekura daroe. Madril'go Lege etxean sozialistak dira nagusi: oneik an daukezan aldunak eun da ogeira urreratzen dira ta zer nai ta axe egiten dabe. Nok eroan ditu ara? Langilen Batz Orokorrak bere autarki edo botoak sozialistai emon eutsezalako, orixegaitik daukez oneik ainbeste al-

dun edo diputadu Madril'go Lege etxean. Langilen Batz Orokorrak ara bialdu ebazan aldunok, erlejiñoaren kaltean ezer ez ete dabe egin? Ez gitxi be! Egun gitxi dala esan dau Kordero'k, Madril'en dauken buruzagiak: Langilien Batz Orokarra ta sozialistena ondo baño obeto aitzen dira; burdinbideko barrak baño geyago alkargandik urrundu barik, Bazkun biok bide batetik doaz; asmu ta elburu bardiñak daukez eta gure erkaltsein edo ministroak orain arte egin dabena, guztiok ontzat emoten dogu.

Langile Batz Orokorrak (Ugetistak) 1932'garren urtean egin eban Madrid'en bere azkenengo batzar nagusia. Urrilaren 22'an egindako baztarraldian etziran ordezkeriak umekerietan ibili: ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe, gizartea egin ber zala erabagi ta argi ta garbi autortu eben. Gero sozialistak eztirala esango dabe lotsa gitxigaz!

Batzorde eragilerako be sozialista ezagun onexek autu ebazan baztarrak: Besteiro, Saborit, Largo Caballero ta abar. Igazko auteskunde aurretuan arrokeriz esan eta aldarrikatzen eban Besteiro'k España'ko sozialistak iñoz baño Marxterrigo zirala, ta Largo Caballero or ibili da, arteak artu eziñik, aginpidearen jabe egiteko, ezkertar gorriakin, batera matxiñadea sortu bear dabela ta. Jaun orrein eskuetan dagoan Langile Batz Orokarra, izenez ez arren, izatez eta benetan sozialistia dala ezin ukatu.

Izan be Langilen Batz Orokarra sozialistena da, oneik darabile ta edozein gauzatan onei laguntzen dautse; baño benetako sozialista ta katoliku batera iñor be ezin izan daitekela Aita Santuak argi ta garbi esan dausku: augaitik katoliku diran eta izan nai daben gure baserritarrak, arduraz ibili bear dabe Langilen Batz Orokarraren izenean mesede opaka yoakezan morroi orreikaz.

Baserritarrak, lugin edo labradoreak, euren eskubide ta ondasunak zaintzeko alkarrekin batzandu bear leukie, euretarikoa eztanik baltzu orretan artu barik: eurentzat egokia izango dan Bazkuna ipiñi, onen buru be euretarikoak izentau eta eurak erabili bear leukie. Argitasunik bear izan ezkerorretan baserritarrak gogo onez lagunduko leuskioen gizon argiak badagoz batean-bestean; bear danean onako gizonai eretxia eskatzea ondo da; baño Bazkuna zuzendu ta erabilten euretarikoa eztan iñori be eztautse itxi bear, norbere eskubideak ondoen norberak zaintzen ditu ta. Gipuzkoa'ko nekazariak olakoxe Bazkun edo Alkartasuna egin dabe: Bizkaya'n be beste orrenbeste egitea ondo litzake, alkarren aurka ibili barik.

XXV

Gizartekeria ta Errusi'ko baserritarrak

Gizartekeri edo sozialismoa nagusi dala, etxagunik bat egiñik be ez litzateke izango. Baserritar guztiak estaduaren maizter izan bear ko leukie. Ori ondoen dala, gizartekeriak ori baño txarragorik be ekarri leike ta. Estaduaren maizter edo errentadore izan bear ko leukien baserritarrak, agintari-ordekoen begi zorrotza gañean dabela, ez litzatekez ondo ibiliko; baño maizterteza be galerazo bear dan gauzea dala ta, baserritarrak estaduaren solo ta lurretan, lantegietako langileen antzera, lan egin bearra baletorkie, orduan askoz be txarrago ibiliko litzatekez.

Gizartekeriak berenez orraxe garoaz eta eretxirik zorrotzenetariko gizartekeri-zaleak orixe nai dabe. Errusi'n gizartekeria ala baltsakeria (komunismoa) nagusi zein dan ziur eztakigu. An nagusi, baltsakeria dala diñoe; baño egia ete da? Errusi'n euren eskuko, euren buruaren jabe diran gizabatzak ete dagoz? Ango gizabatz ta errialde guztiak Moskou'ko agintari nagusien menpean dagozala obeto dirudi. Beste jaurgo guztieki batasuna arrezazoko (99) dautsen agintaritza nagusia ipintea, ori ezta baltsakeriaren asmua, gizartekeriarena baño. Errusi'ko lurralde zabal zuztia Mouskou'ko agintarien menpean dagoala deritxat, onei gogoak emoten dautsenean, alde baten zein bestean yibitots (100) izugarria ateraten dabe ta. An naste-borraste andia dabilela badakigu ta, gizartekeri ta baltsakeria be nastean dabilzala esango neuke.

Gure baserrietatik ola ta lantegietara doazen gazte batzuk, Viva Rusia! deadarka bein baño sarriago ibiltzen dira. Zer diñoen ba ete dakie? Nik

(99) Arrerazo: Artu erazo, behartu.

(100) Yibitots: Zarata, hotsa.

ezetz uste. Errusi'ko baserritarrak zelan bizi diran jakitea, gazte orrei ta beste batzuri be ondo etorriko yakela uste dogu. Andi-andiak baño ezto-guz aitaturko, ara joateko ta alan biziteko gogo kentzeko, andi-andiok be naiko ta lar dira ta.

Boltxebikiak nagusi egin ziranetik ona, Errusi'n iru jaurkera edo gobernu-klase euki dabez eta beste orrenbeste bizikera ango baserritarrak be. Lenengo aldian gudari gorrien agintzapeko baltsakeria 1921'garren urteraño; gero *Nep* eritxon ondasunen jaurkera barria 1925'garren urterarte; arrezkero gudarien menpean barriro be baltsakeri edo komunismoa dauke. Errusi lur zabal andien jabe da ta, estaduak guztiak beretu zituan; baña baltsan erabilteko eran erdiak baño asko geyago ezin ipiñi izan ditu, orretarako alak egin arren.

Errusi'ko baserritarren bizikerea, zelakoa izan ete zan Lenin'en agintzapean?

Lenengo aldian lurra era bitakoak ziran: batzuk estaduarenak eta onei *sovhoz* eritxoen; beste batzuk baltsan edo nastean erabilezan Lenin'en aginduz, orretarako alkartu ziran baserritarrak eta onei *kolhoz* eritxoen. Orrezaz gañera baziran baserritar batzuk solo ta bazterrak eurenak izan bailiran, eurak landu ta erabilezanak be. Estaduak lurralde guztia baltsan ezin ipiñi ebalako, baserritar orrei bakean itxi eutsen. Ziñez, ori agintarien gogoko gauzea etzan izan; baña besterik ezifian, ez ikusi egiten eben.

Estaduak urdaila andia, ori aseteko asko bear, eta lurra ekarren zitu guztia berea zala esan eban, eta baserritarri urte barruan biziteko ta barriro ereiteko beste itxita, enparau guztia kendu eutsen. Baña baserritarrak be zoroak ez izan ta urrengo urteetan bakotxak beretzat bear eban beste baño ez eben erein. Gosete izugarria etorri zan eta bazan Errusi-aldean aginkarraskotsa ta negarra baño etzana. Laguntasuna be bialdu yaken, orretan Aita Santua aurrenengo zala; baña ori ta guzti be miloe asko il ziran gosez.

1921'garren urtean Lenin'ek bere asmuak porrot egin ebela autortu bear izan eban. Gauzak nai ta ez aldatu egin bear zirala ta, *Nep* izenaz dazaugun ondasunen jaurkera barria nausitu zan Errusi'n. Jaurkera barri onek baserritarri lurren jabetzarik ez eutsen emoten, estadia baño beste jaberik ez egoala ta; baña landu ta erabili nai ebezan lurren gozomena bai, ori emoten eutsen eta lurra ekarrena, eurena bailitzan saltzeko eskubidea be bai. Merkatuak be ipiñi ziran batean-bestean eta baserritarrak agintariak

deadar egin eutsen, esanaz: Aberats izateko aldia etorri yatzue ta, aberastu zaitze.

Eta zelakoa ete da Stalin nagusi egin zan ezkeroko?

Baña baserritarren zorion txiki orrek ez eban luzaro iraun. Stalin'ek barriro baltsakerira jo eban eta ango baserritarrak gudari gorrien begi zorrozpean, barriro be alper eta arrote askorentzat lan egin bearrean dagoz. Stalin dalako orrek lengo *sovhoz* eta *kolhoz'*ak berbizitu ebazan eta baserritar guztiei, nai ta ez, baltsa orreitan sartu eragiteko, tximista gorriak erabili ditu.

Baziran Errusi'n be bazter onaren jabe ziran baserritar aberatsak: onei ango izkuntzan *kulak* deritxoe. Guztiak ago bete azurraz itxi ditu Stalin dalako morroi orrek. *Kolhoz* baltsan sartzeko agindu eutsen guztiei ta geyenak nai ta ez sartu bear izan dira. Orretarako gogo txarra eukenai, bazterra kendu, sasi ta otaz beteriko mendi-aldapa idorra erakutsi ta esan eutsen: zuk zeure kontura lan egin nai dozu, ezta? Ba, darabilzun bazter au geurea da ta, zeure kontura lan egin nai badozu, antxe mendi-aldapan daukazu orretarako toki egokia ezin ohea. Zoaz ara. *Kulak* edo baserritar etxagunok, ikaraz eta txarragoaren bildurrez, *kolhoz* baltsan sartu bear izan dira, bizi al izateko orixe baño beste biderik eztabe euki ta. Errukarriak benetan orrelan bizi diran baserritarrak.

Eta Errusi'ko lugiñak (nekazariak) orain zelan ete dabiliz?

Orain Errusi'n iru eratako *kolhoz* edo baserritar-batzar ei dagoz. Lenengo mailako batzan dagozan baserritarrak, lurra mugarriz bananduta ei dauke: bakotxak bere sailean lan egiten ei dau ta orretarako bear dauzan abere ta tramankuluak be laketzen ei dautsoez, artzen dauanetik onenbeste edo ainbeste estaduari emotekotan: ori zetan esan bez. Bigarren mailako *kolhoz'*ai *artel* deritxoe. Onelako batzan dagozan baserritarrak, lurra mugaz bananduta barik, guztiak aldran ei darabile: lankai ta abereak be guztienak ei dira ta bakotxak guztientzat lan egin bear ei dau: orraitik be bakotxari beyen bat eta oiloen batzuk edo, bereak bailiran, eukitea laketzen ei dautsoe. *Kolhoz'*ik bikañena irugarren mailakoa da. Onelako batzan bakotxak bere gauzarik ezertxu be ez ei-dauko; guztia baltsan ei dago ta guztia guztiena ei da. Ango agintarien begiko onexek azkenengo *kolhoz'*ok ei dira ta baserritar guztiak onako baltsan sartzeko alak egiten ei dabez.

Ango baserritarrak —geyenak beintzat— agintarien asmaketa ori begi txarrez dakuse: gudari gorrien menpean estaduarentzat guztiak aldran lan egin bear orrek, neke gorriak dakartsez; olakorik ez leukie nai; baña bizi al izateko beste biderik eztauke ta, gaxo andiak, gura nai gurez, euren buruak, buztarri astun orren azpian ipiñi bear izan dabez. Errusi'n boltxebikiak etorri aurretik be, baserritar asko etziran ondo bizi; ori egia da; baña orain gizon be eztirala nekez eta lorrez bizi dira, gizonaren eskubide barik, zamarien antzera lan egin bear dabe ta. Ori orrelan izanik, Viva Rusia! deadarrez ibilteko gogo bear da!

XXVI Boltxebikiak eta Dumping'a

Errusi'n baserritarrak txarto dabilzanik askok eztabe siñestu gura. An garia ugari egon dala beste estaduei egin dautsen *Dumping* orregaz argiro erakutsi dabe ta, ango baserritarrak txarto ta gosez ibiltea, zelan izan daiteke? Ori benetan siñeskatxa da. «Lurrak bere emaitzak ugari dakartzanean, bizibidea merkeagoa izan oi da: Errusi'n lurrak bere zitu ta emaitzok ugari ekarri dauzalako, errusitarrak, atzerrietan be gari, garagar, olo (101) ta olako gauzak, beste iñok baño merkeago saldu al izan dabez, eta Ameriketa'ko erri batzuetan euren gariak saldu eziñik, erre egin dabezala be entzun dogu. Errusi'ko baserritarrak garia zenbat nai, atzerrietan erdi debalde saltzeko lagin artu badabe, baserritar aek txarto ibiltea aitu be ezin leiken gauzea da ta, olakorik eztogu siñestu nai». Askok ori esan daroe; baña ango agintarien asmuak ezagutu ezkeru, gauza bi oneik, atzerrian garia merke saltzea ta baserritarrak txarto ibiltea errez alkartu gegikezan gauzak dira.

Errusi'ko agintariak ango gari, olo ta enparauak atzerrira zegaitik bialdu ete dabez? Eta ain merke zegaitik saldu?

Orixe jakin ezkeru, matazea askatuta dago. Atzeritarren ederra irabaztearren ala iñori mesede egitearren izan ete da? Errusi'ko agintariak euren onaren bila dabilz: dauken jaurkera edo agintzeari eutsi nai dautse. Atzerrietan Errusi'koaren antzik be eztauken jaurkerak nagusi diran bitartean, euren ezin sendotu daitekela badakie: ibili ta ibili, azkenean ankaz

(101) Olo: avena.

gora joango ez ete dan bildur dira ta, origaitik jaurkera orrek sakabanatu nai leukiez. Errusi'koaren antzeko matxiñadak sortu daitezcan, atzerrietako agintariei albait eragozpen eta zoztorrik (102) geyen ipintea lakorik ezta-goala ta, asmu orregaz euren gariak atzerrietara bialdu ta albait merkeen salgai ipiñi dabez.

Ori egiñaz lortu nai izan dabezan gauzak, onexek dira: atzerrietako gariak bear bestean saltzea eragotzi, lugiñak praketan estu ipiñi, lur langileak lan barik itxi ta edozelako langileai matxiñadara bultz egiteko, Errusi'ko langileak ondo dabiltzala erakutsi, beste iñongoak baño obeto bizi dirala sifestu eragin.

Baña atzerrietara bialdu daben gari ori, Errusi'ko agintariak nondik eta zelan lortu ete dabe?

Atzerrian merke saldu dabela badakigu; baño merke saltze ori, zergaitik izan ete da? Errusi'n bertan merkeago eskuratu dabelako, orixegaitik izan dala ezin ukatu; baño ango agintari bitxiak garia ain merke, zelan eskuratu ete dabe? Ortze dago untzea. Diñoenez, baserritar gixaxoai eten barik lan egiñazo dautse, gudari gorrien agintzapian: gero langile errukarri arei biziteko lagin itxi ta enparaua kendu. Ori gure artean lapurreta garbia da; baño Errusi'n ez: an gauza guztiak estaduarenak dira ta, ori ezta lapurretea, norbera eskuratzea baño. Errusi'ko agintariak azeri bizkorrak dira ta, ango garirik geyenak duan(103) eskuratu dabez, eta duan eskuratu dabezalako, edo obeto esateko, ango baserritarrai ostu dautsezalako, orixegaitik atzerrietan oso merke saldu al izan dabez; baño ori egiñaz, Errusi'ko baserritarrak zer irabazi dabe? Mesede baño kalte geyago ekarri dautsela zetan esan bez: augaitik atzerrietan garia merke saltzea ta Errusi'ko baserritarrak txarto ibiltea errez alkartu gegikezan gauzak dira.

Eta ori orrelantxe izan dala jakiteko, burua ausi bearrik eztago. Lugintza edo nekezaritzan, errusitarrek Ipar-Amerikarrak baño aurreratua-go ete dagoz? Eztago olako masti-atxurrik! Lur lantzean be Ipar-Amerika Errusi baño askoz aurreratua-go dagoala edonok daki. Errusi'ko morroyak garia Ipar-Amerika'ra be bialdu dabe ta —arrigarriago dana!— ara eroan ta gero, bertoko garia baño merkeago salgai ipiñi dabe. Mirari aundi ori, zelan egin ete da? Errusi'ko agintariak ango baserritarrai euroen lana bear bestean ordaindu baleutse, mirari ori ezelan be ezingo eben egin. Mirari

(102) Zoztor: Oztopo.
(103) Duan: Dohainik.

ori egin al izateko, Errusi'ko agintariak bide bat baño eztabe euki: lurrak dakarren guztia, estaduarena, ori ontzat emon ezkeru, biderik errezena: baserritarrai bape ordaindu barik edo oso gitxi ordainduta, lan egiñazo; onein lanaz lurrak dakarrena, lapurreta barik, duan artu ta merke saldu. Estaduak iñorena duan beretu ezkeru, merke saldu arren be irabazia dauko. Guztia estaduarena dala ta, iñorena artu ta saltzen daben agintariok eztabiltz txar-to; baño, lanaren irabazi barik gelditzen diran baserritarrak? Atzerrietan garia ain merke saltze ori, Errusi'n baserritarrak iñok uste baño txarrago dabiltzanaren ezaugarri argia da.

XXVII

Alogera ta alogerekoak

Langileen alogerak jaso edo goratzeko asmuz oporketarik asko egin dabez sozialistak; baña gizartekeriaren elburua ez ei da ori, besterik baño. Oraingo alogerok bein-betiko baztertu ta, gizartea beste era batera, alogereko barik, atondu ta antolatzea, gizartekeriaren asmua orixe ei da; baña ori ezta egia. Ekarkor diran gauza guztien jabe ta ugazaba, estadua egin nai dabe sozialistak; baña buru ta agintari barik, estadua ezin ibili daiteke ta, izenez ez arren izanez beintzat, gauza ekarkor guztien ugazaba ta jabe agintariak eta onein ordekoak izango litzakez, eta enparau guztiak lan egin eta lanaren orde z aek emongo leuskionaz ase ta naikotu bearko leukie. Ori alogerekoak gitxitzeko baño geitu ta ugaritzeko bide obea dala edonok dakus.

Eleizeak, ostera, ugazabak geitu ta alogerekoak al bestean gitxitu nai ditu. Lurreko ogasunak dagozan baño obeto ta zuzenago banandu daitezkan, langileai zor yaken besteko alogera emon bear yake: zur eta arduratsuak diranak, bakotxean zerbait aurreratu al izango dabe, eta aurreratu daben orregaz etxe nai solo nai beste zer-edo-zeren ugazaba ta jabe izan daitezkan, bideak leundu ta erraztu bear yakez. Ori diño e Aita Santuak, eta euren kontura lan egin daikienak geitu ta alogereko soilak gitxitzeko biderik onena orixe dala ezin ukatu.

Alogerak neurri zuzenera ekarteko, aintzat artu bear diran gauzak, zeintzuk ete dira?

Aita Santuak iru gauza aitatzen ditu. Lenengo ta bein, edozein langilek bere onerako ezeze gizartearen onerako be lan egin daroa ta, beargiñaren eta beronen sendiaren bizibiderako lagin gitxienez izan bear dau alogerak. Sendiko enparauak, bakotxak al dauan eran, buru dan aitari bear dana irabazten laguntzea ondo da, ta sendi askotan, lugiñen eta dendarien

artean batez be, olan egin oi da; baña sendiaren biotz dan ama, umetxuen azi-ikaskuntza laga ta, ola ta lantegietara aloger bila joan bear izatea, txar-to dago ta gizartearentzat be kaltegarri da: ori dala ta, sendiko buru diranak, euren alogeraz etxeko bearrian arrontai arpegi emoteko lagin irabazi dagien, alak eta lerrak egin bear dira.

Ori egin al izateko, orain eragozpenik badago, eragozpenok albait lasterren baztertu ta gauzak beste era batera ipiñi bear dira: gizartean beti nagusi izan bear leuken zuzenak orixe eskatzen dau ta. Gurasoak seme-alabak ekarri dabezalako, langile-sendiaren premiñiak geitu oi dira: bearrianok geitu diranean, irabaziak be era berean geitu daitezcan, neurri ta bide egokiak artu dabez, ugazaba batzuk; ori egin dabenok benetan txalogarri dira ta gogoz txalotzen doguz —diño Aita Santuak. [(1)*]

Alogerak neurri zuzenera ekarteko, bigarren aintzat artu bear dan gauzea, zein ete da?

Alogeren neurria izentau al izateko, garatz edo negozioa zelan dabilan be kontuan euki bear da. Garatzak, porrot egin barik, emon ezin leikezan besteko alogerak eskatzea, bidegabea litzake, ta garatzarentzat ezeze langilearentzat be azkenean kaltegarri, garatzari porrot eragiñaz, non lan egin eztaukela geldituko litzakez ta. Baña langileai alogerak erasteko, ugazabak gitxiago irabaztea, ziorik naiko ete da? Zelan dan. Ugazabak nagikeriz bere garatzari jaramon gitxi egiten dautsalako, nai bere lantegian aurrerapenak sartzeko ardurarik euki eztaualako; gitxiago irabazte ori ortik baletor, langileai alogerak erasteko ziorik naiko eztala diño Aita Santuak.

Langileai bear besteko alogera emoteko lagin, garatzak irabazi ezpadagie, ta ori agintariak zerga andiegiz zapaltzen dabezalako nai lanaren ekarkiñak (104) merkeegi salduazoten dautsezalako bada, ori dagien agintari txarrak langileetaz be errudun dira. Olako estualdietan guztiak, ugazaba ta langileak, alkar ondo arturik, alak egin bear dabez estualditik albait ondoen urteteko, ta agintariak be al bestean lagundu egin bear dautse. Garatza oso txarto balebil, jarraitu ete leiken ala lantegia sarratu ta langileak beste lantegiren baterako bidea artu bear daben, oldoztu (105) ta era-

[(1)* Ordainbide-kutzak antolatu dabezan ugazabak dira Aita Santuak goresten dituanok «e.o.»]

(104) Ekarkiñak: Emoitzak, fruituak.

(105) Oldoztu: Pensar, reflexionar.

bagi bearko da ta, orduan ugazaba ta langileen arteko eretxi-batasuna iñoz baño bearragoa izango da.

Alogerak neurrian erabilteko, ze besterik euki bear da kontuan?

Alogeren neurria gizabatz osoaren onak eskatzen dauan bestekoa izan bedi. Aurrerago esan dogunez, langile ta alogerekoak, euren irabazietatik zerbait aurreratuz, zelako edo alako domu edo jabetzarako bidean ipiñi bear dira: ori gizabatz osoaren onak eskatzen dau. Baña gaur egunean batez be, beste gauza bat be gomutan erabili bear da: langile asko, aspalditxuan batez be, lan bila ta non lan egin eztaukela dabiliz. Lan egin al eta nai dabenai orretarako eretia emon bear yake. Alogerak bear dan neurrian erabilteak, orretarako askotxu lagundu leike; zentzun barik larregi eratsi nai goregi jasoteak, ostera, eragozpenak ekarri be bai. Diru-egarriz eta zentzun gitxiz alogerak gora ta bera erabilte ori dala ta, aspaldian ainbat langile, non lan egin eztaukela, aserrez dabiliz. Aberriak be txirotu egin dira, nastea ta matxiñadea edonon sortu da, bake ta atsedetik iñon eztago. Gizabatz osoaren ona zokondora jaurti ta norberak geyago irabaztearren beste barik, alogerak eratsi nai jasotea, gizarteko zuzenaren aurka da.

Azkenez, ogibide ta zeregin guztietako alogerak, lugintza, ola-ekin-tza, saleroste ta enparauetako irabaziak, adiñon zuzenez alkartu bear litzakez. Ori egingo balitz, gizarteko ogibide guztiak gorputz bat lez egingo leukie ta gorputz-atalak bata-besteari laguntzen dautsen antzera, gizarteko ogibideok be alkarri lagunduko leuskioe. Ogibide guztiak onelan, adiñon zuzenez, alkartu ezkerro, ogasunetzazko arazo au oñarri sendo gañean legoke, ta langileak euren premiñai arpegi emon eta nasaitxu biziteko lagin irabazi al izango leukie. Langileen bizibidea goratze oñek, ostera, ezereen kalte barik, onbideai be mesedea ekarriko leuskioe. Ori diño Aita Santuak, eta alogerekoen bizibidea obetu ta gizartea bakez ipinteko, sozialista ta antzekoen txakur-amesak baño bestelakoa da Aita Santuak diñoskun ori.

XXVIII

Gizartekeria ta alogerekoak

Beargiñen lana alogeraz ordaintzea, okerkeri andia ta langile gaxoak joputza errukarrian eukiteko bidea dala diño sozialisten buruak. Ori dala ta, oraingo ugazabok eta oneik langileai damotsezan alogerok bein betiko kendu bear ei dira, estadia baño beste ugazabarik iñongo iñon laketu barga. Ugazaba bakarria izango dan estadia onek, ordainbide-txartelak emon-go ei dautsez langileai, ta biziteko nai jolasteko bear dabena, txartel orreïn bidez erosi ta eskuratu al izango ei dabe langileak. Baña ordainbide-txartelok, zer dira? Ondo begiratu ezkerok, estadia langileai emongo leuskioen alogera baño besterik, ez. Au onelan izanik, alogeraren izena aldatuaz eta estadia ugazaba bakar egiñaz, zer aurreratuko ete litzate? Ugazaba bakar onen menpean alogerekoak geitu ta ugaritzea baño besterik, ezer bez.

Gizartea gexo andi ei dago. txarto dagoalako sendakai edo erremedio indartsua bear ei dau. Bear dauan sendakai ori gizartekeriak ei dakartso. Sozialisten buruak ori diño beintzat.

Egia ete da? Gizartekeriak alogerean dabiltzan langileen bizibidea, obetuko ete leuko?

Sozialistak bayetz diño; baña diñoen ori on egiten, egia dala erakusten, eztakie. Ori on egitea gauza gatxa da izan be. Gizartekeria nausituko balitz, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe gizabatza ala estadia izango litzateke. Gauza orreïn ugazaba izenez gizabatza ala estadia; izanez eta benetan gizabatzaren nai estadiaren buru ta agintariak, benetako ugazabak oneik izango litzakez, eta langileak orreïn otsein eta morroi. Lanak eta lanaren irabaziak banatzea, gizarteko

agintarien ta onein ordekoen ardurea izango litzake. Agintari ta ordekoen aizkideak ondo ibiliko litzakez: enparauak gaur egunean baño be txartoa-go, estadia sabel andi ta biotz txikiko ugazaba da ta.

Gizartekeriak alogerekoen bizibidea asko obetuko leukela diñoie sozialistak. XIII Leon Aita Santuak bizibide ori txarragotu egingo leukela adierazo euskun, eta Aita Santuak zer ziñoan ondo ekian. Edozein langilek bere lanaren ordaña, bere alogera artzeko ezeze aloger orregaz nayen dauna, bere ta berien mesederako ondoen deritxona egiteko be eskubide osoa dauko. Irabazietatik zerbait aurreratu badagi ta arduraz bizita aurreratu dauan diruaz etxe naiz bazter bat erosi badagi, erositako etxe naiz bazter ori langilearen alogera baño besterik ezta; beste era baten bai, baño langileak bere alogoretik aurreratu dauana da ta, langileak orrelan erositako etxe naiz bazterra, bere izerdiz irabazitako alogera baizen berea dau. Ondasunetzazko jauntza edo jabetzea orixe baño besterik ezta.

Baña, sozialisten eretxiz, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jaun eta jabe gizartea baño beste iñor ezin izan daiteke: gizon bakotxak orretarako eskubiderik ez ei dauko: origaitik eskubide ori gizon bakotxari kendu ta gizarteari emon bear yakola diñoie; baño onelan alogerekoen bizibidea, obetu bearrean, txarragotu egiten dabela, nok ukatu? Lenengo ta bein langileari bere izerdiaz irabazi dauan alogera ondoen deritxonez erabilteko aukeramen edo libertadea moztu egiten dautse sozialistak; gero, bere ondasuna, bere aziendatxua geitzeko itxaropen eta almena be errotik ebagi. Ori ta guzti be, gizartekeriak alogerekoen bizibidea asko obetuko leukela esango dauskue. Lotsa gitxi bear da ori esateko!

Ogasun ekarkorren edozein jabetza lapurretea dala diñoen sozialistok, burutik ondo ete dagoz?

Bakotxaren jauntza ta jabetzea lapurreta garbia zala esan eban Proudnon'ek. Lapurretaz eskuraturiko guzur-jabetzarik eztagoanik eztiñogu; baño iruzurrez eta lapurretaz zerbait beretu daun edonor jabeari biurtu bearrean dagoala, Jaungoikoaren legeko zazpigarren aginduak diñosku. Proudnon'en esana sozialistak be sarritan erabili dabe. Edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea gizon bakotxak beretu badagi, ori lapurreta garbia da sozialisten eretxiz. Ori diñoie beintzat; baño diñoen ori guzur biribila da.

Guzurra dala ikusteko, egin daigun kontu langile bik zeregin eta irabazte bardiña daukezala: urtean bost mila bana lauerleko irabazten dabezala. Batak nasaitxu bizi nai dau: ondo jan, ondo edan, ondo jantzi, ara ta

ona ibili, au ta beste ikusi, jolastu ta atsegin artu. Orrelan bere irabazia urtero eralgi ta sautu daroa. Berea dau ta bereagaz ondoen deritxona egiteko eskubidea dauko —esan leike norbaitek—. Ori be ezta beti egia; baño eztaukanik be eztiñogu.

Beste langilea arduratsu ta begiratuagoa da: bear-bearrekoa baño ezta eralgi nai; urritxu bizita, urtean bi mila lauerleko aurreratzen ditu. Etxagun izan nai leukela ta, urte batzuen buruan aurreratu dauanaz etxaldea erosten dau ta etxagun egiten da.

Langile biok zeregin eta aloger bardiñak euki dabez; baño biak, bardiñ lan egin ete dabe? Ez orixe! Gizon askorentzat irabaztea baño irabazitiki aurreratzea gatxago izaten da. Dirua aurreratzeko be burua nekatu bear da ta, bigarren langile onek birritan lan egin dau: irabazten bein eta aurreratzen beste bein. Aurreratu dauan dirua irabazi eban alogera baizen berea dau. Erosi dauan etxaldea, aurreratu dauan diruaren ordaña baño besterik ezta ta, aurreratu dauan dirua baizen berea dauala ezin ukatu. Dirua aurreratzeko ardurarik artu eztauan beste langilea baletorkio ta esango baletso: «Aiskidea, lapurretan egin dozu: erosi dozun etxalde ori ezta zurea, gizartearena baño, eta gizartearena dalako, zurea bestean neurea be bada». Au ondo ete legoke? gauza zuzena ete litzake? Bidegabekeri andia izango litzatekela edonok dakus, sozialistak izan ezik.

Gizartekeria nausituko balitz, langile onek bere izerdi ta alegiñaz erosi dauan etxalde ori berea eleuke izango: lurra landu, lurra lekarkezan zitu, arnari edo frutuak saldu ta ortik biziteko eskubiderik eztaukala esango leuskioe benetako sozialistak, lurra ta onen zituak gizartearenak baño beste iñorenak ezin izan leitekezala ta. Sozialistarik otzan edo mantsoenen eretxiz be, langile onek erosi dauan etxalde ori berea dauanik ezin go leuke esan: geyenez be estaduaren maizter bailitzan, etxaldea erabilten itxiko leuskioe ta langile onek, bere izerdiaren ordaña dauan etxaldearen errentea estaduari ordaindu bearko leuskio. Ori ta guzti be, sozialismoa gizartea zuzentasuna ipintera ta alogerekoen bizibidea obatzera datorrela esango dauskue. Siñestu dagioena ezta tentel makala!

XXIX

Lana bear dan lez ordaintzeko, alogeraz gañera, beste biderik be badago

Alogera berenez bidegabea eztala argiro irakatsi dauskue XIII Leon eta XI Pi, Aita Santuak. Eta egiz, ugazabak langileari, onen lanari dagokion baño aloger txikiagoa emongo baleutso, orduan bai, orduan bidegabe ta makurkeria agirian legokez; baña lanari dagokion besteko alogera emon ezkeru, orretan bidegaberik ezta iñon agiri.

Domua, (kapitala) lan barik, ezta irabazpide: lanak be, domu barik, gauza andirik ezin egin legike. Irabazia ekarteko ugazaben domua ta bear-giñen lana alkartu ta batu egiten dira. Ez bata ez bestea ezta irabazpen osoaren iturri, biak batera baño; augaitik zuzena ausi nai ezpada, ugazaben domuari ta beargiñen lanari, bakotxari bere tokamena (106) zeatz emon bear yako.

Baña tokamen ori norañokoa dan, nok neurtu ta erabagi?

Garatzaren irabazietan domuari ta lanari dagokiezan tokamenak zeintzuk diran, oraindik eztau iñok argiro azaldu. Ezta izan be egiñen erreza. Orraitik be, gauza bat guztiok dakusgu. Garatzaren irabaziak geitzen diran neurrian, domuaren tokamena andiagoa izan oi da; baña irabazpenen geitze ori, zek ekarri dau? Geitze orren iturri be ugazaben domua ta beargiñen lana, biak batera izan dira ta, lanaren tokamena be jaso ta goratu egin bear dala begien aurrean dago.

Au dala ta, euren garatzetan, *escala móvil* deritxoen aloger aldakorra ipiñi dabe an, or, emen ugazaba batzuk, garatzaren irabaziak gora doazanean, langileen alogera be goratze orren lauren baten edo jaso ta

(106) Tokamena: Dagokiona (lo que le corresponde).

irakoriaz (107). Esaterako, upelkada arrikatza 20 lauerlekoan saltzen danean, langilearen alogera 10 lauerleko balitz, arek 30'ra igon ezkerro, onen alogera 12'50 izango litzateke. Au be zerbait baño geyago da; baño alogeraren goratze au garatzak bere irabazkietan lortu dauanaren neurriz egiten eztalako, gizartelari askok gitxiegi deritxoe, eta langileai, alogeraz gañera, garatzaren irabazietan be euren tokamena izentau ta emon bear litzakiela uste dabe.

Garatzaren irabazietan langileak euren tokamena eukite onetaz, zer ete diño Aita Santuak?

«Alogera berenez ezta bidegabea eta badala diñoenak, XIII Leon gure Aurretikoari irain andia egiten dautse —diño XI Pi Aita Santuak; baño alogera berenez makurkeri ta bidebagea izan ez arren be, oraingo gizabazten izakera ta bizikerea aintzat arturik, aloger-egiune (108) edo kontratu ori, baltzu-egiunearen (109) bidez, albestean leundu ta gozatuko balitz, gure aburuz obe litzateke». Ori esanaz, auxe adierazo nai dausku Aita Santuak: langileai, alogerez gañera, garatzaren irabazietan be euren tokamena emongo balitzakioe, ori aloger soila baño egokiago izango litzatekela. Eta tokamen onen bidez langileak, ugazabakin batera, garazkide izatera baletorz, oraindik askoz obe. Gauzak onelan atondu ezkerro —diño Aita Santuak— «langile ta arazodunak garatzaren jabetzan, lanaren zuzentzean eta irabazietan be zelanbait eskua artzen dabe», eta esku-arte ori ugazaba ta langilen bakerako bide on-ona dala ezin ukatu.

Eta beste bein be onelan diño Aita Santuak: «Lurreko ogasun eta aberaskie Jaungoikoak izentau dautsen elburua osoro edo beintzat al bait osoroen lortu al izateko, ogasun eta aberaskiok gizartean edozelan banatzea, ezta naiko. Elburu ori lortzeko, aspaldion egindako aurrerapideak eten barik ugaldu dabezan ogasunok, gizarte osoaren onari dagokionez, edo bardin dana, guztien onaren kalte barik, banandu ta zabaldu bear dira gizaki-mueta guztien artean. Irabazietan bakotxari dagokion tokamenetik gizaki-mueta bata bestea albora bota ta esku-utsik iztea; ori galerazo egiten dau gizartean nausi izan bear dauan zuzenak». Bakotxari berea, orixe da zuzenbidea. Ori dala ta, gizarteko zuzenari ofiean eusteko, zelan edo

(107) Irakori: Levantar.

(108) Aloger-egiune: Contrato de trabajo.

(109) Baltzu-egiune: Contrato de sociedad.

alan, era batera edo bestera, domuari berea ta lanari be berea emon bear yako.

Langileai irabazietan tokamena izentau dautsen garaizki, ez ete da iñon izan orain arte?

Bai, azken urte oneitan olako garatzak ainbat izan dira, England'an batez be: baño langileak oso garrantzi gitxi emon dautselako, irabazietako tokamen ori ugazaba askok baztertu egin dabe. Eta langileak ain garrantzi gitxi emote ori zegaitik izan ete da? Pottier jaunak diñoanez, irabazietako tokamenaren izenaz ugazabak langileai uskeri bana baño emoten izan eztautselako, orixegaitik izan da. Izen andi orregaz ugazaba askok langileai emon dautsena, batzuetan eskupekoa izan ei da; beste batzuetan lan ugari edo obearen ordeko saritxua, ta bein baño sarriago, alogeraren narritik aterariko ugela (110) edo iruzur garbia.

Mamirik bako azal utsa, izanik bako izan utsa, zetarako da? Langileai olako uskeriak emotekotan, onein irabazietako tokamenik aitatu be ez tzan egin bear. Zuzena jagon eta bakotxari berea emoteko, zetan esan bez, domuaren tokamena aziaz, lanarena be, aren lagiñean, jaso egin bear da, bestelan langileai iruzur egitea izango litzake ta. Langileakin bakea nai dauan ugazabak, garbi jokatu bear dau, iruzurak aserrea ekarteko baño bestetako ez tira ta.

Ugazaba ta langileak alkarren arteko bakez eta gogozago lanari ekin dagioen, biderik egokiena zein ete litzake?

Garatzaren irabazietatik langileai letorkien tokamenaz, oneik garazkide egitea; bakerako ta lanari gogozago ekiteko biderik onena orixe dala uste dabe gizartelari (111) ospetsu askok. Ori bear dan lez egin ez talako, lanaren irabazietako tokamenak bere garrantzia orixegaitik galdu dala diño Pottier jaunak. Gauza onik egitekotan, jaun onen eretxiz langileak garazkide egin bear dira, bakotxaren tokamenak laketzen dauan giñoan.

Ori zelan egin leiken be, aiko-maikoetan ibili barik, argiro diño gizartelari onek, bere eretxia onelan azalduaz: a) Garatz edo ekintzaren ira-

(110) Ugela: Guzurra.

(111) Gizartelari: Soziologo, gizarte-aztertzailea.

bazpen ziuira oñarritzat artu; legearen aginduz gerorako gorde bear dana, ortik eratsi; domu garazkiei (112) (oneik diruz ormidu bearrak ezpailiran) euneko sei emon ta gero, enparetan dana erdibitu bedi, domu garazkien eta lanaren artean ainbanatuaz. g) Lanari ezarri ta emondako kopurua, baltzuan urte bi gitxienez dareozan langile ta arazodunen artean banandu bedi, urte barruan bakotzak alogeretan jaso dauan kopuruaren neurriz. k) Lanaren tokamenak garatzaren kutzara beyoaz eta mozkin lez euneko lau emon bekioe.

y) Langilearen kopuru ta mozkiñok domu-garazkiaren baliora eldu daitezanean, olako langileari bere lan-garazkia (113) ezarri ta emon bekio, lenengoarena lakoxe irabaziaz. j) Lan-garazkiok sortuaz batera, beste ainbeste domu-garazki, bardiñean eta zozkeraz, sakeleratu begiz garatz-baltzuak (114). x) Lan garazkiok euroen jabeai domu-garazkidunen eskubideak bekartsoez batzar-nagusi ta beste arazo batzuetan. e) Baltzuko lankide ta arazodunai izan ezik, langile bat-ez-batek bere lan-garazkiok beste iñori ezpegioz saldu, baltzuko buru diranen baimen barik. d) Garazkide dan langileren bat il nai baltzutik urtengo balitz, orren lan-garazkiok erosteko eskubidea baltzuak berea dau.

Noz edo bein garatz-baltzua apurtu ta banatzera baletor, aren ogasunak bere aburuz zelan banandu leikezan be, azaltzen dau Pottier jaunak; baña emengo ugazabok euren langileak garazkide egiteko, nagi be nagi, muker be muker dagoz ta, orain olakorik zetan azaldu eztogu.

Ugazaba ta langile arteko asarre, gorroto, lazka ta burruka oneik, zelan edo alan, batera edo bestera —osoro kendu ezin balediz be— albait geyen bigundu, baretu ta gozatzeko, alak eta lerrak egin bear litzakezala, ori gizartelari guztien eretxia da, ta Aita Santuak be argiro esan eta irakatsi dausku. Ugazabak aurreratuko balira, gizarte-auzi au, bear bada, matxiñada barik atonduko litzateke; baña ugazabarik geyenak onetan amor emon baño beti burrukan ibili be nayago dabe ta, Doureloux, Tournai'ko Gotzain jaunak bein baten esan ebana jazoko ez ete dan bildur izateko da. «Onetan erriaren bultzakadearei eutsi legion indarrrik eztago: aldakuntzea nai ta naiez dator. Aldakuntza ori edo gugaz edo gu barik egingo da, eta gu barik egin badadi, erlejiñoaren eta aberatsen aurka izango da». Eta orduan kokoteari atz-egitea, alperrik izango da.

(112) Domu garazki: Acciones del capital.

(113) Lan-garazkia: Participación como trabajador (Accionista laboral).

(114) Garatz-baltzuak: Sociedades de negocios (Compañías mercantiles).

XXX Gizarte-auzia ta ugazabak

Urteokaz meatoki ta oletako langileak, batez be, Eleizearen magalpetik aurrez urrundu dira, ugazaben erruz be ez gitxi. Orraitik be beste langile askok, Eleizearen irakaspenak aintzat arturik eta orrean gerizapean bizi nairik, kistar langile batzak eratu dabez eta gorriekin burrukan ibili dira. Eleizeak azaldutako Jesukistoren irakaspenak gizarteko arazo onetan sartu ta oñean ipinteko, langileak lez ugazabak be alkarrekin batzea, ondo ta egoki zala irakatsi eban XIII Leon Aita Santuak *Rerum Novarum* deritxon bere idazti ederrean; baña kistar dirala diñoen ugazabak Aita Santuaren deyari belarriak gor egin dautsez. Onetan langile asko kistar zintzoagoak agertu dira ugazaba asko baño.

Zer? Ugazabak, ez ete dira ba alkarrekin sarri batzandu?

Batzandu bai; euren irabazkiak geitu ta ugaritzeko bai ugazabok be indarrak sarri alkartu ta batu dabez; baña Eleizearen irakaspenak aintzat artu, oñean ipiñi, burrukak eragotzi ta gizartera bakea ekarteko asmuz, gitxi batzuk baño eztira alkartu. Onetarako ugazabok muker be muker ibili dira, ta Aita Santuaren esanai, kistar izan ezpaliran baño jaramon geyagorik eztautse egin. Ori dala ta, diño XI Pi Aita Santuak *Quadragesimo Anno* deritxon bere idaztian: «Eleizearen irakaspenai eskerrak, bear litzakezan besterik ez arren, gaur egunean ainbat kistar langile-batz daukaguz, lugin edo nekazari ta osterantzekoenak be bai».

«Ola-jaun eta ugazaben batzak dirala ta, beste orrenbeste ezin esan geinke. Ugazaben batza oneik eratu ta egiteko gurari bizia erakutsi eban XIII Leon'ek; baña oraindiño gitxi baño ezdirala eratu, tamalez autortu bearrean gagoz. Urritasun onen errua, bear bada, ugazaben gogorik ezari baño bidean idoro dabezan zoztor eta eragozpenai geyago zor yake.

Eragozpenok badauzaguz eta zenbaterañokoak izan diran be badakigu; baña laster baztertu al izango dirala uste dogu». Ugazaben errua pixka bat zuritu nai leuke Aita Santuak; baña oneik arazo onetan nagi ta muker ibili diralako, bere atsekabea be argiro darakus.

Ugazabok, nok zirikatu ez ete dabe euki?

Bai, errazoe andiaz esaten izan dabe langile askok: «Kistarrak gareala ta, kistar-araupen eta Eleizearen irakaspenak oñean ipinteko batzandu bear gareala diñoskue. Ugazabak, ostera, gu lez kistarrak izan arren, euren irabazpideak geitu ta nai dabenakin alkartu ta batzen dira. Ori eztago ondo. Langileok, kistar garealako, Eleizearen irakaspenak aintzat artu ta bete bear badoguz, ugazabak be, kistarrak diranak beintzat, beste orrenbeste egin bearrean dagoz». Ori esan daben langileak, zuzen ibili dira ta egin eztaben ugazabak, oker. Eleizearen semeak, diranak dirala, Aita Santuaren irakaspenai men egin bear dautse ta menik eztagioena, nai langile nai ugazaba dala, kistar ustela da. 1891'garren urtean argitaratu eban XIII Leon Aita Santuak *Rerum Novarum* deritxon idaztia. Langile ta ugazaben eginbearrak idazti aretan argiro azaldu ta adierazo ebazan.

Aita Santua' ren irakaspenok aintzat artu ete ebezan kistar izena eroen ugazabok?

Somorrostro aldeko meatokietan jazoten zana gomutara ekarri daigun. 1903'garren urtean ba ziran an amabi milaren bat langile, geyenak arrotzak eta bertokorik guztiz gitxi. Laneko orduak bederatzi-amar, batez beste. Zulatzaileen alogera amabost erreal: enparauena, amairu: emakume ta mutikoen, geyenez be zortzi. Alogerok jasotea ilerik ilera. txabola ta txosna txar batzuk lo egiteko. Langilezañen azkurritegi edo abazerietan jakkiak be erosi bear. Onein salneurria eratsita gero, alogeretatik enparetan zan apurtxua, orixe artu eroen langileak ilaren azkenean. Bizikera bitxia langile aena! Domeka ta jayetan be lan eguberdiraño beintzat, kistar eginbearrak bete ta Meza entzuteko asti barik. Orren atxakia langileak jai egunetan be jan egin bear ebela, ta alogerik irabazi ezik, ez eukela zegaz janik.

Langileakazko erruki ori atxaki garbia izan da; benetako zio edo errazoya, langileai jai-egunez lan eragiñaz, ugazabai etorkien irabazia. Jai egunetan lan eragiñaz ugazabak sakelean sartzen eben beste diru, sakeletik atera bear izan balebe, domeka jayetako lan ori galerazteko, aurrengoak ugazabok eurok izango ziran; baña lan orregaz etorkien irabaziak itsutu

ebazan eta euren menpeko langileak kistar-eginbearrak bete ez arren, ardua gitxi. Ugazaba askok dirua baño beste Jaungoikorik eztabe euki.

Domeketako lan ori langileen errukiz izan balitz; onei jaten emoteko beste biderik egon ezpaltiz... baña, alogerak pixka bat geituaz beste barik, eukiko eben langileok domeketan jateko lagin eta ez egoan jai-egunetan lanik egin bearrik.

Orretarako bear zan beste, ez ete eben irabazten ugazabok?

Irabazi bai; baña langileai albait gitxien emonaz, albait lasterren aberastu nai. Ugazabak euren ogasunekaz gauza onak baño egin ezpalebez be, ogasun orreik ekartsezan langileai zor yaken beste ez emonaz, gizarteko zuzena ausi ta zapaltzen zan ta, ori txarto legokean; baña ugazabok eta onein seme askok, langileen alogerak neurrira jasoteko bear zan baño ge-yago zorakeri, zantarkeri ta ordikerietan be sarri eralgi dabe, ta ikasbide txar ori emonaz, euren errua andiago egin dabela ezin ukatu.

Arrokeriz eta nagusi izatearren, auteskundeetan be, abereak ferian lez gizonak eta onein autarki edo botoak erosteko, ugazaba batzuk milaka ogerleko asko zabaldu dabez, erruki barik. Langileai jai-egunetan lan eragin dautsen edo beintzat lana laketu dautsen ugazabok, milaka ogerlekoak arrokeriz jaurtiteko, ez kezkarik, ez lotsarik eztabe euki: aen alogerak pixka bat jasoteko, ostera, kezka ta atxakirik asko. Ori zuzena bada, munduan eztago gauza okerrik.

Gaur egunean Bizkayan lanbakoak diran beste, zegaitik ete dira?

Ugazaba, lanartun eta langilezañiak, guztiak nai izan dabe albait lasterren aberastu, aldirik laburrenean albait geyen irabazi, geroari jaramon barik, atereago ta burdin mea lenago agortuko zala aintzat artu barik.

Arrotzak merketxuago lan-egiten ebela ta, ugazabak langile arrotzok nayago bertokoak baño. Ezkonduak baño ezkongak nayago, onakoak langilezañai ostatuko irabazpidea be baekartsela ta. Arrezkero be meatoki ta oletan langile arrotzok beti geituaz joan dira, bertokoak baño merkeago lan egiñaz, ugazabai irabazpide yori ta ugariago ekartsela ta beste barik.

Ainbeste langile arrotz ugazaben urre goseak ekarri dauz Bizkai'ra. Orain lanik eztagoala ta, nora jo ezta kiela dabiltz langile asko. Lan bako orrei jaten emoteko Aldundi ta Udalai dirua eskatu yake ta arpideak be ide-

gi dira. Euren sakelai baño beste ezeri jaramon barik, bear ziran baño langile geyago ekarri ebezan ugazabok, orain lana urri dagoan aldi onetan be langile orrei jaten emoteko ardurea, beste iñok baño lenago artu bear leukie; baña ugazabok soinburuak jasoten dabez eta langile orrei jaten emoteko ardurea iñoren lepora jaurti. Errezena orixe da izan be!

Ugazaba askok langilearena baño sakelaren ardura obea euki ei dabe. Lantegietako ezbearrak ordaintzera legeak beartu ebazanean, orduan asi ei ziran ezbearrok gitxitzeko neurri ta bideak artzen: artietan ugazaba asko, zaldiren bat il, nai tramankuluren bat austen yakenean, langileren bat zauritu nai ilten zanean baño estu ta larri ta urduriago ibilten ei ziran, zaldi barria erosteko nai ausitako tramankulua osatzeko, sakeletik dirua aterra bear zala ta.

Ori diño batzuk eta guzur andirik diñoenik eztot uste; baño langileak ugazabai lotsa ta itzalik izateko, ori bide txarra dala edonok daki. Kistar onai dagokienez, ugazabok Eleizearen irakaspenak aintzat artu ta oñean ipinteko alkartu balira, gizartekeri ta baltsakeria osoro eragotzi ez arren, orrein aurrerapenak asko galerazo al izango ebezan; baña irabazi ezkerok, ugazaba askok beste ezeri eztautse jaramonik egin, langilien ardurarik eztabe euki, jai-egunetan be lan-eragin dautse ta tabernea eleiza egin daben ola ta meatokietako langilerik geyenok, gizartekeriak bere sarietan errez sartu ditu.

Ugazabok orretan errugabeak diranik, nik neuk eneuke esango. Sozialistakin itundu be bein baño sarriago egin dira ta, sozialismoari indarra emon dautsela ezin ukatu. Egia garratz eta mergatza da arren, egia beti.

Orain laneko zortzi orduak lortu ta gero, langile asko alper eta nagi ibilten dirala ta; egin bear leukien baño askoz be lan gitxiago egiten dabela ta, asarre dira ugazaba asko. Langileen alperkeri ori ondo dagoanik eztiñogu; baña ugazabak be euren lengo errua autortu bearrean dagoz.

XXXI Gizarte-azua ta agintariak

Auzi onetan agintariak egitekorik ba ete dauke?

Gai onetzaz iru eretxi nagusi ta berezi izan dira. Ugazaba ta langileen arteko auzi onetan erri-agintariak eztabela sartu bear irakatsi dabe, ondasunetzazko bakoizkeriaz ondo baño obeto ibili diran *liberalak*. Onein eretxiz, arazo onetan agintarien zeregiña ta ertzain edo *polizierik* gizona, alkarren antzekoak dira. Kanean-zear gora ta bera dabiltzanai begira zutik, tente ta geldi egon oi dira ertzañak eta dabiltzanen artean lazka ta asarrerik baletor, aserratu diranok banandu ta bakotxa bere bidetik bialduaz, euren egitekoa bete dabe. Ugazaba ta langileen arteko auzi onetan be olantxe: lazka ta asarrerik eztautorren bitartean, agintariak egitekorik ez ei dauke: lazka ta burrukea baletor be, burrukariak bananduaz eta bakotxa bere aldetik bialduaz, agintariak euren egiña bete ei dabe, ta beste ezetan ez ei dabe sartu bear. Ondasunetzazko bakoizkeriaren alde egon diran liberalen leloa, aspaldiko urtetan orixe izan da, eta Eleizeak besterik irakatsi daualako, zer esanik asko erabili dabe.

Beste batzuk ostera —erderaz *socialistas de cátedra* deritxoena battez be— arazo onetan agintariei esku larregi emon nai izan dautse. Jaun oneik, sozialista izena daroen arren, bakotxaren jabetzea ezautu ta autortu dabe, ta ori zearo kentzeko asmurik iñoz eztabe erakutsi; baña ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauzak —guztiak ez arren be, geyentsuak beintzat— agintarien eskuetan ipiñi ta, oneik zuzendu ta erabili bear leukiezala irakatsi dabe. Doitxerri edo Alemanian batez be izan dira onelako irakasleak eta Wagner izan da guztien buru.

Eta arazo onetzaz Eleizak, zer irakatsi dau?

Gizarteko oker eta bidegabeak zuzentzeko bear dan bestean, agintariak arazo onetan sartu bear dabela irakatsi eban XIII Leon Aita Santuak; baña okerrok zuzentzeko bear dan bestean eta ez geyago, larregikeria onetan be kaltegarri dala ta. Lenengo ta bein gizaseme ta sendi edo famili bakotxaren eskubideak ezagutu ta sendetsi (115) bear dabez jaurle edo agintariak, eskubide orreik moztu ta gizon eta sendien bizitza berezia irunsi barik. Gero jaurkera zuzenez eta lege egokien bidez gizartearen ogasun eta irabazpideak ugaritzeko, alak eta lerrak egin bear dabez, agintari orretarakoxe dira ta.

Bakotxaren jabetzea aldeztu ta sendetsiaz, gizartean al bait ugazaba ta jaberik geyen izan daiten be, neurri ta bideak artu bear dabez. Gizarte osoaren ona egitea, agintarien berarizko egifiena orixe dalako, menpeko guztien ardurea euki bear dabe; baña edozein estadutan txiro ta langileak ugazaba ta aberatsak baño ugariagoak diralako, ta estaduaren aberaskiak batez be langileen lanetik datozalako, ugariagoak diran langile onein ardura berezia euki bear dabe. Arazo onetan noz eta zenbateraño sartu bear daben, gizartean nagusi izan bear dauan zuzenak eta aren bearrizanak erakutsiko dautse agintariei. Gizartearen onerako zer bait egiteko erea, sarrri izango dabe.

Lan batzuk beste batzuk baño neketsuagoak dira ta, lan bakotxean zenbat ordu egin leikezan, langileen osasunaren kalte barik: laneko ezbeharak urrintzeko, meatoki ta oletan zelako neurriak artu bear diran; lana urritzen danean lanbakoei zelan lagunduko yaken eta orrein antzeko gauzetan, bear bestean eskua ezarri dagikie agintariak. Emakume ta gaztetxuen lana arautu ta langileen beste eskubide batzuk be zaindu bear dabez: Jaungoikoagazko eginbeharak bete al izateko, bakotxak bere lanbidean aurreratzeko, etxe merketxuagoak eukiteko, idekoak alkarrekin batzeko daukezan eskubideak, ifloren kalte barik, gerizatu dagikiez agintariak.

Iñoz baño sarriago, eta lana urritxu dabilenean batez be, langileak banezean artuta, ugazaba batzuk buztarri gogorregia ezarri nai izaten dautse; ori be galerazo dagikie agintariak, aldrako egiune (116) edo kontratuei bidea idegi ta emonaz. Zeregin edo ogibide bakotxean alogerik txikiena zenbateraño kkoa izango dan, eta langileak euren alogerok noz eta zelan eskuratuko dabezan be arautu dagikie, alogerok galtzeko arriskuak al bestean urrinduaz. Alogeren geigarri lez, gexoaldi, ezbear eta zar-

(115) Sendetsi: Confirmar, refrendar.

(116) Aldrako egiune: Contrato colectivo.

tzarorako sorospideak sortuazo ta orrei lagunduaz be, gauza ona egingo leukie agintariak.

Onako arazoetan estaduak alkar artzea, ondo ete litzake?

Ondo baño obeto litzake alkar-artze ori ta gauza bearra be ba dala dirudi; langileen aloger eta sorospideok beste erri batzuetan baño gorago jasoaz, agintariak bertoko garatz, negozio ta irabazpideai porrot-eragin eztagioen; porrot-eragite ori ugazaben eta langileen kaltean izango litzake ta. Olakorik jazo eztaiten alkar ta batera ibiltea zurtasun andia izango litzateke.

Besterik bear ete da?

Gauza oneik ondo ikasi ta zuzen erabili al izateko, agintariak dauken baño asti geyago ta gogo ohea bear dabez. Aspaldion errietako agintari nagusiak eurenak ez tiran arazoetan sartzen dira larregi, diño XI Pi Aita Santuak. Arazorik txikiak be, eurak erabagi, agindu ta erabili nai dabez: ori dala ta, egunero esku bete zeregiñiaz dabiliz, gauza andiogoetarako asti barik. Gizartera aldakuntza azitxuak etorri dira ta, antxiña gizabatz txikiak ondo ta erraz egiten ebezan gauza askotarako, gaur —sarrri beintzat— gizabatz andiagoak bear dirala badakigu; baña ori ta guzti be, gizarteko auzi au ebatzi ta atondu al izateko, betiko egia dan auxe ofarriztat artu bedi, diño Aita Santuak. Gizon bakotxak bere antze ta indarrez egin dagikeana, orri kendu ta gizabatzari emon eta ezartea, bidegabea dan lez, olantxe gizabatz txikiagoak bere al eta indar utsez ondo egin dagikena, gizabat andiagoak eurakandutea be, bidegabea da, ta gizartearentzat kaltegarri.

Agintari nagusiak gizabatz txikiagoak lagundu bai, lagundu egin bear dabez; baña irunsi ta irato (117), iñoz be ez. Ori dala ta, agintari nagusiak, arazo guztiak euren eskuetara eroan barik, garrantzi gitxiagoko arazoan ardurea gizabatz txikiagoai itxi bear leuskioe. Utsunerik nabaritu ezkerro, ori beteazo; baña osterantzean gizabatz txikiagoak ondo egin legikiezan gauzak, onein ardurara itxi. Orrelan egingo balitz, agintari nagusiok euren egikizun berezietarako eragozpen gitxiago ta asti, askatasun eta indar geyago eukiko leukiez: gizarteko gauzak obeto ta zuzenago lebilkez: gizarteko gauzak obeto ta zuzenago lebilkez ta estadia aberats eta zoriontsuago litzate. Aspaldiko jokerea bestera izan da: gizarteko arazo guztiak

(117) Irato: Itto.

euren eskuetara eroan dabez agintari nagusiok eta gizabatz txikiagoai euren eskubideak kenduaz, onein bizitzea zearo irato dabe. Oker au zuzendu egin bear litzakela diño Aita Santuak; baña agintariak gizarteko ari guztiak euren eskuetan euki nai dabez ta, oker ori bein-bein zuzenduko dan antz andirik eztago.

XXXII Gizarteko auzia ta Eleizea

Gizarteko arazoak zuzen erabiltea egiñen gatxa da. Antxiña gizartea oker andiak egin zirala edonok daki: gaur egunean be okerrik asko egiten dala ezin ukatu. Antxiñako erririk geyenetan gizon batzuk aske edo libre, beste batzuk jopu edo esklabu ziran. Erri-jaurleak menpeko jopu aek ez ebezan gizon etsi, abere baño; ori zala ta, erabiliaz sautu, gastau ta amaitzen diran gauzen jabe baño etziran jopu errukarri aek. Sozialistak, Marx'en jarraitzaileak beintzat, gizon bakotxak erabiliaz sautu ta gastetan diran gauzen jabe izateko eskubidea baño besterik ez daukala: enparau guztien, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien ugazaba ta jabe bakarra estadia dala garraxika diñoskue ta, gizonok antxiñako jopuen mailara eratsi nai gaituela agiri da. Ugazaba, estadia: gizonok, orren jopu: ori ta guzti be, zoriona ekarri dauskuela lotsa gitxigaz esango dabe!

Gizartean ondasunak txarto bananduta dagozala; gizon batzuk aberatsegi, beste asko txiroegi dirala ta, asarre dira sozialistak eta sozialista ez-tiran beste asko be bai. Asarre ori bidezkoa eztanik eztiñogu; baña sozialistak nai dabena egingo balitz, zer jazoko ete litzake?

Esku gitxitan ogasun andiegiak ei dagoz orain; eta gizartekeria nausituko balitz, orduan zer?

Orain jabe gitxien eskuetan ondasun andiegiak dagozala ta ori gizartearentzat kaltegarri dala egia da: augaitik lurreko ondasunok dagozan baño obeto ta zeatzago banandu bear dirala diñoenak, eretxi orretan eztagoz oker, zuzen baño. Au be egia da; baña sozialisten asmuak oñean ipiñiko balira, askozaz be ondasun andiagoak gizon gitxiagoren, gizarte-

ko agintarien eskuetara joango litzakez. Ugazaba ta jabe gizartea izango dala diñoe sozialistak; baña ori ames utsa baño ez tala edonok daki. Ezpa-be esan: ondasun orreik, nok erabiliko leukez?; zetan eta zelan eralgiko diran, nok erabagiko leuke? Ori, nai ta ez, gizartearen buru ta agintariak egin bearko leukie. Izena ta izana gauza bi dira: gizartea izen utsez baño elitzake izango ondasun orreïn jabe: izanez eta benetan ondasunak erabilteko eskubide ta zeregiña eurenak leukiezan agintariak, ugazaba ta jabe oneik izango litzakez: augaitik, ondo baño obeto esan eban XIII Leon Aita Santuak: gizartea gexorik dago; baña sozialistak dakartsoen sendakai edo erremedioa gexoa baño be txarragoa da.

Ogasun jabetzea aldi ta erri guztietan, beti bardiña izan ete da?

Ondasunak irabazi ta eskuratzeko bideak, aldi ta erri guztietan ezti-ra bardiñak izan, ez gitxiagorik be. Gauzen jabetzea be ezta izan beti bardiña: erri batzuetatik beste batzuetara onetan be alde anditxuak egon dirala edesti edo istoriak diñosku; baña erabiliaz amaitzen ez tiran gauzaen batzuen jabe izateko eskubidea, aske dan gizonak berezkoa dau ta, gizon aske baktxaren eskubide ori erri-legeak be edonon eta edonoz ezagutu ta sendotu dabe.

Gai onetzaz, zer diñosku Eleizeak?

Eleizeak be orixe irakasten dausku. Gizon baktxak zerbaiten jaun ta jabe izateko ta bere ondasunak jarauntsiz ondorengoai izteko daukan eskubidea, bere erroetan beintzat, osorik eta ikutu barik jagon bear da — diño XI Pi Aita Santuak. Eskubide bikoitz ori, gizarte osoren onaz batu ta alkartzeko bear dan bestean, neurrira ekarri bai, gizarteko agintariak ori egin dagikie; baña errotik ebagi ta zearo kendu, ezelan be ez, gizartea baño lenagokoak diran gizon bakoitz eta sendi baktxaren errayetan sortu ta erneriko eskubidea da ta. Sozialistak —Marx'en jarraitzaileak beintzat— baktxaren eskubide bikoitz ori errotik ebagi nai dabe. Gizarteko matazea arildu ta auzia ebazteko, bide txarra da ori. Egin bear dana ori baño besterik da. Baktxari berea, zuzenbidea orixe da ta, baktxaren eskubideak —diranak dirala— ezagutu ta sendotu egin bear dira: lurreko ondasunak, gizarte osoaren onak eskatzen dauanez, orain dagozan baño obeto ta zuzenago banandu: ondasuna ekarteko ugazaben domu edo kapitala ta beargiñen lana alkartuta diran ezkerro, baktxari berea emonaz, irabaziak be ondasun-ekarle bioen artean zuzen-arauz ainbanatu bediz: zindo ta zin-

tzoak diran langileai, zerbaiten jabe izatera eldu daitezcan, bidea leundu ta erreztu bekioe.

Gizartean jabe edo propietario asko, orain baño askoz geyago, albait geyen izan daitezcan, gizartearen ardurea dauken agintariak albait neurri-rik egokienak artu begiez, gizarteko auzi andi au ebazteko biderik zuzene-na orixe da ta. Gizarte osoaren ona egitea, agintarien berarizko zeregiña orixe da ta, jaurgo -arazoak ondo ta zuzen erabiliaz, gizartearen ondasunak eta irabazpideak al bestean geitu ta ugaritu bear dabez. Ori gauzeak berez dakarrena da, agintariak menpekoen ona egiteko dira ta. Egiz, goiko ta bekoen, aberats eta txiroen, ugazaba ta alogerekoen ardurea euki bear dabe agintariak; baña ukondoa sendo dauken aberatsak, euren eskubideak zaintzeko iñoren bearrizan andirik eztauke ta, iñoren laguntza bearrean dagozan langile ta alogerekoai berariz lagundu bearrean dagozan langile ta alogerekoai berariz lagundu bear dautse estaduak. Beko mailan dagozan onei, gorantz igon daitezcan, lege ta arau egokien bidez bultz egin bear dautse, goiko ta beko mailen artean dagoan alde andiegi ori gitxitu ta bide luze ori laburtu daiten eta onelan obeto alkar artuaz, guztiak gizarte osoaren onera, aburu batez, jo dagien.

Ori egingo balitz —diño XIII Leon Aita Santuak—, gizarteari onura ta obari ederrak letorkioz: lenengo ta bein, gizarteko ondasunak dagozan baño zuzenago banandu ta mailak be geldi geldika alkargana urreratuko litzatez: gero, baktxak bere gauzetan ardura ta gar andiangoaz lan egiten daualako, lurrekok ondasunok be ugariagotu egingo litzakez eta gizonak, atzerrietara joan barik be, biziteko lagin badaukela ta, baktxa bere sorterrian gozoago legoke. Onura ta obariok jaristeko, estaduak baktxaren jabetzeari eztautso zerga larregirik ezarri bear; bestela jabetza txikiak zerga ta petxuz irato badagiz, aletin guztiak alperrekoak izango dira.

Gizon baktxak zerbaiten jabe izateko daukan berezko eskubideari eutsi egin bear yako; baña lurreko ondasunak orain dagozan baño obeto ainbanatu bear dira ta orreïn jabetzea al bestean edatu ta zabaldu. Eleizeak ori irakasten dau ta gizartearen ona egiteko sozialisten amesak baño bes- telako sendakaya da ori.

XXXIII Sendi-alogera

Lurreko ogasunok, dagozan baño obeto ta zuzenago bananduaz, al-bait ugazaba ta jaberik geyen egitera jo bear dala irakatsi dausku Eleizeak; baña alogera berenez bidegabea danik eztausku iñoz be esan. Zetan esan bez, lurreko ogasunok gizartearen onak eskatzen dauanez, neurri zuzenez bananduko balira, gizartean aserre ta arrokeri gitxiago, bake ta zorion geyago legokez; baña ori egin arren be, gizaseme askok, bizi al izateko, alogera irabazi bearke leukie ta, aloger ori, langileari zor yako bestekoa izan ezkeru, bidegabea dala diñoan gizona, bere senean eztago.

Gizonak, langilea izan arren be, eskontzeko ta sendi edo familia ekarteko, eskubide osoa dauko. Eskubide ori gizarte ta estadua baño lenagokoa da ta iñongo agintarik ezin ukatu dagikeo gizonari; baña langilerik zintzoenak be sarritan bere lanaz irabazi dagiana baño beste etorriarik eztauko ta, langilearen alogerak bera ta bere sendia elikatu, jantzi ta erabiltzeko lagin izan bear dau. Sendi-alogera orrexeri deritxogu.

Gai onetzaz, zer diño Aita Santuak?

Alogeratzaz diarduala diño XI Pi Aita Santuak: «Gaur eguneko bearrizanak aintzat arturik, sendi edo familia elikatzeko lagin eztiran aloger murrizak ipiñita emotea, ezta aizu, ezta zilegi». Eta «*Quadragesimo anno*» deritxon idaztarian: «Lenengo ta bein langileari bere burua ta bere familia elikatzeko lagin izango dan lan-saria emon bear yako. Lugin, nekezale ta zeatzezko salerosleen sendietan egin oi danez, sendi-buru dan langileaz batera, enparauak, ama ta umeak be, bakotxak al dauanez, lan egitea ondo dago ta gauza zuzena da; baña ume ta emakume aulai lan gorregia egiñazotea, ori txarto dago ta bidegabea da».

«Etxeko zeregiñak bertan bera itxi barik, etxean bertan eta etxe-inguruan eta eurai dagokiezan lango lanetan diardukie sendiko ama diran emazteak; baña senarraren aloger urri ta murrizegia dala ta, amak bere ar-

dura ta egikizun bereziak eta ume txikien azi ikaskuntza itxirik, lantegira joan eta an lanari ekin bear izatea, ori txarto dago ta sustraitik atera ta kendu bear dan oitura txarra da. Ori dala ta, alak eta lerrak egin bear dira etxeko bearrizan arrontai bear bestean begiratzeko, aski ta naiko izango dan lan saria sendiaren buru diran langileak irabazi ta eskuratu dagien. Eta oraingo bizikereak ori egitea beti laketzen ezpadau, edozein guraso langileri orrenbesteko alogera ekarri legikeoen aldakuntza ta obariak gizartean al bait lasterren egin eta sarrerazo bear dira, gizarteko zuzenak orixe eskatzen dau ta».

Ori diño Aita Santuak, eta ori esananz argiro adierazten dauku langile zur eta neurridun bakotxari —emazte ta umeak etxe inguruko zeregiñetatik aldendu barik be— sendia elikatu, jantzi ta erabilteko lagin dan alogera zor yakola; baña guraso batzuk beste batzuk baño seme-alaba ge-yago ekarri-daroez ta, sendi guztien bearrizanak be eztira bardiñak izaten; batzuk besteak baño geitxuago bear dabe.

Zein ete da, ba, eredutzat artu bear dogun sendi ori?

Gizartean geyenez jazo oi dana, legeak oñarriztat orixe artu daroa, noz-edo-beingoa aintzat artu barik. Sendi-alogerari buruz be, sendi ertaña edo erdikoa artu bear dogu eredutzat. Gure esakun zar batek diño: «Adiñon da bost ume, alaba bi ta iru seme». Ori dala ta, eredu ta neurritzat laubost umedun sendia artu geike, sendiak izan be geyenez, olakoxeak izaten dira ta. Onelan ba, sendi-aloger ori bitarikoa izan daiteke: *berezkoa*; au da, aitatu dogun sendi ertain orri dagokiona, eta *lekuzkoa* edo edozein sendi andiagoa elikatzeko be naiko litzatekena.

Aita Santuak aitatzen dauan eta adiñeko edozein langileri zor yakola diñoan sendi-aloger ori, eredutzat ipiñi dogun sendi ertañari dagokion eta orixe elikatzeko aski ta naiko dan alogera da.

Baña zeraren zor ete da sendi aloger ori?

Onetan ainbat aburu ta eretxi dagoz. Domukeri edo kapitalismoa ontzat dauken *liberalak*, sendi-aloger ori errukiz eta limosnaz baño eztala zor aurrez diño, ta aloger ori, zuzenbidez zor bailitzan, gizarteko oituretan sartuko balitz, guraso diran langileentzat kaltegarri izango litzakela uste dabe. Zergaitik kaltegarri? Ori egin ezkerro, guraso diran langileak alde batera itxi ta langile ezkongak baño ez ei leukiez ugazabak euren ola ta lantegietan artuko, ta origaitik aloger orrek sendiei on baño kalte ge-yago

ekarriko leuskioela diño. Zetan esan bez, ori diñoen jaunok langile ta gizartearen ona baño euren sakel diruz ondo betea maiteago dabe.

Langile ezkongek ez ei dautso ezer zor seme-alabak daukazan langile ezkonduari: onek beste lan eta onek baizen ondo egiten ei dau arek: lan bardiñari aloger bardiña zor ei yako: zuzenbidea orixe ei da. Ogasunetzako bakoizkeri-zaleak ori diño; baña Jaungoikoak gizonoi emon daukuzan ogasunak, gizartearen onerako be ez ete dira? Eta langile bakotxak bere sendia elikatzeko lagin eukitea, gizartearen onak ez ete dau eskatzen? Guzurtia errena baño be lasterrago arrapatzen da ta, sendi alogeraren aurka dagozanok be, euren sarietan arrapatzea ezta egiñen gatxa.

Ola ta lantegietan gizonezko langileen ordez emakume, neskatxa ta mutikoak sartu dabezanak, nortzuk izar dira? Sendi alogeraren aurka dagozan eta errukiz baño eztala zor diñoen jaunok eta onein guraso eta aurretikoak. Lan bardiñari aloger bardiña zor bayako, gizonak beste lan egin dautsen emakume ta gaztetxuei, zegaitik eztautse aena besteko alogerik emon, txikiagoa baño? Lan bardiñari aloger bardiña zor yakola esango dautzue jaunok, ori euren sakelen alde izan ezkerro; baña sakelaren kaltean bada, olakorik aitatu be eztautzue egingo, ta emakume ta mutikoai, gizonik sendoenak legiken besteko lana egiñazo arren, bape kezka barik aloger txikiagoa emongo dautse.

Atzerrietatik merkeago datozen gauza askori, al bestean sarbidea galerazteko, muga zergak ezarri bear yakezala diñoenak, nortzuk ete dira? Ain zuzen be, sendi-alogerik iñongo langileri errukiz baño etxakola zor diñoen morroi diruzaleok, muga-zergak jaso egin bear dirala ta garraxika dabilzanok, orrexek dira. Muga zerga orreik euren sakelaren onean dirala, ori esatea lotsagarri litzake ta, atzerrietatik datozen gauzai sarbidea eragozte ori, gizabatzaren edo estaduaren onak eskatzen dauala esan daroe.

Dagigun olantxe dala; baña sendiaren biotz dan ama, lantegira joan bearrik barik, sendiko lili ta bitxi diran umetxuak zaintzen etxean egotea ta senarrak emazte ta umetxuak elikatu ta jazteko lagin dan alogera irabaztea, gizarte ta estaduaren onak eskatzen dituan gauzak ez ete dira? Sakelaren ardurea eukitea txarto danik eztiñogu; baña sakel diruz betea baño gizartearen ona lenago da. Bere burua ta bere sendia elikatzeko lagin dan alogera, edozein langileri zor yakola diño Aita Santuak. Erruki utsez emoten dana, ezta zor izaten. Sendi-aloger ori, zor bada, zuzenbidez zor da ta ez erruki ta maitasun utsez.

XXXIV

Sendi-alogera, zer dala ta zor ete da?

Bein baño sarriago aloger zuzena edo ugazabak langileari zuzenez zor dautsana, sendi-alogera baño andiagoa be izan daiteke. Ugazabak irabazi gizen-gizenak badagiz, irabaziok dakartsoezan langileai be geyago emon bear dautse ta, orduan aloger zuzena sendi-alogeraren gañetik lebil-kela edonok daki. Baña arazo au alde batera itxirik, goazen geure sailera. Azaldu dogun sendi-alogera, errukiz barik, zuzenez zor dautse ugazabak langileai; baña zuzenbidea be ainbat eratakoa da, bata bestea baño zorrotzagoa.

Aloger ori, zein zuzenbidez zor ete da?

Gizon nai giza-aldra bakotxak besteakazko artu emonetan alkarri zor dauksen zuzenbidea, gizabatz osoak bazkide bakotxari zor dautsana baño askoz be ertsi ta estuagoa da. Alkargazko zuzenbide zorrotz ori ausi dagian, aurrekoagaz zorrean dago ta, oni egindako kaltea ordaindu egin bear dautso, ta legeak be orretaraxe beartu daroa.

Sendi alogera onelan zor ete da? Ugazabak langileari, alkarrekin itundutako alogera emon arren, baldin aloger ori langilea ta onen sendi er-taña elikatzeko lagin ezpada, ugazabak lapurretan ete dagi eta gitxiago emon dauksan beste langileari biurtu ta itzultzera bearturik ete dago? Garatz ondo badabil, itaun orri bayetz darantzutsoe (118) irakasle batzuk, eta ez edozelakoak, gizon argiak baño. Orraitik be sendi alogera zuzenbide ertsi ta zorrotz orren bidez barik, gizarteko zuzenez, au da, gizarteak bazki-

(118) Darantzutsoe: Erantzuten deutsoe, erantzuten diote.

de guztiei eta bakotxari egin bear dautsen zuzenez, olantxe zor dala uste dabe irakaslarik geyentsuak.

Eta ziñez, ogasun eta aberaskiak, gizon bakotxaren onerako ezeze gizarte osoaren onerako be ba dira. Gizartearen ona egiteko iñarkun (119), elburu ta zeregiña, ogasunok eurena dabe, guztien Irazale (120) ta Jabe dan Jaunak orretarakoxe egin ditu ta.

Edozein langileren sendi edo familiak, bear bestean elikatzeko lagin ez eukitea, ori gizarte osoaren kaltean be bada, gitxiegi janaz, txarto biziaz langile sendoen orde, langile gexoti, erkin eta makalak etorriko litzakez ta. Baña langile askok euren buruak eta euren sendiak jantzi ta elikatzeko, eguneroko alogera baño beste etorririk eztauke; beraz, sendi alogera gizartearen onak eskatzen dau; baño gizartearen onak eskatzen dauana, gizarteko zuzenez zor da.

Aloger au agintariak legearen bidez mugatu ta izentauko balebe, orduan legeko zuzenbidez be zor izango litzate, eta aloger ori, orretarako eskubidea daukenak izentau ezker, ugazabak langileai nai ta nai ez emon bearko leuskioe, alkarrekin egindako egiune edo kontratuan sartuko litzake ta. Ugazabak sendi-alogera emotera beartuko leukezan lege orren eustazpi ta oñarria, zein izango litzake?

Lege orrek gizartearen ona baño beste zio, oñarri ta eustazpirik eleuke eukiko; bere indar guztia ortixerik letorkio; baño gizartearen onak eskatzen dauana, legea emon ondoren eta emon baño len, gauza bat eta berbera da ta, sendi-alogeri ori, lege barik be, zor dautse gizarteak langileai, eta kistar ugazabak, legeari begira egon barik, sartu bear leukie gizartean obari ori.

Berezko sendi-alogera gizarteko zuzenez, zor bayako langileari, lekuzkoa edo sendi andiagooa elikatzeko lagin izango dana, zegaitik ez?

Lenengo ta bein, gizarteko arazoak lege atondu daitekezanak izan oi dira; legeak, oster, nozean bein jazoten dana barik, geyenez jazo oi dana aintzat artu daroa; baño sendirik ugarienak eta urrienak alkarrekin jo ezker, eredutzat artu dogun lau-bost umedun sendira datorz.

(119) Iñarkun: Ejercicio (Espiritual).

(120) Irazale: Creador.

Guraso bakotxari bere sendia —dana dalakoa— elikatzeko lagin emotea, onena orixe izango litzatela dirudi; baño onena dirudiana, onaren burkide izaten da bein baño sarriago.

Lan bardiñaren ordaintzat langile batzuri, sendi andiagooa daukela ta beste barik, enparauei baño aloger andiagooa emon ezker, langilien artean esames, aserre ta lazkak laster letorkez, eta olako lazka ta naste txarrik ez izatearren, seme-alaba asko dituan gurasorik eleukie ugazabak euren lan-tegietan artu nai izango. Onelan, onena dirudian ori, onaren burkide ta are-rio izango litzate arazo onetan be. Orraitik be sendi andiagooa daukan langilearen bearrizanak be andiagooak dira ta, aloger anditxuagooa ondo be ondo letorkio olako gurasoari.

Au dala ta, eredutzat artu dogun sendi ertaña elikatzeko aski dan alogera, edozein langile aziri gizarte-zuzenez zor yakala esanda gero, auxe gañeritzen dau XI Pi Aita Santuak: «Arira datorren ezker, sendien bearrizan audiagooi lan-sari ta laguntza ugariagooa emoteko asmuz —asmu zur eta onuratsuz— ainbat bide asmau ta oñean ipiñi dabezan gizon argiak, ementxe goretsi nai doguz. Izan be, bearrizanok geitzen diran neurritz alogerak be goratzeko, ta bear balitz, sendiaren aldiz-ateko bearrizanai be arpegi emon al izateko, bideak asmau ta neurriak artu dabezan jaunok, benetan txalogarri dira». Aita Santuak ori esanaz, ordainbide-kutzak, erderaz «cajas de compensación» deritxoenak, aintzat artu, zuzenetsi ta goratzen ditu.

Ordainbide kutxok, nok asmau ebazan eta zertarako dira?

Kutxa oneik asmau baño lenago be, sendi-alogera ipiñi eban L. Harmel jaunak Val des Bois'ko bere irukintzan (121). Ola-jaun onek, kistar zindoa zan ta, alogeraz gañera baserrian bizi ziran bere langileai 0'60, urian bertan bizi ziranai 0'80 emoten eutsen ume bakotxeko, sendiaren bearrizanak geitzen ziranez lan-saria be olantxe geituaz; baño ori egiteko ugazaba guztiak eztira gai ta ordainbide kutxak asmau ebazan Grenoble'n E. Romanet, ango burdin-oletako artezkariak. Orretarako ugazaba ta olajabeak —geyenez lanbide bakotxekoak— alkarrekin batzandu doaz. Euren langileai, alogeraz, gañera, geigarri lez ume bakotxeko saritxu bana emoteko prest dagozanak, alkargoan orreik sartzen dira, ta ugazaba bako-

(121) Irukintza: Telar.

txak bere garatzaren garrantziari ta menpean darabiltzan langileai dago-
kienez, geyago edo gitxiago ordaindu daroa, langileok ume asko ala gitxi
dauken aintzat artu barik.

Ugazabak emoten dabezan sari-geigarriok, langileak artu ta jagoten
dabez, gero langile bakotxari dagokion beste ortik banatzeko. Lugintzan,
ugazabok landu ta darabilezan lur-salak artu daroez oñarriztat, bakotxak
zenbat emon bear dauan jakiteko; ola ta lantegietan ostera—geyenez bein-
tzat—ugazabak sari-geigarri orren jabe egin nai dituan langile ta arazo-
dunak edo onein alogerak. Langileak geigarri lez artzen daben sari orrek,
alkartutako ugazaba guztien emokunez osotutako kopurutik urten bear dau
ta, origaitik langile eskonge nai eskonduak euki, ugazaba bakotxari gitxi
ardura dautso. Ori dala ta, batetik bere lantegian sendidun langileak ar-
tzeko atzerapenik eztauko; bestetik, alkartutako guztiak, bakotxak bere
garatzaren garrantziari dagokionez emon bear dabe ta, zein-geyagokan
burkideak azpiratuko daben bildurrik be ezin euki daike, origaitik beintzat.

Ordainbide kutxok, zelan ibili ete dira?

Lenengotan ezker-eskoma ebezan arerioak eta bete betean ibili zi-
ran. Olako alkargoetan sartzeko, nagi ta muker ebiltzan ola jabe ta ugaza-
bak: langileen artean eukezan ospe ta indarra galduko ebezala ta, aurka
jagi ziran sozialisten buruak be; baña ordainbide kutxok lenengo eragoz-
penak garaitu dabez eta gaur egunean Europa'ko erririk geyenetan —Es-
paña'n edo izan ezik—lan andi, eder eta onuratsua dagie.

*Eta ordainbide kutxok, zenbat lez emoten ete dautsoe
guraso dan langile bakotxari?*

Onetan neurri bardiñik eztago. Kutxa batzuk besteak baño geitxuago
emon al dautse sendidun langileai, ugazaben alkargoak be batzuk besteak
baño eskuzabalagoak dira ta. Toki batzuetan berarizko ikasketak egin di-
ra, geigarri au, langileen alogerai dagokienez euneko zenbaterañio eltzen
dan jakiteko. Alogerak dagien kopurua oñarriztat artu ezkeru, Pantze'n
ume bat daukan langileari geigarri au euneko 7,60'ra, bi daukazanari eu-
neko 16,19'ra, bost daukazanari euneko 67,61'ra, ta zortzi daukazanari eu-
neko 134,28'ra eltzen ei yako.

Ordainbide kutxok begi onez dakuzez langilerik geyentsuak eta erri
batzuetan agintari nausiak, legez, agindu dabez. Laguntza ori dauken lan-
gileen artean ume geyago jayo dira ta gitxiago il, enparauen artean baño.
Irugarren umea ezkeru, ama asko, aloger bila lantegiratu barik, etxean gel-

ditu oi dira, geigarri orregaz eta etxeko lanaz lantegira yoazanean beste
irabazten dabela ta. Amaren ardurapean umien azi-ikaskuntzea be askoz
obeza da ta, ordainbide kutxok gizarteari be onura azitxua dakartsoe.

Emengo ugazabak olako gauza onik, noz egingo ete dabe? Orain ar-
te besterik ikusi ta ikasi dabe ugazabok: txarto oituta dagoz ta jaun orreik
zuritzea egikizun gatxa dala badakigu. Beti ta beti beste errietan egiten da-
nak onei be begiak idegi bear leuskioez. Urak joan ta presagiñen astea, zo-
rakeri garbia da ta, gizartekeri ta baltsakeriaren urioleak irato eztagizan,
ugazabok bide ta neurriak garaiz artu bear leukiez.

XXXV
Kistar-siñeskuntzea biztu
ta oitura onak sartu bear dira barriro gizartean

Ugazaba ta langileen arteko asarreok baretu ta auzi au ebazteko, gizartearen oitura ta ekanduen obakuntzea, nai ta naiezkoa ete da?

Gizartean zuzenbidea zearo sartu bear da, maltzurkerietan ibili barik. Domuari ta lanari, bakotxari dagokiona emonaz eta langile txiroen berarizko ardurea eukiaz, gizarteko arazoak orain arte ibili diran baño zuzenago ipiñi bear dira; baño gizartera bakea ekarteko, ori be ezta naikoa; alkargazko maitasun zindoa be osoro bearra da. Aldi bateko kistar oitura onak gizartetik iges egin dabe ta, gauza onik egitekotan, barriro gizartera ekarri ta onean ipiñi bear dira.

XIII Leon Aita Santuak antxiñatxu idatzi eban: «Aurrerago esan dogunez, gizartea gexorik daukan gaitz au, uskurtz edo erlejiñoak baño beste ezek sustraitik ezin atara dagike ta, kistar ekandu onak gizartean barriro sartzeko guztiak alak eta lerrak egin begiez. Ekandu onok barriztau ezik; gizonik zur eta argiennen alegiñak eta oneik asmau leikiezan biderik egokienak be, indarge ta utsalak izango dira nai dan elburu ori jadesteko». Eta XI Pi Aita Santuak be beste orrenbeste diño: «Lurreko ogasunen egarriz dabilizan gizaseme asko; zoritxarrez kistar ekanduetatik zearo aldendu dira ta, gizartera bakea ekartekotan, aurretiez gizabatzen kistar-gogoa ta kistar oiturak berrezarri bear dira; osterantzean egiñal guztiak alperrekoak lirate, eta auzi au, ori barik, atondu nai dauana, bere etxea, aitz gañean ba-

rik, ondar loka (122) ta ibiloki (123) gañean eregi dagianaren antzeko izango da».

Ezta gizona lurreko ogasun igazkor oneintzat egiña, ogasunak gizonarentzat eta gizartearentzat baño. Egia orixe da; baña kistar siñesmena biotz zokondora baztertu edo zearo galdu daben ugazaba ta langile askok, gaur egunean lurreko ogasunok baño beste Jaungoikorik eztauke. Gogo ta biotza ogasun orreitara itzul eta makur eukitea, goiko zoriona irabazteko eragozpen andia zala irakatsi euskun Jesu Kisto gure Jaunak; baña Jaunaren irakaspen orrei jaramon gitxi egiten dautse gizasemeak. Geyenak urre-gose txarrak darabiltz eta Orati olerkari singeak aitatu eban «*auream mediocritatem*» gitxik maite dabe. Eukiago ta geyago bear dabela ta, aberatsenak be ezin dira diruz ase. Dirua zetako edo atako dala ta, aberats okituok laster asten dira dedu ta andizuren bila, bata *konde* ta besteak *markes* gitxienez izan bear dauala ta. Gero or dabiltz jauntxoak, enparauak baño zerbait geyago diralakoa, arropuzkeria edonondik darioela.

Aberatsen arrokeriok euren begiz dakusezan langileak be, ugazabak baizen gizon badirala ta; ain arro ta oparo dabiltzan aberatsok, euroen bizikera guriz darakusena baño beste zerurik eztagoala ta, ugazaben antzera jantzi, oneik baizen ondo bizi ta oneinak lako dedu (124) ta andizurenak (125) nai leukiez. Ezin eskuratu dabez, eta nai dabezan andikeri ta zorionok ugazabak eragozten dautsezala ta, langileak gorroto bizia dautse euren lepotik aberastu dirala uste daben ugazaba arropuz orrei. «Abera gaiztoa da gorrotoa»; onexek galerazten dau gizarteko bakea. Gorrotoz dabiltzan langileok, bildots otsanak diranik eztiñogu; baña andikeri ta arrokeri larregiz langile gaxoen biotzetan gorroto ori sortu ta biztu daroen aberatsak be errugabeak diranik ezin siñetsi geinke.

Gure Jaunak esan eban: «Jaungoikoa'ren erreñua ta bere zuzena lenen bilatu egizue ta enparauak geigarri emongo yatzuez»; baña Jauna'ren esakun ori ugazaba ta langileak zorakeritzat dauke. Gogo ta biotzak gora jasoten eztakie: Jaunak agindutako zerua aingeruentzat itxirik, lurra zeru egin nai dabe. Ori dala ta, gizarteko maila guztietan, goiko ta bekoetan, ekandu txarrak nausitu dira. Gizonaren benetako bearrizanak baño, oitura txarrak, *bixioak*, asko be diru geyago iruntsi daroe. Oitura txarrok ase ezi-

(122) Loka: Higikorra.

(123) Ibiloki: Mugikorra.

(124) Dedu: Ospe.

(125) Andizurenak: Ohorezkoak.

ñiak dira; edanago ta egarri andiagoo darakuse. Gixonen *bixioak* aseteko lagin ogasun lurrean egon be eztago ta, ekandu txarrok iñausi eta orrein orde ekandu onak, kistar oitura zindoak, gizartean berrezari ezik, bakerik iñoz be ezta izango, iñartzi (126), gorroto, gudu ta burrukea baño. Bakerik izatekotan, gizarteko mailak alkarganantz urragotu egin bear dira, goikoak pixka bat jatsiaz eta bekoak beste pixka bat igonaz. Orretarako arrokeri gitxiago ta erruki geyago bear dabe aberatsak, eta iñartzi gitxiago ta egoarri geyago langileak be.

Gaiztakeri guztien iturburu diran griña dongak iñausi ta kistar oitura-onak gizartean nagusituko balira, mailen urreratze ori laster lortuko litzake. Aldi baten be baziran ugazaba ta langilea; baña orduko nagusiak euren langile, otsein eta morroyak, sendiaren luzapena izan bailiran, etxekotzat artu ta euki eroyezana, ezbear eta gexoaldietan erruki ta maitasuna erakutsiaz eta bear eben sorospena emonaz.

Gaur, ostera, ugazaba ta langileak —sarri beintzat— alkar ezagutu be eztabe egiten: ugazaba askok langileen ardura apurrik be eztauke ta langilea be olako ugazabak maite baño sarriago gorroto dabez.

Au dala ta, gizartea gexorik daukan gaitz au osatzeko, zuzenbide utsa, zeatzena bailitz be, ezta naiko: orrezaz gañera, gizasemen biotzetan alkarganako maitasun edo *karidadea* biztu ta ixiotu bear da. *Karidadea* aitatu ezkeri, eskekoai zerbait emotea baño besterik eztalakoan, sasi jakitun batzuk maltzurkeriz irri ta barre egin daroe; baña *karidadea* orreik us-te daben baño gauza bikain eta ederreagoa da. Ura iturritik len Jaungoiko maitasunetik datorren alkargazko maitasun zindoa, *karidadea* orixe da ta, gaurko gizarte onek osakai orren bearrizan andi-andia daukala ezin ukatu. Origaitik ziñoan XIII Leon Doipuruak: «Gizarteko mailetan, nai goren nai beren dagozan gizaseme oroan biotzetan alkargazko maitasun, onoinen (127) guztien andra erreñua dan *karidadea* biztu bear da, gizartearen osasuna batez be orrexek ekarri dagike ta». Eta XI Pi Aita Santuak be argiro diño: «Baña azaldu doguzan artezkunde ta obariok gizartean sendotu ta tinkatzeko, zuzenbideari lotzaiki (128) bikaña dan maitasun ezarri, erantsi ta gañeratu bear yako. Zuzenbide zeatza be orretarako naiko dala ta, maitasun-legea ezetsi ta arbuyatzen dabenok, oker dagoz eta oker dabiltz.

(126) Iñartzi: Envidia.

(127) Onoinen: Birtute.

(128) Lotzaiki: Lotura.

Ziñez, zuzenbideak beragaz dakartsan eta bidegabez bete ez tiran eginbearren ordain eta ordekotzat, *karidadea* bein be ezta etsi ta euki bear; baña gizon bakotxak, bereak dituan eskubide guztiak lortuko baleuz be, oraindik *karidadea* rentzat egiñenik asko geldituko litzate. Zuzenbide utsak be gizarteko lazka ta burruka onen erro ta sustraya ayenatu dagikez; baña zeatzen bete arren be ezin daikez biotzak batu ta gogoak alkartu.

Gogoen lokarri ta lotzaiki alkargazko maitasarra da. Gizartera ba-kea ta lankidegoa ekartea, xede ta elburutzat dauen araudi guztiak, ondoen asmaurikoak dirudienak be, bazkideak batzen eta alkartzen dituan lotzaiki orretatik batez be artu daroetz euren indar eta sendotasuna: lotzaiki orrek uts emon ezkerro, araudirik oso ta bikañenak be ondoren onik ezta-karre». Onelan ba, gaurko gizartearen gaxoa zearo osatu al izateko, zuzen-bidea ta *karidadea* osoro bearrak dira; zuzenbidea lenen eta beste oroen oñarri; *karidadea*, barriz, aren nai ta naiezko geigarri. Gauza biok gizar-tean sarrerazo ezik, onen gatzak eztauko osabiderik.

Orain arte lez aurrerantzean be gizonak Jaungoikoa guzurtau nairik, lurraz zerua egin nairik badabiltz; gure Jauna ren irakaspenak gizartea na-gusitu ezpadadiz, txapel oker eta errizañak geitu arren, gizasemeak basa-piztien antzera, eten bako burrukan ibiliko dira. Agintari ta menpekoak, zuzentzaile ta zuzenduak kistar bizikerara jo ezpadagie, ori barik gizarte-ra bakea ekarteko asmuz lanean dabiltzanak itzarrrik amesetan diardue. Edo gizarteko oiturak kistartu edo burrukan jarraitu; beste biderik eztago.

Amaya Langile-Batzak

Langileak orain arte lortu dabezan obari guztiak, indarraren porasuz (129) eskuratu dabez. Aurrerantzean be, ezer egitekotan, indar ori bearez-koa izango dala uste dogu. Indarra batasun eta alkargoak dakartsela bada-kie ta, langileak orretarako iñok zirikatu bearrrik eztauke. Gaur egunean mota askotako langile batzak dagoz eta guztiak langileen onak darabiltzala diñoe. Aurrerago adierazo dogunez, sozialista, komunista ta sindikalisten asmuak, gizartearen gexoa osatu ta osasuna ekarteko baño, gizartea orain dagoan baño be gexoago ta txarrago ipinteko, asmu obak dira.

Gizasemerik geyenentzat asearen orde z gosea, askatasunaren orde z joputzea, zorionaren orde z zoritxar garbia lekarkie, batetik; bestetik, gizo-na abereen mailara eratsiaz, kistar siñeskuntzea be zearo ukatzen dabe ta, olakoen bazkUNETAN kistar langilerik ezin sartu daiteke. Langile Batz Oro-korra, erderaz «Unión General de Trabajadores» deritxona be, izenez ez-tan arren, izanez eta mamiz sozialista da. Bere buru ta zuzentzaile sozialista ezagunak ditu, oneik darabile ta, azkenengo batzarraldian era-bagi ebanez, sozialistak lez Langile Batz Orokar onek be, ogasun ekarkor guztien jabe gizartea ala estadia egin nai leuke. Ori dala ta, Bazkun orre-tako bazkide kistar langilerik bere guraz ezin izan daiteke, Aita Santuak irakatsi dauskunez, kistar zintzo ta benetako sozialista, biak batera, iñor be ezin izan daiteke ta.

Kai bakotxeko arrantzaleak aspaldian be euren anaidea dauke. Anai-diok gaur be antxiñako erara dabiltz ta, barriztau ta obetu bearrean dagoz.

(129) Porasuz: A fuerza de.

Lugin edo nekazariak berarizko ogasun eta eskubideak daukez tas, berarizko bazkunak bear dabez, nire ustez. Maizter edo errentadoreak, euren eskubideai eusteko, maizterren bazkuna, [(1)*] ugazabak be eurena, eta guztien eskubideak batera jagoteko, bitzuen bazpatza, beti euretari-koak buru ta zuzentzaile dirala, norbere eskubideak ondoen norberak zain-zen ditu ta.

Lantegi ta oletako langileak bazkunen baten sartuta egotea, gaur egu-nean nai ta naiezkoa dabe, osterantzean alkartuta dagozanak lana eragoz-ten dautse ta. Ziñez, badago non bazkidetu; bear bada, larregi. Or dagoz langile katolikuen bazkuna, langile aske edo libreena ta eusko langileena. Lenengo biak Euskalerrian indar gitxi dauke eta emendik ataz be larregi-rik ez. Gurartean indartsuena «Eusko Langile Batza» da, bazkiderik ge-yen, beste biak baño askoz geyago, onexek daukaz ta.

Langile-batz katolikuok, sozialista ta *ugetistakin* burruka ibili bear dabe ta, dagozan lez bananduta baño irurok asmu ta txede batez alkartuta obeto legokez; baño alkartze ori egiteko eragozpenak dagozan bitartean, erkin eta makalok indartu eziñik ibili baño, gaur indartsuena dan Eusko-Langile Batza, beronen bazkideak geituaz, dan baño be sendoago egitea, gauzarik egoki ta zurrena orixe dala nik uste. Gizarte-auziari buruz, Elei-zea'ren irakaspenak ontzat artu ta oñean ipiñi nai ditu; bazkideai uzkurtz eta erriketa edo politikeatzazko eztabaidak zearo galerazten dautsez, (34 ar.); ikurritzat langile alkartasuna ta eusko-anaitasuna daukaz; ori dala ta, gure beargiñentzat Euzko Langile Batzau berebizikoa da.

[(1)* Etxagunak be, etxaldea eurok badarabile, maizter-bazkun onetan sartu daitezkez «e.o.»]

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Oarra..... | 25 |
| I. Benetako sozialista ta katoliku zintzo, biak batera, iñor izan ete daiteke? Gizartekeri ta baltsakeri, zeri deritxogu? | 27 |
| II. Baltsakeria, asmaketa barriren bat ete da? Beñolako Kreta ta Esparta..... | 29 |
| III. Gizartekeria ta Ebangelioa. Antxiñako kistarrak, baltsan bizi ete ziran? | 31 |
| IV. Gaur zabal dabiltzan gizartekeri ta baltsakeria, noizitikoak ete dira? | 35 |
| V. Gizartekeria, baltsakeria ta abar, zek ekarri ete ditu batez be? Ondasunetzazko bakoizkeriaren ondorenak..... | 37 |
| VI. Aspaldion indar andia artu dabe, orren errua berariz norena ete da? | 43 |
| VII. Gizartekeria zer eztan | 47 |
| VIII. Gizartekeria zer dan | 53 |
| IX. Gizartekeria, zenbat eratakoa da? | 57 |
| X. Orren irakasle nagusi, nor? | 61 |
| XI. Marx'en asmaketa bitixak..... | 65 |
| XII. Marx'en eretxi ta irakaspen okerrak | 69 |
| XIII. Marx'en iragarpen utsalak | 73 |
| XIV. Marx eta Lasalle'k, alkarren antzik? Enderritarteko bazpatzak | 77 |

| | |
|---|-----|
| XV. Gizartekeri gazea. R. Macdonald eta F. de los Rios'en aburu eta eretxiak | 81 |
| XVI. Gizartekeri gazago au kistar-siñeskuntzeaz, alkartu ete-leike? | 87 |
| XVII. Alkargokeria (sindikalismoa), zer eta noizkoa ete da? | 89 |
| XVIII. Gizartekeri, baltsakeri ta alkargokeriaren oker eta kalteak. Asmaketa orreik eta bakotxaren jabetzea | 93 |
| XIX. Gizartekeria... ta gizonaren eskubideak | 97 |
| XX. Gizartekeria... ta gizonaren barriak | 101 |
| XXI. Gizartekeria... ta ugazaba barriak | 105 |
| XXII. Gizona gizartearen otsein eta jopu | 109 |
| XXIII. Gizartekeria ta baserritarrak | 115 |
| XXIV. Gure baserritarrak be sarietan sartu nai. <i>Langile -Batz- Orokarra</i> | 119 |
| XXV. Gizartekeria ta Errusi'ko baserritarrak | 121 |
| XXVI. Boltxebikiak eta Dumping'a | 125 |
| XXVII. Alogera ta alogerekoak | 129 |
| XXVIII. Gizartekeria eta alogerekoak | 133 |
| XXIX. Lana bear dan lez ordaintzeko, alogeraz gañera, beste biderik be badago | 137 |
| XXX. Gizarte-auzia ta ugazabak | 141 |
| XXXI. Gizarte-auzia ta agintariak | 145 |
| XXXII. Gizarte-auzia ta Eleizearen irakaspenak | 149 |
| XXXIII. Sendi-alogera, zein ete da? | 153 |
| XXXIV. Sendi-alogera, zer dala ta zor ete da? | 157 |
| XXXV. Gizartera bakea ekarteko, ekanduen obakuntzea, nai ta ezkoa ete da? | 163 |
| Amaya | 167 |

KLASIKOAK BILDUMA

| ikia | izenburu | egilea | argitaratzaile |
|------|--|---------------------------------|--------------------------|
| | Bi saindu heskualdunen bizia | - Frantzizko Laphitz | - ELKAR |
| | Fabulas en dialecto vizcaino | - Juan Mateo Zabala | - LABAYRU |
| | Laborantzako liburua | - Jean Pierre Duvoisin | - KRISEILU |
| | Bein da betiko/Batxi guzur | - Resurrección M. Azkue | - EREIN |
| | Piarres Adame | - Jean Baptiste Elissamburu | - ELKAR |
| | Abarrak | - Evaristo Bustintza KIRIKIÑO | - MENSAJERO S.A. GERO |
| | Bertoak eta beste | - Indalezio Bizkarrondo BILINTX | - ETOR |
| | Santa Jenobebaren bizitza | - Gregorio Arrue | - EREIN |
| | Ardi galdua | - Resurrección M. Azkue | - IBAIZABAL |
| | Jolasak | - Agustin Iturriaga | - KRISELU |
| | Ipuinak | - Pedro Miguel Urruzuno | - KRISELU |
| | Dramak | - Abelino Barriola | - IBAIZABAL |
| | Euskal naparren joera edo emigrazioa | - Marzelino Soroa | - LABAYRU |
| | Liburu ederra | - Jean Pierre Duvoisin | - EREIN |
| | Olerki sorta bat | - Felipe Arrese Beitia | - ELKAR |
| | Supazter sokoan | - Jean Barbier | - KRISELU |
| | Beribilez | - Jean Etchepare | - ELKAR |
| | Frantziako hiru errepubliken ixtorioa laburki | - Michel Elissamburu | - EREIN |
| | Kresala | - Txomin Agirre | - LABAYRU |
| | Quito-n arrebarekin | - Nikolas Ormaetxea | - IBAIZABAL |
| | Euskal idazlan guztiak 1 | - Koldo Mitxelena | - EREIN |
| | Euskal idazlan guztiak 2 | - Koldo Mitxelena | - ETOR |
| | Euskal idazlan guztiak 3 | - Koldo Mitxelena | - MENSAJERO S.A. GERO |
| | Euskal idazlan guztiak 4 | - Koldo Mitxelena | - ELKAR |
| | Euskal idazlan guztiak 5 | - Koldo Mitxelena | - KRISELU |
| | Euskal idazlan guztiak 6 | - Koldo Mitxelena | - KRISELU |
| | Euskal idazlan guztiak 7 | - Koldo Mitxelena | - EREIN |
| | Euskal idazlan guztiak 8 | - Koldo Mitxelena | - LABAYRU IKASTETXEA |
| | Euskal idazlan guztiak 9 | - Koldo Mitxelena | - ETOR |

KLASIKOAK BILDUMA

| zkoa | izenburu | egilea | argitaratzaile |
|------|--|-------------------------------|-----------------|
| 30 | Jostirudiak-Irritza | - Toribio Alzaga | - LABAYRU |
| 31 | Garoa | - Txomin Agirre | - LABAYRU |
| 32 | Peru Abarka | - Juan Antonio Mogel Urkiza | - KRISELU |
| 33 | La Fontainaren alegia berheziak | - J. B. Archu | - IKA-IBAIZABAL |
| 34 | Jerusalen-go Osteran amari idazkijak | - Jon Izurategi | - IKA-IBAIZABAL |
| 35 | Euskal literaturaz | - Piarres Lafitte | - EREIN |
| 36 | Zenbai hitzaldi | - Koldo Mitxelena | - ETOR |
| 37 | Gipuzkoako dantza. Beren soñu eta itz neurtu | - Ignacio Iztueta | - MENSAJERO |
| 38 | Antzerkia | - Esteban Urkiaga | - MENSAJERO |
| 39 | Atheka Gaitzeko Oihartzunak | - Jean Baptiste Dasconaguerre | - ELKAR |
| 40 | Leiendak (1879/1891) | - Karmelo Etxegarai eta beste | - ETOR |
| 41 | Artikulu bilduma | - Enrike Zubiri (Manezaundi) | - LABAYRU |
| 42 | Gizarte Auzia | - Juan Eguzkitza | - EREIN |

| |
|--------------------------|
| LABAYRU-IKASTEGIA |
| BIBLIOTEKA - DERIO |
| Sarr 19.270/91 |
| Gaia. |
| Tokia. |



E
Eg
Izi
En
Eg
Siz

«Gizarte-auzia» da Eguzkitzak gerra aurrean euskal arlora erakarri zuen gaia. 1935. urtean argitaratua, «Ekin» aldizkarian ezagutzera eman ziren artikuluen bilduma dugu liburu hau, bertan orduko Eliza Katolikoak gizarte auziari edo arazo sozialei buruz zeuzkan ideia eta pentsamoldeak bildu zituela autoreak. Lan honetxek eraman zuen Orixe aitortzera:

«Gai zailetan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian»